



# ASMAREN ETA HORTZ TXANTXARRAREN ARTEKO LOTURA BILBOKO METROPOLIKO HAUR-POPULAZIO BATEAN

AINHARA ABAITUA

Uztaila, 2017



*«Lan bikain bat egiteko modu bakarra, egiten duzun hori  
maitatzea da.»*

Patch Adams



## **Laburpena**

Haurren artean prebalentzia handiena duten gaixotasun kronikoetako bi dira asma eta txantxarra. Kontuan hartu behar da asma duten haurren organismoa ez dagoela gaixotasunaren eraginen mende soilik, hura tratatzeko behar diren medikamentuen mende ere badagoelako. Asmak eta haren aukako medikazioak ahoko osasunean dituzten eraginei buruzko txosten kontraesankor ugari daude, eta, hala ere, asmak ahoko osasun txarra izatea eragin dezakeenaren hipotesia proposatu da. Azterlan honen xedea izan da ikertzea ea asmak eta haren aukako medikazioak txantxar-arriskua areagotzen duten asma moderatua/larria duten eta Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuan (ESI) tratamendu jarraitua jasotzen duten 6 eta 14 urte bitarteko haurren artean.

90 umez osatu zen lagina: 45 asmatikoak ziren, eta beste 45ak, berriz, ez-asmatikoak. Adinaren arabera parekatu ziren. Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) irizpideekin bat, ikerlari bakarrak ebaluatu zituen hortzetako txantxarraren CAOD/-caod indizeak eta enamelaren asalduren eta/edo opakotasunen presentzia. Listuaren parametro klinikoak ere baloratu ziren, hala nola hidratazioa, biskositatea, pH-a, estimulatutako listuaren bolumena eta indargetze-ahalmena, GC Saliva-Check Buffer kit in vitro testa erabiliz. Listuaren parametroak eta txantxar-indizeak asmaren larritasunaren eta medikazioarekin lotutako parametroen (inhalaazio-sistema, medikazio mota, esposizio-denbora, uneko dosia eta hartualdi-unea) arabera ebaluatu ziren. Galdetegi egituratu bat eta OMEk sortutako haurren eta nerabeen ahoko osasunari buruzko inkesta ere erabili ziren zenbait faktore nahasgarri aztertzeko, hala nola medikazioa hartu ostean ahoa irakuztea, aho

bidezko arnasketa, dieta-ohiturak, aho-hortzetako higienea, odontologoarenera egindako bisitak, gurasoen ahoko osasuna, maila sozioekonomikoa, amagandiko edoskitze luzea eta fluoruroekiko esposizioa.

Azterlan honetan parte hartu duten haur asmatikoek CAOD indizearen balio handiagoak dituzte kontrol-taldekoek baino, baina balioak ez ziren esangura estatistikora iritsi; azterketa-taldearen CAOD indizea kontrol-taldearenaren bikoitza izan zen, haur asmatikoen batez besteko balioa 0,53 (DE 1 ,16) izan zelarik, eta kontrol-taldekoena, berriz, 0,22 (DE 0,53). Alabaina, emaitza horiek ezin izan ziren aldi baterako hortzeriara (caod) estrapolatu, ez baitzen alderik egon bi taldeen artean. Enamelaren hipoplasien kopuruari dagokionez, balio nabarmen handiagoak atera ziren asmatikoen taldean ( $P=0,01554$ ). Paziente asmatikoek listuaren biskositate nabarmen handiagoa dute ( $p=0,00182$ ), eta listuaren pH-a nabarmen txikiagoa ( $p=0,0148$ ) kontrol-taldekoek baino. Medikazioarekiko esposizioni-denborak lotura nabarmena du listuaren pH-a murriztearekin ( $p=0.033$ ). Hauts lehorreko inhalagailuek gehiago lehortzen dute ahoa batez besteko dosiko inhalagailu presurizatuek baino ( $p=0,004525$ ). Haur asmatikoen ahoko osasuna baldintzatzen duten nahaste-faktoreak honako hauek dira: amen ahoko osasun txarra, dieta keriogenikoagoa izatea eta odontologoarenera bisita gutxiago egitea.

Behin aldagai horiek guztiak aztertuta, ondoriozta daiteke asmak, gaixotasunaren beraren edo haren aurkako farmakoterapiaren bidez, behin betiko hortzerian txantxarra izateko arriskua areagotzen duela.

## **Ezkerrak**

Comienzo estas primeras páginas sumida en la incertidumbre en un etapa que acaba y que inevitablemente desemboca en la defensa de este hijo querido en el que se ha trasformado el presente proyecto.

Momentos como este me traen a la memoria conversaciones con gente a la que aprecio, que me decían que el tema de nuestros proyectos está vinculado, no solo a una preocupación intelectual, sino que está ligado a nuestra historia.

Es por ello, que en el año 2010, después de terminar la carrera, sumida en la inquietud de investigar, aprender y enseñar, asistí a los programas de doctorado en pediatría. Allí, pude explorar un abanico de posibilidades procedentes del campo de la pediatría y del cuidado del niño, con los que enriquecer y ampliar los márgenes de mi profesión.

A través de este trabajo, intento encontrar la forma de desarrollar un proceso reflexivo sobre la práctica profesional en situaciones vivenciales de enfermedad, motivo por el que hoy estoy aquí intentando ser coherente con mi profesión y conmigo misma en los dilemas que con frecuencia se me presentan. Este proyecto, me dará la oportunidad de acercarme a mi self indagador, no solo desde el por qué, sino también el cómo trasmitirlo a mis alumnos y pacientes.

Recuerdo perfectamente aquel 23 de septiembre, mi cumpleaños e involucrada en mi tesina, que recibí una llamada telefónica dándome la primera oportunidad de ponerme en contacto con la docencia. Al margen de la anécdota cronológica y con la perspectiva que aporta el tiempo, ese primer acercamiento abrió la puerta a un sueño largamente acariciado, y convirtiéndose a su vez la experiencia, en un motor renovador de fuerzas y entusiasmo, que culminaría en la tesis doctoral.

De alguna manera comenzaba a cerrarse el círculo. Círculo abierto en mi época de estudiante, cuajado de aspiraciones, sueños, preocupaciones y buenas intenciones. Se abría de esta manera un proceso de trasformación, incluso personal,

fruto de las vivencia, experiencias y contacto con todas esas manos que han ido saliendo a mi encuentro en este largo camino. Que no he recorrido en solitario. Por ello, tengo la necesidad vital de hacer referencia a todas esas personas que han formado parte de este mi proceso.

Gracias Aritz por ser mi guía en momentos de oscuridad y sobre todo por creer en mí. Fuiste mi gran oportunidad.

Alberto, Estibaliz gracias por estar junto a mí desde que fui alumna hasta el día de hoy, me habéis enseñado humanidad. Vuestra mirada profesional se queda en mi retina y en mi corazón.

Nerea siempre poniendo orden en mi caos y con la mano tendida. Faro en los días de tormenta, gracias por tu apoyo. Nerea, gracias por poner rumbo a mi profesión y por toda la confianza y cariño que me has demostrado.

Finalmente, Irune, esa alumna que fuiste un día y hoy, mi gran amiga. Esa hoguera de ilusión entusiasmo y apoyo, ese fuego que siempre alimenta. Super Iru zu barik hau ezin izengo neban bakarrik eruan ,eskerrikasko bixotzetik ,hobiena zara.

Gracias a todos mis pacientes por los cambios de agenda, por su compresión y cariño en todo momento. En especial a Josune y José que me habéis ayudado a plasmar una parte de mí en este proyecto. Gracias por todo.

Como olvidar a todo mi equipo de trabajo, Sarai, Iker y Nekane, siempre a mi lado ayudando en todo lo que habéis podido con una sonrisa. Gracias.

Por último, a mi familia deciros que os quiero, que nada hubiese sido posible sin vosotros. Gracias por todo ese cariño que nunca falta, por todos los abrazos de grupo en momentos de desesperación. Ama, Cesar asko gutxuet. Gracias ama por servirme de inspiración, como mujer guerrera que eres, y enseñarme que hay que luchar por las cosas cuando uno tienen ilusión. Jokinete eskerrik asko zure marrazkizegaitzik, beti bizize kolorestatutzen!

Zuri, nire parte zarenari, momento txarrak pase doguz, baia ilunetan hobeto ikusten da, eta dagoena ezin hobea da, Eskerrikasko.

Finalmente agradecer los consejos, dirección y tiempo a mis directores de tesis cuya ayuda ha sido inestimable. Gracias Don Javier Elorz y Don Carlos González.

*Eskerrik asko,*

Ainhara



# Aurkibidea

<b>Irudien aurkibidea</b>	<b>xiii</b>
<b>Taulen aurkibidea</b>	<b>xv</b>
<b>1 JUSTIFIKAZIOA</b>	<b>1</b>
<b>2 SARRERA</b>	<b>5</b>
2.1 Hertz eta Anatomia Eta Histologia . . . . .	5
2.2 Aho-osasuna Eta Osasun Orokorra Paziente Pediatrikoan . . . . .	9
2.3 Hertz-txantxarra . . . . .	11
2.3.1 Txantxarraren Epidemiologia . . . . .	12
2.3.1.1 Ahoko Osasunaren Bilakaera Espanian . . . . .	12
2.3.1.2 Ahoko Osasunaren Bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) . . . . .	14
2.3.2 Etiopatogenia . . . . .	16
2.3.2.1 Mikrobiologia . . . . .	17
2.3.3 Txantxarraren Fisiopatologia . . . . .	18
2.3.4 Arrisku-faktoreak . . . . .	21
2.3.5 Txantxarraren Diagnostikoa . . . . .	26
2.3.6 Tratamendua . . . . .	28
2.3.7 Hertz Txantxarraren Prebentzioa . . . . .	29

2.3.7.1	Fluorra . . . . .	30
2.3.7.2	Clorhexidina . . . . .	30
2.3.7.3	Xilitola . . . . .	31
2.3.7.4	Hobi Eta Ildoen Zigilatzaileak . . . . .	31
2.3.7.5	D Bitaminadun Gehigarriak . . . . .	32
2.3.7.6	Azukreen Gutxipena . . . . .	32
2.4	Asma . . . . .	32
2.4.1	Definizioa . . . . .	32
2.4.2	Prebalentzia . . . . .	34
2.4.3	Arrisku-Faktoreak Eta Faktore Eragileak . . . . .	35
2.4.4	Haurren Asmaren Sailkapena . . . . .	36
2.4.5	Diagnosia . . . . .	36
2.4.6	Tratamendua . . . . .	38
2.4.6.1	Helburuak . . . . .	38
2.4.6.2	Inhalazio Sistemak . . . . .	38
2.4.6.3	Farmako Eta Medikamentuen Sailkapena . . . . .	40
2.4.7	Prebentzioa . . . . .	43
2.5	Asmaren Eta Hortzetako Txantxarraren Arteko Erlazioa . . . . .	44
2.5.1	Asmaren Aukako Medikazioa Eta Hortzetako Txantxarra . . . . .	45
2.5.1.1	Medikazioan Dauden Karbohidrato Hartzigarriak . . . . .	45
2.5.1.2	Medikazioaren pH-A . . . . .	48
2.5.1.3	Medikazioak Listuan Eragiten Dituen Asaldurak . . . . .	52
2.5.2	Nola Eragiten Dio Asmak Hortzetako Txantxarrari? . . . . .	58
2.5.2.1	Asmaren Larritasuna Eta Gaixotasunarekiko Esposizio-Denbora	59
2.5.2.2	Aho Bidezko Arnasketa Eta Txantxarra . . . . .	60
2.5.2.3	Bizimodu Murriztailea Eta Produktu Kariogenoen Kontsumoa . . . . .	61
2.5.2.4	Asma Eta D Bitaminaren Eskasia . . . . .	61

---

2.5.2.5	Alterazioak Esmaltearen Garapenean, Asma Duten Pazienten Artean . . . . .	62
<b>3</b>	<b>HIPOTESIA ETA HELBURUAK</b>	<b>65</b>
3.1	Hipotesia . . . . .	65
3.2	Helburuak . . . . .	66
3.2.1	Helburu nagusia . . . . .	66
3.2.2	Bigarren Mailako Helburuak . . . . .	66
<b>4</b>	<b>MATERIALA ETA METODOA</b>	<b>67</b>
4.1	Azterlanaren Diseinua . . . . .	67
4.2	Agintariek Onartzea (Etika-Batzordea) . . . . .	67
4.3	Egileak Eta Antolakuntza . . . . .	68
4.4	Azterketaren Metodologia . . . . .	68
4.5	Tresnak Eta Hornidurak . . . . .	69
4.6	Laginketa-Metodoa . . . . .	69
4.6.1	Lagina Hautatzeko Sistematika (Azterlanean Parte Hartzeko Eta Baztertzeko Irizpideak) . . . . .	69
4.6.2	Laginaren Tamaina . . . . .	72
4.6.3	Laginaren Deskribapena . . . . .	72
4.7	Izaera Eta Datu-Bilketa . . . . .	73
4.8	Irispide Diagnostikoak . . . . .	73
4.9	Datuak Bat Etortzea Eta Erreproduzigarraitasuna . . . . .	84
4.9.1	Analisi Estatistikoa . . . . .	85
4.9.1.1	Informazioa prozesatzea . . . . .	85
4.9.1.2	Analisi estatistikoa . . . . .	85
<b>5</b>	<b>EMAITZAK</b>	<b>87</b>
5.1	Informazio basala . . . . .	87
5.2	Aho-osasunari buruzko elkarrizketa-galdetegi estandarizatua . . . . .	88

## AURKIBIDEA

---

5.3	Mediku Historia . . . . .	95
5.4	Aho-osasunaren ebaluazioa. Aldagai klinikoak . . . . .	95
5.5	Asmak Txantxarrarengan Daukan Eragina . . . . .	99
5.5.1	Asmaren larritasunaren eta txantxarraren arteko erlazioa . . . . .	99
5.5.2	Asmaren eta esmaltearen opakotasunaren arteko erlazioa . . . . .	99
5.5.3	Asmaren larritasunaren eragina listuaren parametroetan . . . . .	100
5.5.4	Aho-arnasketa eta txantxarra . . . . .	102
5.6	Medikazioak Txantxarrean Daukan Eragina . . . . .	103
5.6.1	Ahoa urez irakuztearen eta txantxarraren arteko erlazioa . . . . .	103
5.6.2	Inhalazio-sistemak eta txantxarra . . . . .	104
5.6.3	Medikazioaren aurreko esposizio denbora eta txantxarra . . . . .	106
5.6.4	Medikazioaren dosia eta txantxarra . . . . .	106
5.6.5	Medikazioaren administrazio unea eta txantxarra . . . . .	107
5.6.6	Molekula mota eta txantxarra . . . . .	109
5.7	Medikazioak Listuarengan Duen Eragina . . . . .	111
5.7.1	Inhalazio sistema eta listu parametroak . . . . .	111
5.7.2	Medikazioaren esposizio denboraren eta listuaren aldagaien arteko erlazioa . . . . .	113
5.7.3	Dosiaren eta listuaren aldagaien arteko erlazioa . . . . .	113
5.7.4	Molekula mota et listu aldagaien arteko erlazioa . . . . .	114
5.7.5	Listuaren pH-aren eta medikazioaren esposizio denboraren arteko erlazioa . . . . .	116
5.8	Ikerketako Haur Asmadunen Behin-betiko Hortzeriako Txantxar Mailen Konparaketa Euskal Autonomia Erkindegoko Populazio Orokorraren Azterlanarekin (2008) . . . . .	117
<b>6</b>	<b>EZTABIDA</b>	<b>119</b>
6.1	Discusión de la Metodología . . . . .	119
6.2	La Caries Dental en los Niños Asmáticos . . . . .	122

---

6.2.1	¿El Asma Afecta Más a la Dentición Permanente que a la Dentición Temporal? . . . . .	125
6.2.2	Comparativa de la Salud Oral de los Niños Asmáticos con la Población General del tercer Estudio Epidemiológico del País Vasco . . . . .	127
6.3	Caries Dental en los Niños Asmáticos y Posibles Variables de Confusión . . . . .	128
6.3.1	Flúor, Hábitos de Higiene y Visitas al Odontólogo . . . . .	128
6.3.2	Nivel Socio Económico y Salud Oral de los Padres . . . . .	130
6.3.3	Factores Dietéticos . . . . .	131
6.3.3.1	Consumo de bebidas azucaradas . . . . .	131
6.3.3.2	Consumo de bollería . . . . .	132
6.3.4	La Obesidad, El Asma y La Caries Dental . . . . .	134
6.3.5	La Disbiosis y Su Relación Con El Asma, La Caries y La Obesidad . . . . .	135
6.3.6	Lactancia Materna, Asma y Caries . . . . .	136
6.3.7	Aclarado De Boca Después De La Medicación Y Su Influencia Con La Caries Dental . . . . .	137
6.3.8	Rinitis Alérgica Respiración Oral Y Caries . . . . .	139
6.4	Alteraciones Salivares En Los Niños Asmáticos Y Su Relación Con La Caries Dental . . . . .	140
6.4.1	Alteraciones En La Viscosidad Y Flujo Salivar . . . . .	142
6.4.1.1	Alteraciones en la viscosidad . . . . .	143
6.4.1.2	Flujo salivar . . . . .	145
6.4.2	Alteraciones Del Ph Salivar . . . . .	148
6.4.2.1	Tiempo de exposición y pH . . . . .	149
6.4.2.2	Tipo de Molécula y PH. . . . .	150
6.4.3	Erosión Y Caries . . . . .	151
6.4.3.1	Oxido Nítrico Exhalado Y Su Papel En La Salud Oral De Los Niños Asmáticos . . . . .	152
6.4.4	Factores Relacionados Con La Severidad Del Asma, La Medicación Y La Caries . . . . .	152

## **AURKIBIDEA**

---

6.4.5 La Caries Dental En Niños Asmáticos Y Su Relación Con Bajos Niveles De Vitamina D . . . . .	153
6.4.6 Hipoplasias Y Riesgo De Caries En Los Niños Asmáticos . . . . .	155
<b>7 ONDORIOAK</b>	<b>159</b>
<b>Bibliografia</b>	<b>161</b>
<b>ERANSKINAK</b>	<b>191</b>

# **Irudien aurkibidea**

2.1	Hortz erorkorren aldaketa hortz iraunkorretara (ilustrazio propioa) . . . . .	6
2.2	Hortza eta hortzaren egiturak (ilustrazio propioa) . . . . .	8
2.3	1988ko, 1998ko eta 2008ko azterketa epidemiologikoetako CAOD INDIZEA	16
2.4	pH-aren araberako hidroxiapatitaren solubititatea. . . . .	19
2.5	Txantxarraren prozezua baldintzatzen duen desmineralizazio (suntsiketa) eta remineralizazio (erreparazio) sistema. . . . .	20
2.6	Txantxarraren prozesuaren determinatzileen irudi eskematikoa. . . . .	22
2.7	Inhalatutako farmakoen farmakozinetikaren irudia. . . . .	46
5.1	Medikazioaren esposizio denbora eta CAOD aldagaien arteko dispersio-diagarama.	107
5.2	Medikazioaren esposizio denbora eta caod aldagaien arteko dispersio-diagarama.	108
5.3	Haur asmatikoen medikazioaren esposizio denboraren eta 6-6,6 eta 6,8-7,8 arteko listuaren pH-aren arteko kaxa diagrama. . . . .	116
5.4	CAO O (txantxar gabeko haurrak). Ikerlaneko haur asmatikoen eta EAEko populazio orokorraren ikerlanaren (2008) arteko konparaketa. . . . .	117
5.5	CAOD-aren konparaketa ikerlaneko haur asmatikoen eta EAEko populazio orokorraren ikerlanaren (2008) artean. . . . .	118



# Taulen aurkibidea

1	Laburdurak . . . . .	xix
4.1	Azterlan honetarako egin behar ziren gastu guztien zenbatespena. . . . .	70
4.2	Haurren asmaren larritasunaren sailkapena. . . . .	71
4.3	Azterlanean erabilitako prozedura analitikoen ikuspegi orokorra jaso da. . . . .	75
5.1	Ikerketako pazienteen informazio basala . . . . .	88
5.2	Pazientearen gurasoen ikasketa maila. . . . .	88
5.3	Fruta eta opilen kontsumoa. . . . .	89
5.4	Azukredun edarien eta zukuen kontsumoa . . . . .	89
5.5	Esne kondentsatuaren kontsumoa. . . . .	90
5.6	Azukredun kakaoaren kontsumoa. . . . .	90
5.7	Azukredun kafearen eta tearen kontsumoa. . . . .	91
5.8	Fluordun uraren kontsumoa. . . . .	91
5.9	Fluordun hortzorearen erabilera. . . . .	91
5.10	Eskuilatze maitzasuna. . . . .	92
5.11	Haginlariarenean azken 12 hilabeteetako ikustaldi kopurua, haginetako mina eta hortz eta hortzoien osasunaren pertzepzioa. . . . .	93
5.12	Edoskitzea . . . . .	94
5.13	Gurasoen aho-osasuna. . . . .	94

## **TAULEN AURKIBIDEA**

---

5.14 Medikazio gehigarriaren erabilera iraganean eta errinitis alergikoaren presen- tzia. . . . .	95
5.16 Aho-arnasketa . . . . .	96
5.17 CAOD indizea behin-betiko hortzerian eta caod indizea behin-behineko hor- tzerian . . . . .	96
5.18 Behin-betiko hortzeriaren CAO 0 indizea (Khi-karratu testa). . . . .	96
5.19 Behin-behineko hortzeriaren cao 0 indizea (Khi-karratu testa) . . . . .	96
5.20 Estimulatu gabeko listua . . . . .	97
5.21 Estimulatutako listua . . . . .	98
5.22 Esmaltearen opakotasunak . . . . .	98
5.23 Asmaren larritasunaren eta CAO 0 eta cao 0 indizeen arteko erlazioa . . . . .	99
5.24 Asmaren eta esmaltearen opakotasunen arteko erlazioa . . . . .	100
5.25 Asmaren larritasunaren eta estimulatu gabeko listuaren hidratazioaren arteko erlazioa . . . . .	101
5.26 Asmaren larritasunaren eta estimulatu gabeko listuaren biskositatearen arteko erlazioa . . . . .	101
5.27 Asmaren larritasunaren eta estimulatu gabeko listuaren pH-aren arteko erlazioa	101
5.28 Asmaren larritasunaren eta estimulatu gabeko listuaren pH-aren arteko erlazioa	102
5.29 Asmaren larritasunaren eta estimulatutako listuaren kantitatearen arteko erlazioa	102
5.30 Asmaren larritasunaren eta indargetze-ahalmenaren arteko erlazioa . . . . .	102
5.31 Aho arnasketa, CAO 0 eta cao 0-ren arteko erlazioa . . . . .	103
5.32 Ahoa irakutzearen eta CAO 0 eta cao 0 indizeen arteko erlazioa . . . . .	104
5.15 Asmadunen taldeko berezko aldagaiak. . . . .	105
5.33 Inhalagailu motaren eta CAO 0 eta cao 0 indizeen arteko erlazioa . . . . .	106
5.34 Medikazioaren kontsumoaren eguneko momentuaren eta CAO 0 eta cao 0 indizeen arteko erlazioa . . . . .	108
5.35 Molekula motaren eta CAOD-aren arteko erlazioa . . . . .	109
5.36 Molekula motaren eta CAO 0-aren arteko erlazioa . . . . .	110
5.37 Molekula motaren eta caod-aren arteko erlazioa . . . . .	110

5.38 Molekula motaren eta cao 0-aren arteko erlazioa . . . . .	111
5.39 Inhalazio sistemaren eta estimulatu gabeko listuaren hidratazioaren arteko erlazioa . . . . .	111
5.40 Inhalazio sistemaren eta estimulatu gabeko listuaren biskositatearen arteko erlazioa . . . . .	112
5.41 Inhalazio sistemaren eta estimulatu gabeko listuaren pH-aren arteko erlazioa .	112
5.42 Inhalazio sistemaren eta estimulatutako listu kantitatearen arteko erlazioa . .	112
5.43 Inhalazio sistemaren eta indargetze-ahalmenaren arteko erlazioa . . . . .	113
5.44 Hidratazioa hiru molekula nagusiak kontsumitzen dituzten haurretan . . . . .	114
5.45 Biskositatea hiru molekula nagusiak kontsumitzen dituzten haurretan . . . . .	115
5.46 pH-a hiru molekula nagusiak kontsumitzen dituzten haurretan . . . . .	115
5.47 Listu kantitatea hiru molekula nagusiak kontsumitzen dituzten haurretan . . . . .	115



## **1 Taula.** Laburdurak

ICS	Inhalatutako kortikoesteroideak
GCI	Glukokortikoide inhalatuak
LABA	Eragin-luzeko b2-adrenergiko agonistak
SABA	Akzio laburreko B2 bronko-zabaltaile agonistak
MDI	Neurtutako dosi inhalagailu konbentzionala
DPI	Hauts lehorreko inhalagailuak
GEMA	Asmaren maneiurako gida espanyiarra
GINA	Asmarentzako Ekimen Globalak
CAOD	Behin betiko hortzeriaren txantxar-indizea
Caod	Behin-behineko hortzeriaren txantxar-indizea
AT	Asma taldea
AGT	Asma gabeko taldea
CPI	Kumunitateko zunda periodontala
EHH	Ebakortzen eta haginen hipomineralizazioa
BSE	Belarria, sudurra eta eztarria
OME	Osasunaren Mundu Erakundea
EE	Ez eskuragarri
DE	Desbideratze estandar
ESI	Erakunde Sanitario Integratua
BGBK	biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoan



## KAPITULUA

# 1

## JUSTIFIKAZIOA

**H**AURREN osasuna aldaketa sozioekonomikoen eta laguntzazko eta prebentziozko mediku-jardueren mende dago neurri handi batean. XX. mendearren hasieran, gai-xotasun infekziosoak ziren haurren morbilitatearen eta hilkortasunaren kausa nagusia, eta osasunaren zaintza gaixotasun infekziosoak hautemateko miaketak egitera mugatzan zen ia. Gaur egungo egoera zeharo desberdina da, txertoen bidez prebenitu daitezkeen infekzioak murritztu edo ia desagertu egin baitira. Testuinguru horretan, garrantzi berezia hartu dute gaixotasun kronikoek: haurren artean prebalentzia handiena duten gaixotasun kronikoe-tako bi dira asma eta txantxarra (1,2)

Asmaren prebalentzia modu konstantean areagotu da joan den mendearren azken zatian. Ikerketa epidemiologikoek diotenez, mundu osoan, 300 milioi pertsona inguruk dute asma, eta 2025era bitarte intzidentzia beste 100 milioitan haziko dela uste da (3,4). Ikerketek erakusten dute haur-asmaren bilakaerak patroi desberdinei jarraitzen diela: haur batzuen arnas klinika gutxitu egiten da denborarekin, beste batzuena behin-behinean gutxitzen da zenbatean behin, eta beste batzuek klinika iraunkorraz jarraitzen dute helduarora arte. Halere, esan behar da haurren ehuneko handi batean sintomak gutxitu egiten direla nerabezarrora heldutakoan (5)

## **1. JUSTIFIKAZIOA**

---

.Edonola ere, esparru horretan, honako hau izaten da pediatren eta pneumologia pediatrikoan espezializatutako medikuen arazo nagusietako bat: gaur egun ez dago inolako zeinu edo proba osagarri fidagarririk pazienteek helduaroan zer bilakaera izango duten adierazten duenik (6).

Kontuan hartu behar da asma duten haurren organismoa ez dagoela gaixotasunaren eraginen mende soilik, hora tratatzeko behar diren medikamentuen mende ere badagoelako. Inhalatutako terapia erabiltzen da normalean arnasbideak buxatzea dakarten arnas gaixotasunak tratatzeko, hala nola asma eta biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa tratatzeko (7,8).

Asma duten paziente askok horrelako medikamentua inhalatzen dituzte, batzuetan baita egunean lau aldiz ere, eta denbora luzez gainera(9) .Biologiaren ikuspegitik, zentzuzkoa da pentsatzea korrelazioa egon daitekeela asmaren aurkako medikamentuen eta ahoko asalduren artean, medikamentu horietako gehienak inhalatu egiten direlako, eta ezin delako saihestu botika horrek ahoko ehunak ukitzea (10) .

OME erakundearen estimazioen arabera, munduan bost mila milioi pertsonak izan dute hortzetaiko txantxarra. Aho-hortzetaiko gaixotasunen eraginak handiak eta garestiak dira, minari, sufrimenduari, narriadura funtzionalari eta bizi kalitatea murrizteari dagokienez. Haurren artean, ondorioek garrantzi berezia dute, sistema estomatognatikoaren funtzioak aldatzeaz gainera, hazkuntza orokorrean eta garezurraren eta aurpegiaaren hazkuntzan ere eragiten baitute, bai eta garapen psikologikoan ere. Gainera, infekziosoa denez, tokiko konplikazio lariak sorraraz ditzake, hala nola abszesuak eta aurpegiko zelulitisa, edo, epe luzean, patologia eragin dezake beste zenbait organotan, pronostiko larriz gainera batzuetan (11).

Gaixotasunaren bilakaerari buruz, zenbait ikerketek diote haurtzaroan txan-txar-lesioak izateak pazientearen helduaroko aho-osasuna baldintzatzen duela, eta, beraz, haurren aho-osasuna kontrolatu eta prebentzioz jokatu behar dela, helduaroan txantxarra izateko arrisku potentziala murrizte aldera (12-15).

Bizi-kalitatean eragin negatiboak izateaz gainera, hortzetaiko txantxarrak kostu handia eragiten du osasun-laguntzaren alorrean, tratatzen garestien diren gaixotasunen artean laugarrena baita. Gutxi gorabehera, herrialde industrializatuetako osasun-alorreko aurrekontuen % 10 erabiltzen da hora tratatzeko (16) .

---

Diagnostiko goiztiarraren bidez, nahiko erraza da txantxarra eta aho-hor-tzetako gaixotasunak prebenitzea edo arintza metodo erraz eta eraginkorren bidez, bizitzako etapa guzietan, eta banaka edo populazio handiekin lan eginez; hori horrela, haurrei zuzendutako osasun-programetan puntu nagusietako bat izaten da askotan (17)

Lehen esan dugun eran, asma eta txantxarra prebalentzia handiena duten gaixotasunetako bi dira(1,2), eta egile ugarik nabarmendu dute interesgarria izango litzatekeela bi gaixotasun horien etiopatogenian loturarik badagoen ala ez jakitea (18).

Egiaztatuta dago gaixotasun sistemiko batzuek aho-hortzetako gaixotasunak izateko arriskua areagotzen dutela; diabetesa duten pazienteen artean, adibidez, areagotu egiten da gaixotasun periodontalak izateko arriskua. Era berean, aho-hortzetako osasun kaskarra izateak prozesu orokorrein eta horien erabilerari eragiten die. Aho-hortzetako gaixotasun gehienek arrisku-faktore komunak dituzte kutsakorrak ez diren beste gaixotasun batzuekin, hala nola gaixotasun kardiobaskularrekin, minbiziekin, diabetesarekin eta arnas gaixotasunekin. Arrisku-faktore horietako batzuk dira dieta ez osasungarria (azukre gehitu ugari dutenak bereziki) eta tabakoa eta alkohola kontsumitzea (19).

Laburbilduz, arrisku-faktore komunak dituztenez, medikazioarekin erlazioa izan dezakeelako edo beste zenbait faktore direla-eta, azken hamarkadan ugaritu egin dira asmaren eta aho-osasunaren arteko erlazioa aztertzen duten ikerlanak. Hala eta guztiz ere, ez da adostasun handirik lortu haurren asmak eta asmaren aurkako medikazioak haur asmadunen aho-osasunean dituzten eraginei buruz. Alavaikko et al. egileek egindako lanean jaso da ebidentzia handiena. 2011n egin zuten azterketa sistematikoak eta meta-analisiak agerian uzten du asmak bikoitztu egiten duela hortzetako txantxarra izateko arriskua, hortzeria mistoan zein behin betikoan (18) Alabaina, ikerlanean sartutako lanak aztertuz gero, ikusten da neurketa gutxi egin direla txantxarraren eta asmaren arteko erlazioarekin zerikusia izan lezaketen edo erlazio hori maskaratzen egon litezkeen balizko faktoreen gainean. Hori horrela, zenbait faktoreren gaineko azterketa osoa egitea proposatzen dugu, jakiteko ea horietakoren batek paper erabakigarria ote duen balizko erlazio horretan, edo nahastea eragiten duen faktore gisa jarduten ote duen. Ikerlanaren xedea da lagungarri izatea plan estrategikoak optimizatzeko eta esku hartzeko

## **1. JUSTIFIKAZIOA**

---

eta prebenitzeko estrategiak ezartzeko haur asmadunentzat, jarduera klinikoaren eta osasun publikoaren alorrean.

Hortaz, bi gaixotasunak progresiboak direla eta prebalentzia handia dutela kontuan hartuta, eta arazoa larria denez eta horri buruzko ikerlan gutxi daudenez, asmak eta haren aurkako medikazioak Bilboko haur asmadunen aho-osasunean dituzten eraginak sakonki aztertzeko eta horrekin zerikusia duten balizko mekanismoak identifikatzeko beharra ikusi dugu.

KAPITULUA

# 2

## SARRERA

### 2.1 Hertz eta Anatomia Eta Histologia


HORTZAK ehun mineralizatuko egiturak dira, haien garapena embrioi-garaian hasten da, eta lehenengo hertz-erupzioak bizitzaren hasierako 6 hilabeteetan zehar izan ohi dira. Giza hortzeriak 6-7 urterarte 20 hertz-hagin baino ez ditu, behin-behineko hortzeria deritzona. Lehenengo hortzeri honen funtzioak anitzak dira: elikagaien xurgapena digestio prozesurako prestatzea, behin-betiko hertzak ateratzeko behar duten hutsunea mantentzea, erupzio gida bezala jardutea, masail-hezurraren hazkundea suspertzea, eta aparatu estomatognatikoa suspertzea murtxikapenaren bidez. Honez gain, aurreko hertzak beharrezkoak dira fonazioa gauzatzeko, baita umearen estetikarako ere.(11,20)

6 urtetik aurrera hertz iraunkorren erupzioa hasten da. Aipatutako behin-behineko hortzeria hau era naturalean esfoliatzen da eta behin-betiko hortzeria edo hortzeria iraunkorra izango denari hasiera ematen dio. Hau horrela izanik, umearen haartzaroan zehar hortzeria mistoa izango duen garai bat egongo da, behin-behineko eta behin betiko hortzekin. Gutxi

## 2. SARRERA

---

gora behera 12 urterekin osatzen da hortzeri iraunkorra (hirugarren haginak ezik); izan ere, hortzeri iraunkorra bere osotasunean 32 hortz-haginez osatuta dago.(20)



**2.1 Irudia.** Hortz erorkorren aldaketa hortz iraunkorretara (ilustrazio propioa).

Hortzak hiru ehunez osatzen dira: esmaltea, dentina eta zementua, azken honek ehun konjuntibokoa den nukleoa inguratzen du, hortz-mamia alegia. Ehun gogorren helburua hortz-mamia babestea da, hau baita hortz-ehunak elikatzeaz eta hortzaren sentsibilitateaz arduratzen dena. Hortz-mamia eta dentina histologikoki, klinikoki eta fisiologikoki banaezinak dira, horegatik guzti honi hortz-mami dentina konplexua deritzogu. Esmaltea konplexu honi batzen

zaio lotura amelodentinarioari esker; eta zementua, bere aldetik, lotura amelozementarioren bidez (21).

Dentinak hertz-egituraren zati handiena osatzen du, hori dela eta kontaktuan dago esmaltearekin koro aldetik eta zementuarekin sustrai aldetik. Dentina ehun iragazkorra da eta odontoblastoen luzapen zitoplasmadunak dituzten tubuluek zeharkatzen dute. Odontoblasto hauen gorputzak lerrokatuta daude eta kanpo muga sortzen dute. Hertz-mamia deritzogun ehun konjuntibo laxo honek hertz-mami gunea betetzen du eta hertzaren sustraiaren hodiak lotailu periodontalarekin elkartzen ditu, sustraiaren mugako hertsaduran. Zuntz ugariko ehun konjuntiboa da; odol-hodiak eta inerbazioa dituena.(21)

Zementua ehun konjuntibo gogorra da, sustraia estaltzen du eta periodontoaz inguratuta dago, guzti honek batasun histologiko eta fisiologiko banaezina sortzen du. Baskularitate eta inerbazio gabeko ehuna da, irmotasunez dentinari lotuta dagoena eta lotailu periodontalarekin batera jarraitzen duena kanpoko gunean; horrela, hertz eta hezurra lotzen dituen lotailu periodontaleko kolageno zuntzei finkotasuna ematen dio.(21)

Esmaltea mineralizazio handiena duen ehuna da, duen eduki minerala dela eta. Bere pisuaren %95a osagai mineralizatua da, %2a osagai organikoa eta %3a ura. Osaera honek gizakiaren egiturak gogorrena bihurtzen du, eta bere helburu nagusiak murtxikatzea ahalbidetzea eta hertzaren barne egituretan jarduera kaltegarriak saihestea dira(22). Ehun minerala, batez ere, apatita kristalez osatuta dago; bere itxura desberdinan, hau da, hidroxiapatita, fluorapatita eta apatita karbonatatz, ugariena hidroxiapatita izanik. Egitura-unitateari erreparatuz, prisma hexagonal da; milioika  $\text{Ca}_{10}(\text{PO}_4)_{6}(\text{OH})_2$  hidroxiapatita kristalez eta apatita gabeko fasez (kaltzio karbonato eta fosfato amorfoz) osatuta. Kristalen gainazalak ioi molekulak xurgatzen ditu, garrantzitsuena fluorarena izanik txantxarraren ondorioz sortutako kalteak konpontzeko, izan ere, askoz ere iraunkorragoa da azidoek eragindako disoluzioen aurrean hidroxilapatitarekin alderatuz, eta honek, erresistentzia handiagotzen du txantxarra-rekiko. (22)

## 2. SARRERA

---



- 1.- Esmalte
- 2.- Dentina
- 3.- Mamia
- 4.- Lotailu periodontala
- 5.- Zementua

**2.2 Irudia.** Hortza eta hortzaren egiturak (ilustrazio propioa).

### **2.2 Aho-osasuna Eta Osasun Orokorra Paziente Pediatrikoan**

Osasunaren Mundu Erakundeak (OMEk) aho-osasunari buruz egiten duen definizioan zera dio: aurpegiko min, aho edo eztarri minbizia, infekzioa, aho zauria, gaixotasun periodontala, txantxarra, hortz galera edo beste gaixotasun edo arazoren gabezia izatea; pazientearen gaitasuna ondorengo kasuetan mugatz: koska egiteko, murtxikatzeko, irribarre egiteko eta hitz egiteko, gaixoaren ongizate psikosozialean zuzenki eragiten baitu. Horregatik, kontuan hartzen du aho-osasuna ezinbestekoa dela osasun orokor egoki eta bizi kalitate on baterako(17).

Aho-osasunaren eta osasun orokorraren arteko lotura estuak, bai eta bere eraginak norbanako osasunean eta bizi kalitatean, oinarri kontzeptual finkoa ematen dute aho osasuna osasun orokorrean barneratzeko. Aho-osasuna osasun eskubidearen zati da, eta ondorioz, oinarrizko eskubide gisa barneratzen da Nazioarteko Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalaren barruan, herrialde guzietan onartua izan dena. Horregatik, paziente pediatrikoaren osasun orokorrari buruz ari bagara, ezin diogu aho-osasunari garrantzia gutxiago eman. Honez gain, umearen aho-osasuna aldatu dezaketen eragile anitzen barruan, kontuan izan behar ditugu gaixotasun sistemikoen eragina eta aho-patologia, besteak beste, txantxarra eta honen eraginak (19)

Txantxarraren bigarren albo-ondorioak askoz ere larriagoak dira ume gazte eta gaixotasun kroniko baldintzak dituzten umeen artean, hala nola, kalitezko zerbitzu odontologikoa izan ezin dutenak.(23) Gainera, mendebaldeko herrialdeetan badaude gaixotasun kronikoko baldintzak dituzten umeak hortz-infekzioak edota txantxarraren aurreko tratamendu zabalek eu-ren bizitza arriskuan jarri dezaketenak, txantxarraren izaera infekziosoaren ondorioz. (23,24). Aho bakteriak bide sistemikoan zabaltzen badira patologia oso larriak sor ditzakete bihotz, giltzurrun, giltzadura edota beste organoetan. (11). Txantxarrak aho-osasunean eta osasun orokorrean duen eragina lotuta dago umearen adinarekin, lesioa agertzen den momentuarekin, lesioen sakonerarekin eta hortz-haginetan duen kokapenarekin. Oso sakonak diren txantxarrak eragindako lesioek zailtasun endodontikoak egoteko arriskua areagotzen dute etorkizunari begira patologiak sor ditzakeen abzesuekin: hantura, mina eta deserosotasuna murtxikatzerako garaian. Egoera hauetako askok ospitalizazioak ekar ditzake, eta larrialdietara bisitak infekzioaren hedapena eta mina kontrolatzeko. (25)

## **2. SARRERA**

---

Hortz-txantxar latzek sortzen duten minak umeen bizi kalitatea murrizten du, lo egiteko arazoak, kontzentrazio arazoak, jolasean edota eskolan etenaldiak, etab sor ditzake. Guzti honek umearengan suminkortasuna, haserrea eta emozio-estresa eragin dezake(26).

Beste alde batetik, hortzetako minak murtxikatzeko eta elikatzeko gaitasunaren murrizketarazia eragin dezake. Egoera honek asko baldintzazen du zein elikagai hautatu behar den eta zein ez; eta esku hartzen du jateko atseginean eta jateko gogoaren gutxitzean(27).

Guzti hau horrela izanik, badaude autoreak tratatu gabeko txantxar latzen presentzia estuki erlazionatzen dutenak pisu galerarekin eta hazkuntza desberdinarekin.(27)

Hortz txantxarraren beste ondorio bat hortz-haginiena erauzketa da, hauen errestaurazioa bideraezina den kasuetan egiten dena. Egoera hauetan, murtxikatzearen eta elikatzeko alterazioez gain, asaldurak egon daitezke hortz-arkuen eta aparatu estomatognatikoaren garapenean. Hortz ateratzeak ondoko hortzaginen migrazioa eragiten du, baita okertzea, biratzea, hortz-uztaien luzeeraren murriztea eta, askotan, herskuntza desegokia, azken honek aho-sistemaren funtzionamendu okerra sortuko duena. Parte-hartze fonetikoa duten hortzak kenduz gero, umearen hizkuntza gaitasuna ere ezindua suerta daiteke. (12) Aipatu berri ditugun txantxarraren ondorio diren arazo fonetiko edota estetikoek umeak eragotzi ditzake, eta ondorioz, umeak jarrera isila hartzea edo beharbada, irribarre egitea saihestea. Honek, umearen ongizate psikosozialean murrizketa nabaria sor dezake.(24)

Txantxarraren tratamendua garestia da (herrialde industrializatuetan laugarren gaixotasun garestiena da), baina umearen bizitzarako behar-rezkoa (28,29). Lesioen tratamenduek umeek eskola orduak galtzea eragiten dute, eta helduen artean lan-absentismoa. Osasun publikoaren erronka nagusi bat, aho-gaixotasunen kopura handia da, munduko herrialde gehienek gutxietsi dutena. Uste da herrialde industrializatuetako tratamenduen kostua gastu publikoaren %5 eta %10 tartean dagoela, eta kopuru hau garapenean dauden herrialde askoren baliabideetatik kanpo geratzen da. (11)

Arazo ekonomikoaz haranago, ez dugu ahaztu behar txantxarra prozesu itzulezina dela. Material zaharberritzaileez baliatuz hortzak berriztatzen diren eta funtzionalitatea berreskutzatzen den arren, hortz hauek askoz ere sentikorragoak izango dira txantxarra sortzerako or-

duan. Gainera, errestaurazio hauek ez dira betirako, errestaurazioen herenak 7 edo 10 urte pasata ordezkatu behar izaten baitira(23).

Behin behineko hortzerian txantxarra izatea kaltegarria izan daiteke behin betiko hortz-riarentzat, arrisku potentzial handiagoa izango baitute txantxarra pairatzeko edo beste alterazio batzuk izateko, hala nola, esmaltearen opakutasuna, hipoplaesiak eta garapenean alterazioak(12).

Paziente pediatrikoan txantxarra agertzea, heldutasunean txantxarra agertzeko arriskuaren adierazle da, horregaitik, arreta berezia ipini beharra dago umeen txantxarrengan(12,13).

### **2.3 Hertz-txantxarra**

Txantxarra hortzaren osagai kaltzifikatuak (esmaltea, dentina eta zementua) kaltetzen dituen prozesu bakteriar kronikoa da. Prozesuak hasiera batean efektu kimikoak eta ultraestructuralk (mikroskopikoak) ditu, izan ere, biofilmaren pH aldaketak esmaltean eragiten dute. Horregatik, txantxarra hasieran prozesu azpiklinikoa da eta gero, esmaltearen ehun mineralaren galera hori handitzean, klinikoki ikusgai bilakatuko da. Lesioa hala ere, oso aldakorra da; orban zuri bat izan daiteke (lesio txikia) edota barrunbe bat sortzen ere hel daiteke (30).

OMEk txantxarra jatorri multifaktoriala duen eta hortzaren azaleratzearen ondoren gertatzen den prozesu lokalizatutzat definitzen du, hortzaren ehun gogorrak bigundu eta barrunbea bat sortzen duena (31).

Definizioez gain, hainbat autorek, hala nola, Fejerskov et al (2008) txantxarra gaixotasuntzat hartu beharrean, gaixotasun zeinutzat hartu beharko genukeela diote; esmaltearen desmineralizazio eta bermineralizazio-prozesu fisiologikoaren alterazioaren berri eman dezakeena, metabolismo mikrobiarraren eraginaren ondorioz(32).

Gaur egun, beraz, Fejerskov et al(2016) hertz-gainazalean dagoen biofilmaren aktibitate metabolikoak eragindako hortzaren disoluzio lokalizatu bezala definitzen dute txantxarra(30).

## **2. SARRERA**

---

### **2.3.1 Txantxarraren Epidemiologia**

OMEk dio txantxarra dela mundu osoan prebalentzia handiena duen egoera, populazioaren ia erdiari (% 44) eragiten baitzion 2010ean(19). OMEk aho-hortzetako osasunari buruz egindako Mundu Txostenaren ondorioetan jasota dagoenez, hortzetako txantxarra aho-osasunaren alorreko arazo larrienetako bat da oraindik ere herrialde industrializatuetan, eta eskola-adinean dauden haurren

Aho-osasunaren adierazleetako bat hortzetako txantxarren indizea da (txan-txarrak jotako hortzen, falta diren hortzen eta buxatutako hortzen kopuruen batura: CAOD/caod indizea). OMEk indize hori erabiltzen du azterketa epidemiologikoetan hortzetako txantxarraren garrantzia zenbatesteko. Neurri bakarra ez dela eta mugak dituela badakigu ere, CAOD/caod balioa erabiltzen da maiz populazio jakin baten aho-hortzetako osasunaren egoera laburbiltsuko. Normalean, 12 urteko haurrekin egiten da, OMEk adin hori finkatu baitzuen nazioarteko alderaketetan eta gaixotasunaren joeren zaintzan txantxarra zaintzeo adin global gisa. 1.0 CAOD balioak esan nahi du behin betiko 32 hortzatik 1 dagoela txantxarrak jota, edo falta dela edo buxatuta dagoela. Banakoei buruzko balioak zenbaki osoak izaten dira; aldiz, populazioei buruzkoak badira, hamartarrak ere izan ditzakete(33).

CAOD indizeak (txantxarrak jotako, falta diren eta buxatuta dauden hortzak) behin betiko hortzerian izandako hortzetako txantxarraren bizi-esperien-tzia neurten du. Gaur egun, Amerikan daude gaixotasun-maila altuenak, eta Europa bigarren postuan dago. OMEk uste du, bizimodu nola aldatzen ari den ikusita, hortzetako txantxarraren intzidentzia areagotu egingo dela garatzen ari diren herrialde askotan, Afrikan adibidez, bereziki azukrearen kontsumoaren hazkundearen eta fluoruroekiko esposizio desegokiaren ondorioz (29)

#### **2.3.1.1 Ahoko Osasunaren Bilakaera Espanian**

1993an, Espainiako Odontologoen eta Estomatologoen Elkargoen Kontseilu Nagusiak (gaur egun Espainiako Dentisten Elkargoen Kontseilu Nagusia esaten zaio) aho-hortzetako epidemiologiari buruzko inuesta bat egitea agindu zuen, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) Pathfinder moduko zeharkako azterlanak gauzatzeko finkatutako irizpideekin bat. Azterlana

1995ean argitaratu zen, aurrekoa egin zenetik hamar urte igarotakoan, 1984an egin baitzen OMEk gainbegiratuta. 2000., 2005., 2010. eta 2015. urteetan egin ziren inkestak, Dentisten Kontseilu Nagusiak finantzatutakoak guztiak (34).

2015ean estatu espanyarrean ahoko osasunari buruz egindako inkestan, Espanian 1993-2015 bitartean txantxar-adierazleek (caod/CAOD) zer bilakaera izan zuten deskribatzen da, aldi baterako hortzeriari (caod) zein behin betiko hortzeriari (CAOD) dagokienez (34).

Ahoko osasunari buruzko azterlanetan ateratako aldi baterako hortzeriako txantxarraren adierazleak alderatu ahal izateko, 5-6 urteko adin-kohorte aukeratu zen, OMEk esandakoarekin bat. Estatuan egindako bost inkestetan, txantxarra eta txantxar aktiboa zuten haurren ehunekoek ez dute aldaketa nabarmenik izan jarraipena egin den azken 22 urteotan. Adierazleek prebalentziaren beherakada txikia erakusten dute, 1993an

Joera hori bera ikusten da caod indizean ere (txantxarrak jotako eta buxatutako aldi baterako hortzen batura), oso aldaketa txikia izan baitu: 1993an 0,97koa izatetik, 2015ean 1,11koa izatera pasa zen. Zaharberritzeen kopurua ere ez da aldatu 1993ko 13,4tik 2015eko 21,4ra. Ahoko osasunari buruzko azken inuesta horrek dioenez, datu horrek agerian uzten du aldi baterako hortzerian zaharberritzerik ez gauatzeko joera dela nagusi, eta hori bat dator haurrei zuzendutako arreta odontologikoko arreta-sistema komunitarioetan horri buruzko laguntza-zerbitzurik ez izatearekin. Egoera horrek okerrera egin dezake, aldi baterako hortzeriaren patologiari garrantzi txikia ematen baitio jendeak Espanian (34)..

Behin betiko hortzeriari dagokionez, emaitzen hobekuntza nabarmena ikusi da 12 eta 15 urteko adin-taldeetan. Zenbait urtez adierazleak egonkortuta egon ondoren, azken bosturtekoan nabarmen murriztu da hortzetako txantxarra. 12 urtekoen kohortean, esate baterako, txantxarraren prebalentzia 2010ean % 45ekoa izatetik, 2015ean % 33,3koa izatera pasa da. CAOD indizeak ere behera egin du denbora-tarte berean, 1,12tik 0,71ra. 15 urtekoen kohortean ere txantxarraren prebalentzia % 54,8tik % 43,2ra murriztu da, eta CAOD indizea 1,72tik 1,34ra jaitsi da. Kohorte horietan zaharberritze-indizeak ere pixka bat hobetzen direla ikusten da, 12 urtekoen kohortean %52,6tik

%61,9ra pasa baitira, eta 15 urtekoenean % 60,5etik % 67,7ra. Ziurrenik, 2008an haurrentzako hertz-laguntzako programak unibertsalizatu izanarekin lotuta egongo da joera hori, diru-

## **2. SARRERA**

---

laguntza zuzenak eman baitzitzainkien autonomia-erkidegoei haurren aho-hortzetako osasunaren alorren jarduerak sustatzeko (34).

### **2.3.1.2 Ahoko Osasunaren Bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE)**

Euskal Autonomia Erkidegoan, hortzetako gaixotasunek prebalentzia handia izan dute historikoki. Autonomia-erkidegoan 1988an egindako haurren hortzetako osasunari buruzko lehenengo azterketa epidemiologikoak agerian utzi zuen txantxarra zela hautemandako osasun-arazo nagusietako bat 45 urte bitarteko populazioaren artean. 12 urteko haurren % 69k txantxarra zuen behin betiko hortzerian, eta ehuneko hori % 82,2ra igotzen zen 14 urtekoen artean. Kaltetutako hortzen batez bestekoa, CAOD indizea deritzona (txantxarrak jotako, falta diren eta buxatutako hortzak), 2,3koa zen 12 urtekoen artean, eta ia 4koa 14 urtekoen artean (35).

Datu horiek kontuan hartuta, osasun-sailak EAEko osasun-planaren lehentasunen artean sartu zuen aho-hortzetako osasuna, eta zenbait neurri abiarazi zituen, hala nola hornidura publikorako urei fluorra gehitzea eta haurrentzako hortz-laguntzako programa abiaraztea. Bi neurri horien xedea zen “2000. urterako, 12 urteko haurren erdiak gutxienez txantxarrik ez izatea behin betiko hortzerian, 7 urteko haurren % 60k txantxarrik ez izatea aldi baterako hortzerian, eta 12 urtekoen CAOD indizea 2 baino txikiagoa izatea”(36,37).

EAEn, pixkanaka gehitu zitzaison fluorra urari. 1989an hasi zen prozesua, eta 1995erako burututa zegoen. Ura gomendatutako maila egokian fluoratzea, hortzetako txantxarra prebenitze aldera, aurretiazko hezkuntza-lanik eskatzen ez duen eta talde sozial guztiei iristen zaien esku-hartze komunitarioa da. Fluorazioa pixkanaka gauzatu zen; Gasteizen hasi zen 1989ko abenduan, eta 1994an eta 1995ean gauzatu zen Gipuzkoan eta Bizkaian, hurrenez hurren. Gaur egun, EAEko populazioaren % 78k fluorra gehitutako ura jasotzen du (0,9 mg/L-ko kontzentrazioan). 30.000 biztanletik beherako hornidura-eremu batzuetan ez zaio fluorrik botatzen urari, eta eremu horietan fluoraren kontzentrazioa oso baxua da, 0,1 mg/L ingurukoa (38).

1990ean, Haurrentzako Hortz Laguntzako Programa (PADI) abiarazi zen. Pixkanaka eza-ri zen, eta 1998an finkatutzat jo zen. Familia-dentisten talde zabal batek ematen du hortz-laguntza hori, eta taldea Osakidetzako langilez zein konsulta pribatu itunduetako langilez

osatuta dago. Programak doako azterketa bat eskaintzen die urteko, bai eta urteko azterketa gehiago ere beharrezkoa bada, 7 eta 15 urte bitarteko haurrei. Halaber, honako hauek ere eskaintzen ditu: aholku klinikoak eta prebentzioarekin lotutakoak, prebentzio-procedurak eta behin betiko hortzerian dauden pitzaduren zigilatzea, behin betiko hortzerian txantxarra eta traumatismoak tratatzea, aldi baterako hortzeriako piezak (kasu guztieta) eta behin betiko hortzeriakoak erauztea (ortodontzia-aginduek besterik esaten ez badute), eta kontsultarako ohiko ordutegian hortz-larrialdiei arreta ematea. Ez dira sartzen esneko hortzen edo lehen hortzen tratamendua eta ortodontzia-trtamendua. Programa 22 urtez egon da abian, eta, tartean horretan, 2004an izan zuen estaldura handiena, % 67,38koa hain zuzen ere. Ordutik aurrera, joera beheranzkoa da, txikia baina egonkorra (37).

Hamar urte beranduago, 1998an, bigarren azterlan bat egin zen, osasun-sailak abiarazitako prebentzio-neurrien eragina ebaluatzeko, eta agerian geratu zen hortzetako osasuna nabarmen hobetu zela, 12 eta 14 urteko haurren artean bikoiztu egin baitzen behin betiko hortzerian txantxarrik ez zuten haurren kopurua. Halaber, 12 eta 14 urtekoen CAOD indizea erdira murriztu zen 1988ko datuekin alderatuta (1,1 12 urtekok, eta 1,73 14 urtekoek). Hamarkada horretan gauzatutako bi prebentzio-neurriei esker gertatu zen hobekuntza. Programa horiek oso garrantzitsuak dira, populazioa adin txikietatik txantxarrak zaharberritzeko zikloetan hastea eta hori gaixotasun kroniko bihurtzea eragozteko gaitasuna dutelako (39).


Hobekuntza-ildo horrekin jarraituz, 2008an egin zen EAEko hirugarren eta azken azterketa epidemiologikoa. EAEko haur-populazioaren aho-hortze-tako osasunak erakutsi zuen behin betiko hortzerian txantxarrarekin lotutako arazoak zituzten haurren ehunekoa nabarmen murriztu zela aurreko azterketarekin alderatuta. 12 urteko haurren artean (nazioarteko konparazio-adierazlea), kaltetutako hortzen batez bestekoa (CAOD indizea) 0,52koa da soilik, Espainiako txantxar-indize baxuenetako bat delarik, eta Europan ere baxuenetakoa da EAEko azken azterketa epidemiologikoa argitaratu arte jasotako datuen arabera. Azterlan horren emaitzek agerian uzten dute nabarmen hobetu direla EAEko hortzetako osasunaren adierazleak 1998az geroztik.

Eusko Jaurlaritzak bere azken azterlanean ondorioztatu du lortutako maila oso alta bada ere, oraindik badaudela hobetu beharreko alderdiak, eta horiek identifikatzen eta zuzentzen

## 2. SARRERA

---

saiatu beharko genukeela ahal den neurrian (36)



**2.3 Irudia.** 1988ko, 1998ko eta 2008ko azterketa epidemiologikoetako CAOD INDIZEA (Moldatua (37)).

OMEren metodologiarekin bat 1988an, 1998an eta 2008an gauzatutako azterketa epidemiologikoek erakutsi dute EAEn hobetu egin dela haurren aho-hortzetako osasuna. Hobekuntza hori nabarmenagoa izan zen lehen hamarkadan (1988-1989), baina bigarren hamarkadan ere (1998-2008) ikusten da, nahiz eta neurri txikiagoan izan (37).

### 2.3.2 Etiopatogenia

Hortzetako txantxarra honako hauek epe luzez elkarreraginean egotetik sortzen da: azidoak ekoizten dituzten bakterioak, bakterioek metabolizatzeko moduko substratua eta hortzekin eta listuarekin lotutako beste zenbait faktore (28).

### 2.3.2.1 Mikrobiologia

Aho-ingurunean, mikroorganismoak biofilm bat eratuz antolatzen dira. Samaranayakek eta beste egile batzuek honela definitzen dute ahoko biofilma: komunitate konplexua eta funtzionala, mikroorganismo espezie batez edo gehiagoz eta ostalaritik edo bakterioetatik datozen zelulaz kanpoko produktuz osatua (40).

Ahoko mikrobioma honakoez osatuta dago: mikroorganismo guztien multzoa (edo mikrobiota), haien informazio genetikoa eta elkarreragiten duen ingurunea (41). Mikroorganismo multzo horrek organo funtzional bat eratzen du, tokian zein sistema-mailan osasunari eusteko eta funtziometabolikoak gauzatzeko ezinbesteko prozesuak gauzatzen dituena(42)

Oraindik txantxarraren mikrobioma espezifikorik aurkitu ez bada ere (43), honako bakterio hauek dira hortzetako txantxarraren eragile nagusiak: *s. mutans*, *streptococcus sobrinus* eta *lactobacillus acidophilus* (28) .

Disbiosia mikrobiotaren konposizioaren asaldura da, eta horrek mikrobiota-ostalari oreka apurtzea dakar; hori horrela, organismoan hanturazko erantzunak sortzen dira, eta, beraz, gaixotasunak agertzen (44) Hertz-plakaren biofilmen baitako desoreka edo disbiosia ahoko gaixotasun nagusiak eragiten dituen gertakari abiarazlea da, hala nola txantxarra eta gaixotasun periodontala (40).

Zenbait kausak eragin dezakete disbiosia, baina guztiak asaldurak eragin ditzakete tokiko ingurune mikrobiologikoan, eta mikrobiota arrunt bat patogeno bihur dezakete, azken hori ingurune berrira egokituta egongo delarik (45) .

Ahoko disbiosiak honako kausa hauek izan ditzake: gaixotasun sistemikoak (adib.: diabetes), asaldura genetikoak (adib.: interleukina), listu-asal-durak, sortzetiko edo egokitzapenezko faktore immunologikoak, ahoko higienea, dieta, tabakoa eta medikazioa (adib.: antibiotikoak) (45).

Txantxarrari dagokionez, egoera osasuntsuan, proteinez eta listu-gliko-proteinez elikatzen diren bakterioak egoten dira mikrobiota arruntean, azidoak neutralizatzen dituzten ioi alkali-noak eratzen dituztenak prozesu metabolikoan; horrela, pH-a egonkor egoten da, eta enamela bermineralizatu egiten da. Karbohidratotan eta sakarosatan aberatsa den dieta batean, zenbait bakteriok hartzitu egiten dituzte, eta azido laktikoa eratzen dute hondakin metaboliko gisa.

## **2. SARRERA**


---

Horrek tokiko pH-a murriztea dakar, eta azidoa ekoizten edo onartzen duten espezieak (azidofiloak) ugaritzea. Horren ondorioz, azidoak ekoizteko eta enamela desmineralizatzeko ziklo bat hasten da, azkenean txantxarra sortuko delarik (46).

### **2.3.3 Txantxarraren Fisiopatología**

Biofilm mean dauden bakterio endogenoek azido organiko ahulak sortzen dituzte haien gluzido hartzigarrien metabolismoaren produktu moduan (47-49). Azido honek pH jaitsiera lokala eragiten du kritikotasun batera heltzen delarik eta esmaltearen desmineralizazioa sortuko du (47-49). Azido hauen hidrogeno ioiek hortzaren hidroxiapatita disolbatzen dute eta disoluzio honek ehun gogorren fosfato eta kaltzio galera eragiten du, hau da, desmineralizazioa. Ez bada prozesua eteten eta bermineralizazio eta desmineralizazioaren arteko balantze dinamikoa ematen ez bada, mineral gehiago galduko dira lortutakoak baino eta horregatik, barrunbea edo zuloa sortuko da.(48,50).

Badugu sistema zuzentzaile bat bermineralizazioa deritzona. Honen funtzioa txantxarra sortzeko fenomenoari aurre egitea da kristal berrien prezipitazioa eraginez. Ahoan dauden kaltzio eta fosfato ioiak hidroxiapatitarekiko saturatuta daudenean edota pHa altua denean gertatzen da. Fluorrak katalizatzaile moduan jokatzen du kaltzioaren eta fosfatoaren hortzarekiko difusioa gertatzeko eta lesioa bermineralizatzeko. Birsortutako gainazalak, hidroxiapatita fluoratuz eta fluorapatitaz osatuta daude, hauek azidoen erasoekiko askoz ere erresistentzia handiagoa dute aurretik zutena baino (egitura originalak baino).(51). Bermineralizatutako guineek fluor kontzentrazio handiagoa eta mikroporo gutxiago dituzte, listuan dauden kaltzio eta fosfato ioiak atxikitu baitzaizkie (28).



**2.4 Irudia.** pH-aren araberako hidroxiapatitaren solubilitatea. Kaltzio eta fosfatoaren listuko kontzentrazioa lerro horizontalak irudikatzen du. zenbat eta pH baxuagoa orduan eta apatitaren solubilitate handiagoa. txantxarra 4.0-5.5 pH inguruan sortzen da, aldiz, hertz-erosioa pH 2,5-4 tartean (iturria:moldatua, (32)).


Txantxarraren garatzea edo gelditzea desmineralizazio eta bermineralizazio orekaren araberakoa da. Denboraren poderioz ondorengotako egoera bat gertatuko da: hertz-barrunbearen sorkuntza, hertzaren erreparaziora edo lesioa berberean geratzea. Bermineralizazioa ohikoa da,

## 2. SARRERA

---

batez ere biofilmaren pHaren listuaren bidez kontrolatzen denean (52).

Txantxarraren azken emaitza desmineralizaziora edota mineralizazio-ba-besera eramatzen duten eragile patologikoen oreka dinamikoak baldintzatuko du (53).



**2.5 Irudia.** Txantxarraren prozezua baldintzatzen duen desmineralizazio (suntsiketa) eta remineralizazio (erreparazio) sistema .(iturria :moldatua (28)).

### 2.3.4 Arrisku-faktoreak


Faktore etiologikoez gain, txantxarraren agerpenean eta garapenean eragiten duten beste hainbat eragile daude. Fejerskov et al eskema konplexuago bat proposatzen dute, txantxarrarekin zerikusia duten eragileei buruzkoa, aldi berean aho-mikrobiota ere bere barne hartu eta modulatzen duena.(30)

Txantxarraren faktore anitzeko etiologiaren identifikazioak ikertzaileak faktore anitzeko arriskuak aztertzen daramatza, aplikazio klinikoa eta zuhurtasuna mantentzekotan(54).

- **Listua**

Oro har, listua urez (%99), osagai organikoz eta inorganikoz osatzen da; kaltzioa, fosfato inorganikoa eta pHa potentziatzen duten substantziez. (55) Listua oso garrantzitsua da aho eta hortzen osasuna mantentzeko orduan. Izan ere, hainbat funtzio prebentibo ditu; hala nola, sistema antimikrobiarrak (immunologikoak eta ez-immunologikoak) eta tanpoi edo buffer gaitasuna (56).

Listuaren lehen defentsa mekanismoa hertzaren inguruan geruza erdi-iragazkor bat sortzea da, eskuarki hartutako pelikula gisa ezagutzen dena. Geruza honek hezi bat osatzen du azidoak kontaktuan ez jartzeko hertz-gainazalarekin(57). Gainera, listu azidoak mikroorganismo endogeno eta exogenoak eta hesteko produktuak kanporatzen eta husten ditu degluzioaren (garbiketa mekanikoa) eta listu-fluxuaren tasa areagotuz(57,58).Listuak babes proteinak eta eraso azidoak neutralizatzeko tanpoi sistemak ditu (59), aho barneko pH-a fisiologikoki osasuntsua den 6-8-7-8ko tartean mantenduz (60).



**2.6 Irudia.** Txantxarraren prozesuaren determinatzaileen irudi eskematikoa. borobil berdeak ahoa irudikatzen du eta hau lesio kariogenikoak baldintzatzen dituzten eragileez inguratuta dago. Faktore hauek, hortz-gainazalean eragina dute. Barruan dauden borobiltxoek, alde batetik hortz-gainazala eta bestetik pH aldaketaren eraginagatik gerta daitezkeen aktibitate-metaboliko ezberdinak irudikatzen dituzte. Hortzak mikrobio-biltegiz estalita daude eta denborarekin hortz-gainazalean eragina dute. Konposaketaren aldaketa ekologikoak eta biofilmaren aktibitate metabolikoaren aldaketak hortz-gainazalaren desmineralizazioa eta gerora lesio kariogenikoa eragin dezake. Desorekatze honen berrokatzea aho-barrunbean dauden hainbat faktorek baldintzatzen dute. Hauen artean, listua, fluorra, dieta, mikrobio-espeziea, tanpoi-ahalmena, eta azukre presentzia dira garrantzitsuenak. Kanpoan dena inguratzuz kolore horia ageri da. Prozesu honetan parte hartzen duten baina horren garrantzitsuak ez diren faktoreak daude, hala nola, klase soziala, hezkuntza, jarrera, ezagutza eta diru-sarrerak. (iturria: moldatua (30)).

Hainbat autorek iradokitzen dute listu-fluxu tasa dela listuaren babes ezaugarrien adierazle kliniko onena (57) Listu-fluxua handiagotuz eduki minerala eta tanpoi sistema (bikarbonatoa) areagotuko da (61), azken hau azidoen neutralizazioaren arduraduna delarik (59). Listu gabeziak iradoki dezake txantxarra izateko arriskuaren areagotze garrantzitsua. Listu-ekoizpena buru edo lepoko irradiazioaren ondorioz gutxitu daiteke, baita beste gaixotasun batzuen edo medikamentuen erabileraren ondorio gisa (28).

#### • Dieta

Historikoki, bat datozen aditu independenteen txosten ugari ondorio berera iritsi dira, azukreak direla txantxarraren eragilerik garatuena (62).

MOEren iritziz azukre askeak dira txantxarraren eragile garrantzitsuena. MOE-k “azukre aske” terminoa erabiltzen du elikagaiei gehitzen zaizkien monosakarido eta disakarido guztiei buruz hitz egiteko, bai fabrikatzaillek, bai sukaldariek eta bai kontsumitzailak gehitzen dizkietenak; baita ezti, zuku eta jarabeetan naturalki daudenei ere (63). Azukre aske terminoak alde batera uzten ditu fruitu oso, barazki eta esnean naturalki agertzen diren azukreak. Ebidentziak aditzera ematen duen bezala, hauek hortzen osasunerako edo osasun orokorrerako arrisku bat suposatzekotan arrisku txiki bat izango litzateke. Fruitu eta barazkien eraginek listu-fluxuaren estimulazio mekanikoan haien azukreen arrisku potentziala leuntzen laguntzen dute (16,63).

Aho-osasuna era askotan dietarekin erlazionatzen da, elikadurak hertz-gaixotasunez gain, garapen kraneo-fazial eta aho-mukosaren garapenean ere eragiten baitu (64).

Dietak hortzei eragiten die aurre-erupzioan zein erupzio ostean, nahiz eta bigarren honetan efektu lokala garrantzitsuagoa den (65). A eta D bitaminen gabeziak zein gaitz proteiko-energetikoa loturik daude esmaltearen hipoplasiarekin eta listu-guruinen atrofiarekin, izan ere, hauek txantxarra izateko sentiberatasuna areagotzen dute (64).

Azukreen kantitatea eta hauen kontsumo frekuentzia txantxarra garatzeko arrisku faktoreak dira. Azukre kontsumoaren frekuentziaren garrantzia eta kontsumituriko azukre kopuru osoaren arteko aldea ebaluatzeko zaila da, aldagai aske bezala ere ebaluatzeko

## **2. SARRERA**

---

konplexuak baitira (16). Frogaturik dago txantxarraren intzidentzia maila altuagoa dela azukre kopuru handiak kontsumitzen dituztenen artean, esaterako, azukreak dituzten iraupen luzeko farmakoak behar dituzten umeak (66).

Burututako ikerketen arabera, azukreen kontsumoak daukan txantxarra sortzeko ahalmena ez da horren altua jatorduetan hartzen bada (egunean 4 aldiz gehienez). Jatorduen artean hartzen bada, ordea, txantxar intzidentziaren igoera nabarmena da. Dietatik azukreak kentzean txantxarren progresioa geldiarazten dela ere frogatu da (67).

- **Mikroorganismoak**

Adin goiztiar batean, mutans streptokoko eta beste bakterio kariogeniko batzuen kolonizazioa txantxarren garapenerako faktore bat izan ahalko litzake (50,68). Hala ere, Mutans streptokokoen papera txantxarren jatorri nagusi gisa ez da frogatua izan. Ahoako mikrofloraren konplexutasuna dela eta, bakteria espezie bakar batek ezin dezake aurreikusi pertsona jakin batean emango den txantxarren eraketa; izan ere, ahoko mikroflora ehundaka bakteria espeziek eta milioika zelulek osatzen dute, hortzen gainazalean hazten direnak. Gaixotasun konplexu honen gaur egungo ezagutzak ez du ahalbidetzen pertsona jakin batean txantxarrak daukan jarduera zehatza ezagutzea. (43,69).

- **Txantxarraren Aurrekariak**

Evidentziek iradokitzen dutenez, *S. mutansek* haurren ahoa kolonizatu dezake fase aurre-eruptiboa, bai giza gordailuen bidetik eta baita transmisio bide bertikal zein horizontaletik(68). Horregatik hainbat autorek gurasoen aho osasun txarra txantxarra izateko arriskuaren areagotzearekin lotu dute (70).

Txantxarraren garapenerako beste arrisku faktore garrantzitsu bat txantxarren iraganeko agerpena da. Hainbat ikerketek egiazta dute behin-behineko hortzerian txantxar asko izan dituzten pazienteek arrisku gehiago dutela hau izateko behin betiko hortzerian (71) . Honek bat egiten du berrikuspen sistematikoarekin, banako gazteen etorkizuneko txantxar agerpenaren faktore aurresankorrenetakoa behin-behineko hortzeriako txantxarra dela baieztagatzen duena.(13) .

- **Faktore Sozioekonomikoak**

Txantxarraren gizartea eragin argi bat du, honen frekuentzia eta larritasuna area- gotzen baitira maila sozioekonomikoa jaisten den heinean. Bestalde, maila sozioekonomiko altuetako familien haurrek hertz-gaixotasun karga gutxiago, errestaurazio indize altuagoa eta garbitasun ohitura hobeak dituzte. (70).

Aldi berean, familia hauek euren seme-alaben aho-osasun egokiari buruzko kontzientzia eta ardura handiagoa dute (72). Osasun arloan ikasketa maila erabakigarriagoa da diru-sarrerak edo klase soziala baino, ezagutza, sinesmen eta jarrera baldintzatzen baititu (73,74). Ikerketa ezberdinen arabera, aldagai sozioekonomikoaren artean amaren ikasketa maila da aho osasunean gehien eragiten duena. Ikasketa maila altuagoa duten amek ezagutza eta ohitura hobeak irakasten dizkiete haurrei, eta haur hauek dira osasun orokor hoberena erakusten dutenak (75,76).

Familiak aho osasunean daukan eragina hainbat ikerketen helburu izan da;(77).Diotenez, aho-osasun hobeak duten gurasoek aho-osasun hobeagoko seme-alabak izango dituzte, baita aho-osasun ohitura hobeagoak dituztenek ere.(78-80) .

- **Fluorra**

Cochrane entziklopediako berrikuspen ugarik fluor esposizioak txantxarraren arriskuan duen efektua aztertu dute, sistemikoki zein topikoki ezarritakoa, honen aurkako babes-efektua egiaztatuz (81-83).

Fluorrak txantxarraren aurkako bere babes-funtzioa sistemikoki edo topikoki burutu dezake. Fluor sistemikoa enamelari atxikitzen zaio hertz garapenean; fluor topikoaren jokaera ordea ezberdina da, honek enamelaren desmineralizazioa gutxitzen du berminalizazioa sustatzu. Fluor sistemikoa hau ur hornikuntzatik, esnetik, gatzetik, tanta gisako fluor osagarrietatik edota piluleetatik lor dezakegu; topikoa ostera hortzore, irakuzi, berniz, gel, apar eta fluor askapen geldoko gailuetatik. Gainera, hertz plakako bakterioen metabolismoa inhibitzen du. Fluor ioiak zelula mikrobiaren fisiologian eragin dezake, zeharka desmineralizazioa inhibituz (84,85).

## **2. SARRERA**

---

Fluorra kopuru aproposean kontsumitzean, hortzen mineralizazioaren areagotzea, txantxarraren arriskua eta prebalentzia gutxitzea eta bizitzako etapa guztietaen enamelaren bermineralizazioan laguntzea lortzen da. Enamelaren eraketa (behin betiko hortzerian 6 urte arte) gehiegizko fluor kontsumoak, aldiz, hortz fluorosia eragin dezake. Bizitzako lehenengo sei urteetan ematen den fluor sistemikoaren gehiegizko esposizioak fluorosia eragiten du, behi-betiko hortzen koroetako enamela eratzen denean. Enamel honek proteina gehiago ditu; porotsuagoa opakoagoa da eta bestea baino gardenagoa. Klinikoki hainbat eratara ager daiteke, kuantitatiboki arteka horizontal meharrekin edo hori edo marroi argi koloreko enamelaren adabaki handiekin; bestalde, gradu desberdinak galera kualitatiboak izan ditzake(85).

- **Higiene Ohiturak**

Gaixotasun periodontala eta txantxarra saihesteko metodo nagusiak hortzen eskuilatzea eta biofilmaren ezabaketa mekanikoa dira. Honen ondorioz, egunean bi aldiz eskuilatzea hortzaren eta periodontoaren osasun ona mantentzeko unibertsalki onartuta dagoen neurria da(76).

Beste higiene interbentzioei buruzko ikerketak ez dira argiak eraginkortasuna neurterako orduan, fluordun hortzorearen aldibereko erabileraarekin nahasten direlako. Hala ere, ikerketa askoren arabera hortzak fluorra duen hortzorearekin eskuilatzea prebentzio neurri hoberena da, bereziki herste-gainazalenztat hortzen erupzio prozesuan(28).

Egin berri den berrikuspen sistematiko batek hortzen eskuilatzearen eragina txantxarren gain balioztatu zuen. Ahoa maiz eskuilatzen ez zutenek, ekintza hori ohiz burutzen zutenak baino txantxar gehiago zituzten. Lotura hau behin-behineko hortzerian esanguratsuagoa izan zen(76).

### **2.3.5 Txantxarraren Diagnostikoa**

Nazioarteko kontsentsuak (Pitts 2004a) txantxarraren diagnostikoa lesioaren aurkikuntzaren bidez (gaixotasuna hautemateko metodo objektibo baten erabilpena) eta lesioaren evaluazioaren bidez (behin aurkituta, lesioaren karakterizazio eta jarraipena) egin behar dela aholkatzen

du(86). Txantxarraren diagnostikoa, bai odontologia kontsultan, esparru-ikerketa batean edo ikerketa kliniko baten egitasmo baten zati izanik, hortzen gainazalen ikuste-azterketaren bidez egiten da, orokorrean esplorazio zunda erabiliz (86-88).

MOEk aho gaixotasunen neurketak orokortzeko eta jasotako datuen konparaketa inguru-giro ireki batean ziurtatzeko, diagnostikorako beharrezko den instrumentalak definitzen du hal-a nola, aho-isplu laua eta indize kumunitateko zunda periodontala CPI. CPI zundak MOEren zehaztasunekin bat 0.5mm-ko punta esferikoa, 3.5mm eta 5.5mm artean kokatutako zerrenda beltza eta punta esferikotik 8.5 eta 11.5 mm-ra kokatutiko eratzunak ditu. (33)

Estatu Batuetan hertz-lesioak begi bistaz ikustea gain, umiken feedbacka (hau da, gogor-tatsun frogua) emateko esplorazio-punta zorrotza erabili izan da urte askotan zehar. Bitartean, Europan uste da jardun honek balio diagnostiko gutxi duela eta enamelaren gainazalari min iatrogeniakoa eragin diezaiokeela, lesioaren hasiera edo jarraipena eraginez(88) . Ostera, punta borobildun zunda periodontal ez traumatiko baten erabilera (CPI zunda), MOErena bezalakoa, aukera ez traumatikoa izan daiteke (89).

Diagnostikorako erradiografiak, pazientearen historia aztertzean, erradiografi zaharrak berriuskutean (baldin baditu), txantxar-arriskua estimatu eta pazientearen osasun orokorra kontuan hartu denean egiten dira (90).

Atzoko hagini hurbileko gainazalen arteko lesioen detekzioa erronka bat da, ikusi eta ukitu ezin izanagatik, horregatik gehienetan erradiaizio ionizantea erabiltzearen da (87). Berrikuspen sistematiko berberak egiaztu zuen profesionalak txantxar interproximalen erdia bakarrik hautemango dituela, eta bakarrik nabarmenduko dituela lesio aurreratuak eta ez enamelean hasiberriak(87).

MOEk hurbileko txantxarra detektatzeko ez du erradiografiaren ezta begi-zuntzen erabil-pena aholkatzen, egoera guztietaan bere erabil-pena ez delako eraginkorra. Bi diagnostiko mota hauek tratamendu zaharberritzaleen balioespresa gutxitzen duten arren, hauen zailtasunek eta esposizio erradiologikorako ohiko eragozpenak izan ahalko ditzaketen abantailekin zenba-tetsita, ez du gomendatzen. Nahiz eta esposizio erradiologirako objekzioak egon eta arazo gehigarriak dituen, hauek aurreikus daitekeen abantailak gainditzen dute (33).

## **2. SARRERA**

---

Erradiologiaz gain, txantxar lesioaren diagnostikorako beste metodo diagnostiko batzuk daude; laser bidez induzitutako fluoreszentzia infragorrizko tresnak. (DIAGNOdent). Emaitzek adierazitakoaren arabera, gailu honek ena-melaren eta dentinaren hasiberriko lesioak detektatzeko sentsibilitate handiagoa du begi-ukimen eta erradiografien bidezko ebaluazioak baino. Orokorrean aparailu hau ere ez da guztiz gomendatzen; izan ere, dentinako txantxarraren detekziorako duensensibilitate maila altuagoa da, baina bere zehaztasuna beste metodo diagnostikoen antzekoa da (91).

Diagnostikorako beste modu klasiko bat, begi-bistazkoari osagarria, hortz-ehunaren argiztapen zeharra da, enamelaren eta dentinaren opakotasunen agerpena ebalutzeko. Zuntz optikoaren bidezko argi hotzarekin (DIFOTI - Digital Fiber Optical Transillumination) gainazal guztiak egoki argitzearen zaitasunak zaildu du bere erabilpenaurreko hortzetatik at. Metodo honen azken aurrerapena kamera digitalaren (DiagnoCAM) ezarpena izan da. Honek herste-aldeko argiaren esposizioa espektru infragorriaren antzekoa denean, argiztapen zeharreko irudia gorde dezake(92).Haginarteko dentinaren lesioen diagnostikoaren emaitzek, %95,3eko bat-etortzea erakusten dute hegats haginkarriko erradiografiaren eta DiagnoCAMaren artean. Tresna berri honen mugak hagin eta haginaurrekoen lesioen eta aspaldiko lesioen diagnostikoa da; hala ere, bere erabilpenak erradiografien erabilpena kasu zehatz batzuetara gutxitzea baimenduko du(92).

### **2.3.6 Tratamendua**

Usadioz, hortz txantxarraren tratamendua kirurgikokoa izan da, txantxardun ehuna irauli eta ordeztu. Gaur egun, ikuspuntu prebentiboago bat hartzen da, gaixotasunaren prozesuaren hasiera eta aurrerapena kontrolatzeko helburuarekin (86). Odontologoarentzat erronka garantzitsua da lesioa garai goiztiarrean detektatzea, esku-hartze kirurgikoa beharrezkoa izan baino lehen. Obturazio kopuruaren ordez prebentzio-tratamenduaren beharraren gainean hartu behar du informazioa aztertzaile epidemiologikoak eta ikertzaile klinikoak produktuen errrendimendua eta txantxarraren prozesua kontrolatzera apuntatzen dituzten estrategiak ebaluatu behar ditu eta baita zaharberritzea behar duen egoera aurreratuko gaixotasunen prozesua sahestu

behar du. Kontzeptu ez kirurgiko hau, interbentzio minimoko odontologia deritzoguna, berreiraikia izan da azken hamar urteetan zehar, eta ebidentzia sendoetan oinarritzen da (49,93-95). Odontologian Interbentzio minimoa txantxarraren prozesuaren ulermen hobean eta diagnostikoa egiteko teknologia berrien garapenean oinarritzen da, baita atxikitzen eta zaharberritzen diren materiale bioaktiboetan ere (94).

Gutxieneko esku-hartze minimoa (IM) erabiltzen duen odontologiak txantxarraren tratamendua lau puntutan oinarritzen du: lehenengoa, gaixotasunaren diagnosi oso sakona (txantxarra izateko arriskuaren eta sentikortasunaren ebaluazioa), lesioen hautemate azkarrerako. Bigarrena, txantxara saihestu eta lesio goiztiarretan bermineralizazio aukera eman. Hirugarena, eta beharrezkoa denean soilik, aurretik egindako zaharberritzetan ordezkapen sistemikoa egin ordez, esku-hartze kirurgikoa egitea (zaharberritzea barne). Azkenik, pazientearen heziketa lantza. Gutxieneko esku-hartze minimimoaren metodoaren helburua txantxarraren prozesua gelditzea edota saihestea da; baina lesioa barrunberaino heldu bada, osotasun estructurala eta hortzaren funtzio fisiologikoa berreskuratzeko modu bakarra zaharberritza da. Gutxieneko esku-hartze minimoko odontologiaren filosofiaren arabera, zaharberritzeak egiterakoan ahalik eta hertz egitura gehien gorde behar da material biomimetikoak erabiltzeaz gain (94).

### 2.3.7 Hertz Txantxarraren Prebentzioa

Fluorra denbora luzean kopuru aproposean kontsumitzean txantxar kopurua jaisten da, haurretan zein helduetan. Horrengatik OMEk fluoraren kontsumoa aholkatzen du dosi aproposetan; hornikuntzako ura, gatza, esnea edota fluordun hortzoreoa zein osagarriak hartuz (17).

Duela gutxi garatutako txantxarraren prebentziorako tratamendu mediku eta ez medikuei buruzko berrikuspen batean, autoreek txantxarraren intzidentzia kostu baxuko interbentzio prebentiboekin jaitsi egiten zela egiaztatu zuten (96). Hertz txantxarraren kontrol eta prebentzio neurriei buruzko ebidentzia handiena Cochrane entziklopediatik datoz, honek gai honi buruzko hainbat berrikuspen sistematiko egin baititu momenturarte (96).

## **2. SARRERA**

---

### **2.3.7.1 Fluorra**

Uraren fluorazioa ezinbesteko neurria da hortz-txantxarraren prebentziorako(83).Orain dela gutxi Cochranek berrikuspen batean uraren fluorazioa (naturala edo artifiziala) txantxarraren prebentzio neurri bezala aztertu zuen. Autoreek ondorioztatu zutenez, erabilitako datuak 1975.urtea baino lehen egindako ikerlan batekoak dira eta ikerlan honek uraren fluorazioa prebentzio neurri eraginkorra dela erakusten digu, behin-behineko hortzerian zein behin-betikoan (83).

Hortz txantxarraren prebentziorako dagoen modu eraginkorrera hortz orea erabiliz fluorra aplikatzea da. Hau klinikoki etekin altuko eta gizartean ondo onartutako prebentzio neurria da (81). Cochraneen ausazko berrikuspen batek fluordun hortz orea txantxarren aurka oso eraginkorak zela ondorioztatu zuen. Ondorio hau 50 urte baino gehiagoko ikerketa lanek bultzatzen dute (lancet biblio). Eskuilatzearen eraginkortasuna, bere bakartasunean ezin da modu eraginkor bezala aztertu; izan ere, ikerketa askok fluordun hortz oreak erabiltzen dituzte eta modu honetan eskuilatzearen eraginkortasuna ezkutatuta geratzen da (81).

Beste Cochrane berrikuspen batean profesionalek administratzeten dituzten gel fluoratuak aztertu ziren. Adituek ondorioztatu zutenez gelak txantxarraren inhibizioan parte hartzen du(97). Hala ere, gelek behin-behineko hortzetan duten eraginari, gelen albo ondorioei eta tratamendu honen onargarritasunari buruzko informazio gutxi dago(82).2015.urtean ikertzai-le berdinek, Marinho et al haur eta nerabeetan txantxarra saihesteko gelen jarduera aztertu zuten. Azterzaileek lehenago egindako lanei esker ondorioztatu dute fluor gelak behin betiko hortzerian txantxarrak inhibitzeko daukan eragina kalitate moderatukoa dela (82).

Berniz eran fluorra aplikatzea berrikuspeneko objektua izan da, izan ere etorkizunera begira emaitza onak izan ditu. Berrikuspena egin dutenek, garrantzia handiko efektua aurkitu dute txantxarraren inhibizioan, bai behin-behineko hortzerian eta baita behin betiko hortzerian ere (98).

### **2.3.7.2 Clorhexidina**

Clorhexidina ahoan bakterioak hiltzeko erabiltzen den tratamendu antiseptiko kimikoa da. Modu seguruan erabiltzeko forma desberdinak daude: gela, espraiia, murtxikatzeko goma,

hortz-orea eta aho irakuzia. Aukera bezala, profesionalek berniz eran ere erabiltzen dute hortzaren azaleran aplikatuz (99).

Clorhexidinaren eraginkortasuna ere berrikuspen sistematiko batean aztertu eta baloratu da, gazte eta nerabeen txantxarraren prebentzioan duen eraginkortasuna hain zuzen ere. Ikertzaileek clorhexidina eta plazeboa, eta clorhexidina eta ezer ez konparatu zitzuten txantxarraren prebentzioa aztertzeko, baina ez zen nabaritasun esangarririk atera berniz eta gelen inguruau, hauek placeboarekin edota ezer ezekin konparatu zirenean. Hauetako ez zuten prebentzioa hobetzen eta ez zen mutans esteptokoko mailan gutxitzerik ikusi. Autoreek ez zuten aurkitu beste entsegurik clorhexidinadun produktuak (aerosolak, hertz-oreak, murtxikatzeko gomak edo aho irakuziak) beste produktuekin alderatzen zuenik. Hauen ondorio nagusia zera izan zen, kalitate altuko ikerketa lanen behar handia dagoela, batez ere clorhexidina duten beste produktu batzuen eragina eta clorhexidinak, berak, duen eragina behin-behineko eta behin betiko hortzerian aztertzen dituena (99).

### 2.3.7.3 Xilitola

Xilitola azukrezko alkohol bat da eta honen ezaugarri nagusia mutans esteptokoko kopurua gutxitzea da (lertzuan zein listuan) (100).

Gurasoetatik haurretara bakterio kariogenikoen transmisioa saihesteko, eta haurretan txantxarra saihesteko, xilitola darabilten estrategia berriak sustatzen ari dira (28). Xilitolaren prebentzio efektuari buruz duela gutxi egindako berrikuspen sistematiko batean zera adierazi da: azukrearen ordez xilitola erabiltzea neurri prebentibo egokia eta eraginkorra izan daitekeela, baina ez prebentzio neurri bakar bezala (100).

### 2.3.7.4 Hobi Eta Ildoen Zigailtzaleak

Hobi eta ildoen, hau da, herste aldearen zigailtzea, txantxarra ekiditeko neurri bezala, 1960.hamarkadan jarri zen martxan. Zigailtzaleak Cochrane berrikuspen baten gaia ere izan diren. Berrikuspena egin dutenek, haginen herste aldeko txantxarra saihesteko era bezala erretxinazko zigailtzaleak herste aldean jartzea gomendatzen dute. Baino beti zenbatetsi beharko da gizabanako bakoitzaren arrisku indibiduala eta aurkitzen den poblazioa (101).

## **2. SARRERA**

---

### **2.3.7.5 D Bitaminadun Gehigarriak**

Berriki argitaratutako berrikuspen eta meta-analisiiek txantxarraren prebentzioa, UVBren esposizioa eta D bitamina gehigarrien eragina nabarmendu dute (312,220). Kontrolatutako entsegu klinikoen meta-analisiak, bizitza hasieran D bitamina osagarria hartzeak, txantxarraren arriskua %47 eta %54a jaistearekin lotuta dagoela proposatu du (220). Entseguek D bitamina osagarri bezala ematearen prebentziozko eragina benetakoa zela frogatu zuten (220). Beste ikerketa batek D bitamina serikoaren kontzentrazio baxueak txantxarrarekin eta esmateraren hipomineralizazio arriskuarekin erlazionatu du. Aldi berean, D bitaminaren maila edo kontzentrazio handiagoak aho osasunaren hobekuntza dakartela esan daiteke (102).

### **2.3.7.6 Azukreen Gutxipena**

Txantxarra bizitza osoan zehar arrisku faktore dietetiko baten aurreko esposizio baten ondorioa da, azukre libreen esposizioaren ondorioa hain zuen ere. MOE-k haurtzaroan arrisku faktore horiek gutxitzeak helduarorako onuragarria dela dio. Horregatik azukre libreen ingesta gutxitzea gomendatzen du, horrela bizi osoan zehar, hortz-txantxarra sortzeko arriskua gutxituko du. (63).

MOEk gomendatzen du azukre libreen ingesta hartzen dugun energia osotik gutxienez %5-a gutxitzea (63). Ideia hau azterketa berri batzuek ere bultzatzen dute (103,104). Analisi hauek hortz-txantxarrak osasun orokorrean produzitzen dituen efektu negatibo eta metagarriak haurtzarotik adin heldura arte oinarritzen dira (15).

## **2.4 Asma**

### **2.4.1 Definizioa**

Asmarentzako Ekimen Globalak (GINA), Asma gaitz heterogéneo bezela definitzen du, zein orokorrean arnasbideen imflamazio kroniko gisa azaltzen da. Kasu hauetan, pazienteek larritasun maila ezberdinako zailtasunak dituzte arnasa botatzeko fluxuari dagokionez. Gainera, beste sintoma batzuk ere izan ditzakete, esaterako, txistu-hotsa, arnasestua, bular opresioa

edota eztula. Paziente guztietaン sintoma hauek ez dira era berean ematen, iraupen eta larritasun ezberdinak izan ditzazke (105).

Esan bezala, asma arnasbideen inflamazio kronikoa litzateke. Egia da bederen, definizio honek hainbat limitazio dakartzala haur txikienak asmadunak diren edo ez zehazterakoan. Izan ere, adin txikikoumeek maiz izaten dituzte eztula, arnas-estua eta txistu-hotsa, baina, horrek ez du esan nahi, izan dezaketen gaitz bakarra asma denik. Are gehiago, ezinezko da zehaztea asmadunak diren ala ez helduagoak izan arte. . Asma eragiten duten sintomek ez dute ezberdintasunik pazientearen adina edozein izanda ere, dena den, badira haurren eta helduen kasuak nolabait aldera ditzaketen seinaleak. Desberdinatsuna bularreko haurrarengan eta eskolaurrekoan nabarmenagoak dira eta diagnostikoari eragiten diete, larritasunaren balioespenari, kontrol-graduari, bilakaerari eta tratamenduari. Beraz, eskolaurre garaian dauden umeak asmadunak direla esateko orduan, Pediatren Nazioarteko Kontseiluak emandako ondorenko baieztapena bete beharko lukete: “txistu-hots errepikari edo iraunkorra pairatuz gero, baina horren sarri azaltzen ez diren bestelako gaixotasunak alde batera utzi diren kasuetan, asma izateko probabilitatea areagoa izango da” (106).

Asma sindrome modura ikusita, argi dago beste zeinu kliniko batzuen fenotipo berberak dituela, baina seguraski hauekiko etiologia ezberdinekin. Ondorioz, ezin dakio asmari definizio zehatzik ezarri. Maiz erabiltzen diren definizioek gaitzaren bereizgarri klinikoak eta fisiopatologiak deskribatzeko balio dute. Dena den, ikuspuntua aldatuta eta pragmatikoki begiratuta, arnas traktua modu kronikoan Hanturatuta izatea litzateke asmaren patogenia zehazten duena, beti ere, inflamazioa sortuko luketen zenbait faktore (eragile genetikoen eraginpean egon litezkeenak) eta zelulen lanaren ondorioa izan beharko luke. Egoera honetan, gorputzak bronkioen hipererantzun bat sortuko du eta aire-biak buxatuko ditu. Sintoma hauei aurka egiteko medikazioa erabili beharko da edota bere kabuz desagertu arte itxaron (107).

Asmaren adierazgarri klinikoa oso aldakorra den arren, hanturaren presentzia gaitzaren ezaugarri orokortzat hartzen da; nahiz eta sintomak iraunkorrik ez izan arren, arnasbide guztian zehar adierazten da, baita sudur mukosan ere. Hala ere, hantura larriagoa paraitzeak ez du esan nahi asmaren larritasun maila handiagoa denik (107).

## **2. SARRERA**

---

### **2.4.2 Prebalentzia**

Azken ikerketen arabera, mundo mailan 300 milioi persona dira asma gaixotasuna pairatzen dutenak Horrenbesteko kopuru hau egungo osasun sistemek bere gain hartu ezin duten zama bilakatu da. Gizarte mailan ere, izugarrizko galerak eragiten ditu, lan-produktibitatearen jaitsiera izugarria suposatzen baitu, eta are nabarigarriagoa da Asmadunak haurrak direnean, familiak eurak zaintzeko egin behar duten esfortzua kontuan hartuta. Aste bakoitzean eritasun honek eragiten dituen zuzeneko eta zeharkako gastuak oso altuak dira. Esaterako, Estatu Batuetan 1997an bildutako datuek, 5,1 bilioi dolarretan kokatu zituzten asmaren ondorio ziren zuzeneko gastuak. Zeharkakoak, aldiz, 673 milioikoak ziren, bai gurasoen lanegunen galeragatik eta baita haurrak eskolara joan ezin Izanagatik eratorriak .Guztizko gastuaren %80a, neurrizkoa baina larritasun maila handiko pazienteek eragin zuten (herritarren %20a baino ez). Pentsa daiteke diru kopuru hori asmari aurre egiteko lehen neurriak hartzeko tratamenduek sortu zutela; baina pazienteak larrialdi sailetara jo izanaren eta asmadun gaixoen ospitalizazioaren gastuak izan ziren osoaren %56aren zergatiak. Aipatutako bi kasuetan sortu ziren gastuak are altuagoak ziren ( %74a) zero eta lau urte arteko Umeei dagokionez (108).

Mundu mailan asmak duen nagusitasunaren inguruko datuak argitaratu zituzten Global Burden of Asthma Report-en. Hauek aztertuz gero, ikusi daiteke Brasil, Guinea eta Kuba direla gaixo gehiago dituzten herrialdeak; eta Alemania delarik atzetik doakien herrialdea. Bestalde, asmadun gutxien dituztenak, Nepal, Albania eta Txina dira. Espainia erdibideko postu batean Aurkitzen da, herritarren %5,3-a baino ez baita asmaduna.(1).

ISAAC-en arabera, Espainiako haurren %10ak du asma eta nazio mailan, kostaldeko herrietan kasuak gehiago dira. Datu hauek Europar Batasuneko beste leku batzuetako batez bestekoaren antzekoak dira. (109,110).

Arnasaren Osasunaren inguruan Europa mailan egindako ikerketek argitu zuenez, Albaceteko herritarren %4,7ak du asma, Bartzelonako %1,1ak, Galdakaoko %1ak, Huelvako %1,7ak eta Oviedoko %11k. (111,112) . Bestalde, Osakidetzak egindako ikerketaren arabera, Euskal Herriko pertsona helduen %5-a eta gutxi gorabehera haurren %10a dira asmadunak. (112,113).

### 2.4.3 Arrisku-Faktoreak Eta Faktore Eragileak

Asmaren oinarrizko zergatiak ez daude guztiz argi. Dena den, esan liteke, Arrisku-faktore nagusia faktore biren konbinazioz ematen dela; alde batetik, genetikoki asma izateko pertsona batek daukan probabilitatea eta, aldi berean, arnasbideen narritadura edo alergia eragin diezaioketen ingurumeneko sustantzien eta arnastu daitezkeen partikulen aurre egotea (114).

Beti ere, ez dira nahastu behar asma eragingo duten arrisku-faktoreak eta sintomen faktore eragileak. Asma gaixotasun gisa garatzeko arrisku-faktoreak zuzenean lotu behar dira Gaitzaren agerpenarekin. Asmaren sintomen faktore eragileak, aldiz, jadanik asma duten pazienteak zenbait faktoreren eraginpean jartzea da, eta egoera horrek gaixotasuna bera larriagotzea. Sintomak eragiten dituzten faktoreen garrantzia horiek ekiditeko hartzen diren neurriean dago, nahitaezkoak bait dira gaixotasunaren tratamenduarentzako. Sarrien agertzen diren faktoreak: ingurumen-faktore atmosferikoak, etxe barruak eta agente infekziosoak, lan inguruko faktoreak, sistemikoak, medikamentuak, elikagaiak eta bestelakoak (107).

Bitxia badirudi ere, asmaren sintomen eragile argiak diren ingurumen-faktore batzuk, haurtzaroan euren eraginpean egonez gero, gaitzaren garapenaren aurkako babesle bezala ere jokatu baitezakete. Faktore genetikoek beren aldetik, hiru funtzio bete ditzakete: asma garatzen lagundu, beste arrisku-faktore batzuen aurkako norberaren erantzun maila aldatu edo, beste faktore eragile batzuengan eragina izan.(107).

Ostalariarekin zerikusia duten arrisku-faktore asko jaiotza ingurukoak dira. Ingurumeneko faktoreak, aldiz, oso aldakorrak dira eta pazienteari era anitzetanero so diezaiokete, duen adina duela (107,115).

- **Ostalariaren faktoreak:** atopia, menarkia goiztiarra, obesitatea, bronkioen hipererantzuna, errinitisa, D bitamina maila baxuak, errinosinusitis kronikoa...
- **Jaiotza inguruko faktoreak:** jaiotza goiztiarrak, Jaioaurreko ikterizia edoskitzaroa, zesarea, haurdunaldian erretzea.

## 2. SARRERA

---

- **Ingurumeneko faktoreak:** aireko alergenoak, lan inguruko alergenoak, arnasbideeta-ko infekzioak, tabakismoa eta haurrek asma izateko arriskua areagotu dezaketen beste-lako faktoreak (107,115).

### 2.4.4 Haurren Asmaren Sailkapena

Pertsona helduen asma kasuetarako egin ohi diren sailkapenak haurrei, batez ere txikienei, aplikatzea ez da erraza izaten. Umeetan asma kasuak oinarriz ez dira iraunkorak, noizbehinka krisi larriak bai, baina larriagotzeko sintoma gutxirekin (107).

Nahiz eta ume txikietan birika-funtzioa egitea ez den posible, haur-asmaren larritasuna, sintomatologiaren arabera sailkatzen da. Haurrengan bi patroi nagusi definitzen dira: asma episodikoa eta asma iraunkorra. Asma episodikoa noizbehinkako edo ohikoa izan daiteke, aurkezten duen krisietako kopuruaren mendean egonez. Asma prozesu akututzat hartu ezin denean iraunkorra dela diogu, gutxienez moderatua edo larria izanik (107). Haurren asma oso gaixotasun aldagarria dadenboran, baita urtean zehar ere eta horrek bere sailkapena zaitzen du. Ume txiki gehiengoek asma infekzio biraletan zehar izaten dute soilik eta, beraz, asma moderatu edo larri izan dezakete neguan zehar eta udaberrian eta udan aldiz sintomari gabe egotea. Polenari alergikoak diren umeak, asma udaberrian dute soilik (hau klima kontinen-tala dagoen eskualdeetan maiztasun gehiagorekin gertatzen da). Asma zuzenki tipifikatzeko, larritasunaz gain, pazientearen faktore eta horiekiko egin den kontrola zehaztea da (107).

Pazientea inolako tratamendurik hartu gabe dagoenean egiten da gaixotasunaren sailka-pena. Izan ere, asma kontrolatu ostean eta haurra sintomari gabe egoteko beharrezko medi-kazioa eman zaionean, ikusiko da bere kasuaren larritasun maila, sintomek bere kabuz era-kutsiko zutena baino era zehatzago batean(107).

### 2.4.5 Diagnosia

Asmaren maneiurako gida espainiarren (GEMA) rarabera, txistu-hotza (guztien berezkoe-na), arnasa hartzeko zaitasuna (disnea), eztula edota bular-opresio dira asma kasu baten au-rean egon gaitezkeen zeinu klinikoak edo argi ikusten ditugun zeinuak. Hauek egon arren, ez

dira asmaren sintoma eta zeinu nahasizko seinaleak (116) Horregatik, proba objektibo diagnostikoren bat lantza ezinbestekoa da. Normalean, arnasketa aztertzeko proba funtzionalak izaten dira. Helduarengan birika-funtzio proba bat egingo da (ahal izanez gero espirometria), arnas fluxuen oztopatze aldagarría era objektiboan frogatzen duelako. Umeez hitz egiten du gunean, bai asma moderatu edo larrieta, probak ezberdinak egin beharko dira, euren arnasketa funtziek balio eskasagoa dutelako. Zehazki esanda, kasurik latzenetan ere, lehenengo segundoan arnasketa bolumena baxuagoa izango da haur batean, erreferentziarako balioei dagokienez behintzat (117,118). Egia da diagnostikatzen laguntzen duela, baina bere normaltasunak ez du gaixotasunetik kanpo uzten (119).

Pazienteari auskultazioa egitean txistu-hotsa izatea da pazientea fisikoki esploratzean senalerik bereizgarriena. Dena den, batzuetan, errinoskopía batek sudurra buxatura duela, dermatitis edo ekzema zeinurik dagoela edo antzerako sintomak ere kontuan hartu litezke. Hori bai, jakitun egon behar da, ohiko esplorazio fisikoak ez duela asmaren diagnosia alde batera utziko. (119).

Aurrez esandakoan oinarrituz, haur batek asma duenaren diagnosia zehaztea oso zaila da bere bizitzako lehen urteetan. Hori dela eta, hainbat estudio eta gida txistu-hotsetan (wheezing) oinarritzen dira asmaren erakusle nagusi bezala. Izan ere, noizbehinka, hitz hori bera erabili izan da asmaren ordez, gaixotasunak zehazki diagnostikatzeko duen zaitasuna dela medio, batez ere, eta aipatu bezala, biriken funtziaren proba egin ezin ahal bad (120).

Haurren asmaren lehen fenotipoak Tucsonen estudioan deskribatu ziren (121). Harrezkero hainbat lanetan garatu dira haurren asmaren fenotipoak. Helburua beti ere bera izan da, fenotipoei esker, haurtzaroan nozitu ahal izatea etorkizunean gaixotasuna pairatuko den ala ez. Aldi berean, esan beharra dago, horietako gutxi balioztatu dituztela eta asmaren fenotipoek ez dutela gaitzaren pronostikoa hobetzen lagundi. Landu dira, aldiz, asma motak bereizteko modu ezberdinak eta, pazienteei eman beharreko tratamenduak sailkatu dituzte onera egitea espero den mailaren arabera. Etorkizunari begira gerta litekeena iragartzeko metodook, garapen arrisku handiak, sentsibilitate eta espezifikotasun mailarik ez dute eta, gainera, gehienak onetsi gabe daude. (6).

## **2. SARRERA**

---

### **2.4.6 Tratamendua**

#### **2.4.6.1 Helburuak**

Asmaren tratamenduaren epe luzerako helburuak sintomen eta arriskuaren murriztapenaren kontrola dira. Helburua, gaixoaren karga eta larriagotzeak jasateko arriskua murriztea da. Baita arnas bideak hondatzea eta medikazioaren zeharkako efektuak saihestea. Aldi berean, pazienteak berak asmarekiko eta ematen zaion tratamenduarekiko dituen berezko helburuak identifikatu behar dira (105).

Helburuok lortu ahal izateko, estrategia orokor bat jarraitu beharko da, baina paziente bakoitzari berea ezarrita. Norbere medikazioarekin, kopuru eta dosi zehatzekin, eta ondoen datorzkion ikuskapenak egingo zaizkio eta asmari aurka egiteko beharrezkoa erakutsiko zaio eta baita ingurumenari nola aurre egin behar dion ere.(122).

Tratamendu farmakologikoa behar bezala zehaztu beharko da. Horretarako, pazienteari ondoen doazkion aukera terapeutikoak eman, seguritatea kontrolatu, eskura dituen aukera guztien berri ematea ezinbestekoa da. Era berean, berekiko kontrolean egindakoaren aurrean duen gogobetetze maila ere jakitea komenigarria da. Noski, nahitaezkoa da aldizka gaixoaren aurrerapenak ikusteko kontrolak egitea, horrela ikusiko baita ezarritako helburuak lortu diren edo ez(107,123).

#### **2.4.6.2 Inhalazio Sistemak**

Inhalazio bidez hartzen diren medikamenduak dira asmari aurka egiteko egokienak, birikan zuzenean eragiten baitute eta arnasbideetara kopuru handiagoan heltzen direlako. Gainera, erantzun azkarragoa dute eta bigarren mailako ondorio sistemikoak oso eskasak eta ezereza dira. Aerosolak erreferentzia-sistema dira, inhalazio teknika onarekin,

Horren ondorioz, inhalazio sistemak erabili beharko dira. Sistema horietatik onena izango da, bost mikratik beherako partikulen kontzentrazio handiena lortzen duena eta, aldi berean, lau mikratik gorako partikulen ehuneko gutxiago lortzen dituena (ahalik eta dispersio txikienean). Horrela, arnasbide distalen gordailua areagotu egingo da eta, arnasbide altuen gordailua, aldiz, gutxitu (123).

Gaur egun, asmaren terapia inhalazio giltzarria diren lau inhalatzaire desberdinek osatzan dute (8):

- Neurtutako dosi inhalagailu konbentzionala (MDI)
- Banatzaile ganbera MDI-a
- Hauts lehorreko inhalagailuak (DPI)
- Nebulizagailuak

Inhalagailuak erabiltzeko baldintza garrantzitsuenetako bat, pazientea bere erabileraen trebatua izan behar duela da. Sistemak eskuaren mugimendu eta inspirazioaren koordinazioa eskatzen du. Beti ere, inspirazioa hau, 7 eta 8 urte dituzten umeek duten eduki inspirazioa baino handiagoa izan behar du (124,125). Horretarako, zein erabili beharko duen aukeratu ostean, eta pazientearen gustuak kontuan izanda, bere ezaugarriak azaldu behar zaizkio, erabilera egokia zehazten zaiolarik. Aldi berean, berari ere bertan erabiltzeko eskatu behar zaio (probak egiteko gailu huts bat erabiliz) eta egin ditzakeen akatsak zuzendu benetakoa bere eskuetan utzi aurretik. Gainera, oso gomendagarria da gaixoari eskema bat ematea, gailuaren erabilera pausuz pausu erakusten duena. Azkenik, inhalazio teknikak gerora egingo dituen bisitaldi guztietan birpasatu eta konprobatu beharko dira. (123,126).

### **Neurtutako Dosi Inhalagailu Konbentzionala (MDI)**

Modu honek duen zaitasunik handiena inhalazio teknika behar bezala menperatu behar izatea da. Pazienteak argi izan behar du bere erabilera. Izan ere, aerosola zabaltzea (barruan daraman medikazioa askatzeko), eta arnasa hartzea aldi berean egin behar dira. Arnasa hartzen hasitako momentuak eta arnasketa erritmoak (geldiro egin behar da hautsa biriketara iristeko), eragin handia izango dute hartutako dosiaren efektuan. Haurrak izaten dira sarri pausu hauek ondo ematen ez dituztenak. Hori dela eta, sarritan azalduko den heziketa arduratsua egingo da, eta horrez gain, preskintorean aldetik ere zainketa egongo da (107,126,127)

## **2. SARRERA**

---

### **MDI + Banatzaile-Ganbera**

Alde handiz medikazioa emateko modurik onena inhalazio-ganbera da. Banatzaile-ganberek abantaila anitz dute, ala nola, koordinazio arazoak ekiditen ditu, bronkio-zuhaitzera iristen den farmako kopurua eta banaketa hobetzen du eta horrela orofaringean partikula gordailua txikiagotzen da, eztula eta aho-kandidiasia gutxitzen eta ondorioz, efektu sistemikoen arriskua (128,129).

### **Hauts Lehorreko Inhalagailuak (DPI)**

Hauts lehorreko inhalagailuek, bere aldetik, erabilera errazagoa dute. Norbere arnasaren bidez helduko da hautsa biriketara. Hori bai, biriketako gordailuaren edukiera bi faktorek zehaztuko dute: arnasan hartzen den aire kopuruak (30l/min baino altuagoa izan behar da) eta gailuaren erresistentzia mailaren araberakoa da. Horregatik argitu behar zaio pazienteari, arnasa indar handiz hartu beharko duela. (126,127).

Hautsa duten gailuek, faringe eta ahoko gordailu handiak izatea baldintzatzen dute eta, biriketako gordailua arnasaren fluxuei birikek dioten erresistentzia mailaren araberakoa izango da. Arnasa arin eta sakon hatzen ez bada, aho eta faringeko gordailuak nabarmen handituko dira, bigarren mailako ondorioak areagotuz. Hori da teknika horren garrantzitsua izatearen arrazoia. Izan ere, behar bezala erabiltzen ez bada, biriketan gordeko dena ezereza izango da eta bertara heldu behar zuen hautsa faringean eta aho-mukosan banatuko da (130).

### **Nebulizagailuak**

Nebulizagailuak ez dira ohiko mantentze tratamenduak egiteko aukeratu litezkeenak, oso egoera berezietai baino ez lirateke erabili behar (131). Batez ere, haur txikienei ematen zaizkie, hartzeko ez baita koordinazio lanik egin behar. Izan ere, ez da behar arnasketaren borondatezko kontrola, baizik eta haurrak bere erritmora arnasten du. (124)

#### **2.4.6.3 Farmako Eta Medikamentuen Sailkapena**

Asma kontrolatzeko farmakoak, bi modutan sailkatzen dira: kontrol edo mantenu-farmakoak eta lasaigarri-farmakoak, ereskate izenez ezagutzen dena (105).

## Kontrol Edo Mantenu-Medikamentuak

Kontrol edo mantenu-medikamentuak egunero epe luzean hartu behar diren produktuak dira. Hauen barruan ditugu: glukokortikoide inhalatuak (GCI) edo sistemikoak, leukotrieno har-tzaile antagonistak (ARLT), eragin-luzeko b<sub>2</sub>-adrenergiko agonistak (LABA), tiotropio eta anti-IgE (omalizumab) antigorputz monoklonalak. Eraginkortasun txikiagatik, kromonak eta askatze atzeratuko teofilina gaur egun ez dira erabiltzen. (107)

Inhalatutako kortikoesteroideak (ICS) (MDI edo DPI): beklometasona, budesonida, ziz-lesonida, flutikasona propionatoa, flutikasona furoatoa, momentasona eta triamzinolona.

Aipatutakoak, asma iraunkorretan antiinflamatorio eraginkorrenak dira. ICS-ak asmaren sintomak arintzen dituzte, birika-funtzioa handituz eta bizi-kalitatea hobetuz. Gainera asma-rekin erlazionatutako larriagotze, ospitalizazio edo heriotz-arriskua gutxitzen dute. ICS-ak ahalmen eta bioerabilgarritasunean desberdintzen dira. Bere efektu onuragarri gehienak dosi baxuekin ikusten dira.

ICS-a erabiltzen duten gaixo gehienek ez dute zeharkako efekturik pairatzen. Bigarren mailako efektuak ahofaringeko kandidiaia eta disfonia dira. Ala ere, zeharkako efektu lokak hauek MDI-ekin aeroganbera bat erabiltzerakoan eta inhalatu ostean urarekin ahoa garbitzean murrizten dira. Dosi altuek aldiz, zeharkako efektu sistemikoak pairatzeko arriskua areagotzen dute (132).

Kortikoesteroide sistemikoak (pilula, esekidura edo muskulabarneko injekzioak edo zain barneko injekzioa: predisona, prednisolona, metilprednisolona eta hidrokortisona.

Larriagotze akutu larrieta, hasierako faseetan oso garrantzitsua da tratamendu laburra egitea (helduetan normalean 5-7 egun). Efektu nagusiak 4-6 ordu ondoren ikusten dira. Pa-zientea berriz gaixotu ez dadin, kortikosteroideak ahoz hartza gomendatzen, farmakoa administratzeko bide hau muskulubarneko injekzioak edo zain barneko injekzioa bezain era-ginkorra dela ikusi da. Tratamendua bi aste baino gehiagotan zehar emango bada, dosiaren murriztapen graduala egon behar da.

Erabilera laburrak aukarko efektu batzuk izan ditzake, adibidez, hipergluzemia, bigarren mailako digestio-efektuak eta gogo-aldarte aldaketak.

## **2. SARRERA**

---

Luzatutako erabilaldiak aldiz mugatua daude, izan ere aurkako efektu sistemiko garantzitsuen arrisku handia dago. Adibidez, katarata, glaucoma, osteoporosia edo inhibizio suprarrenalala. Pazientearen osteoporosi arriskua ebaluatu behar da eta honen tratamendu egokia ezarri (132).

ICS eta ekitzaldi luzeko  $\beta$ 2 bronkodilatatzale agonisten konbinazioa (ICS/LABA) (MDI o DPI). adibidez, beklometasona/ formoterol, budesonida/ formoterol, fluticasona/vilanterol furoatoa, fluticasona/ formoterol propionatoa, fluticasona/salmeterol propionatoa eta mometasona/formoterola.

ICS bitarteko dosiak monoterapian asmaren kontrol ona ez duenean lortzen, ICSiari LABA gehitzean, sintomak eta biriki-funtzioa hobetu eta larriagotze kopurua modu azkar batean murrizen duela ikusi da. Bi tratamendu-jarraibide daude: SABA medikazio sintomatikoa duen ICS/LABA mantenu-medikazioa eta Mantenu eta erreskate tratamendurako formoterolarekin konbinatutako beklometasona edo budesonida dosi baxuak. LABA-ren osagai bat takikardia-rekin, zefalearekin edo muskuluetako arranparekin erlazionaturik dago. Gaur egungo gomedioen arabera, LABA eta ICS konbinazioan erabiltzen direnean seguruak dira asma tratatzeko. Asmaren tratamenduan, ICS-gabeko LABA erabilerak aurkako ondorio arrisku handiago batekin erlazionatzen da.(132)

Leukotrieno modifikatzailea (pilulak), adibidez, montelukast, pranlukast, zafirlukast eta zileuton.

Asmako bide inflamatorio baten gainean jokatzen dute. Umeegan erabiltzen da berezi ki, tratamendu-kontrol aukera bezala. Monoterapian erabilita: dosi baxuetan ICS baino era ginkortasun gutxiago; ICS-ai gehituz gero, ICS/LABA baino eraginkortasun gutxiago dute. Zeharkako efektu gutxi ditu, zileuton eta zafirlukast izan ezik, funtzió hepatikoko probak igotzen baituzte (132).

Ekitzaldi luzeko antikolinergikoak (tiotropio)

Nahiz eta ICS ± LABA erabili, larriagotze-aurrekariak dituzten 12 urte baino zaharragoak diren pazienteetan, laino finetako aerosolaren (Respimat) bitartez 4 edo 5. pausoan gehitu dezkaegun medikumendua da (132).

Anti-Ig E (omilizumab)

4. pausoko tratamendurekin (ICS-a LABA dosi altua) kontrolatu ez diren asma-alergiko iraunkorra dituzten pazienteentzako aukera gehigarria da. Injekzio-lekuko erreakzioak ohi-koak dira, baina garrantzi gutxikoak. Anafilaxia arraroa da (132).

### **Medikamentu Sintomatologikoak Edo Erreskatekoak**

Arintze-medikamenduak eskarira erabiltzen dira bronkokonstriktzioa modu azkar batean tratatzeko edo ekiditzeko. Adibide ditugu: inhalazioz akzio laburreko b2-adrenergikoak (SABA) eta inhalazio bidezko antikolinergikoak (ipratropio bromuroa).(107)

Akzio laburreko B2 bronko-zabaltzaile agonistak (SABA) MDI, DPI eta gutxitan, injektatze eta lainoztapen soluzioa, adibidez salbutamola eta terbutalina.

Arnastutako SABAk, asma sintomen arintze azkarrarerako, bronko- estugunetarako, larrriagotze akutuetarako eta kirolak eragindako bronko-estugunen aurretratamendurako lehen aukerako tratamenduak dira.

SABAk soilik eskarira erabili behar dira, beharrezko dosia eta maiztasun minimoan.

Sarritan SABAren hasierako efektuen artean takikardia eta dardara nabarmentzen dira, nahiz eta efektu hauek jasangarriak izan. Gehiegizko erabilera edo erantzun ez egokiak as-maren kontrol ez egokia egin dela erakusten du (132).

Akzio laburreko antikolinergikoak ( MDI edo DPI) adibidez, ipratropio bromuroa eta oxitropio bromuroa

Erabilera aldi luzean: Ipratropio medikamentu sintomatikoak SABAk baino eraginkortasun baxuagoko botikak dira.

Asma akutuan erabilera puntuala: Arnastutako Ipratropioari SABA gehitzen bazaio ospitalizazio arriskua murrizten da.

Bigarren mailako efektuen artean aho lehortasuna edo zapore mingotsa ditugu (132).

#### **2.4.7 Prebentzia**

Osasun publikoari dagokionean, Munduko Osasun Erakundeak (MOE) asmari ikaragarrizko garrantzia emanten dio. Izatez, MOEk, gaixotasunari aurka egiteko nazioarteko koordinazioan

## **2. SARRERA**

---

parte hartzen du. Bere estrategia, herrialde desberdinan asmak eragin ditzakeen desagaitasun eta heriotz-goiztiarra murriztean datza.

MOE-ren programaren helburua gaixotasunaren larritasuna, determinatzileen azterketa eta eboluzioaren jarraipenean datza, herrialde txiroenetan arreta berezia jarriz, bestalde, herritarrei asmaren tratamenduko medikazioak helaraztea eta sendagilearengana joatea errezago izatea bermatu nahi du. OME-k prebentzio primarioan garrantzia azpimarratzen du herritarrek arrisku faktoreetatik urrun mantentzeko. Aipatutako faktore esanguratsuenak tabakoaren kea, harutzaroan pariatutako arnasbideetako infekzioak edota airearen kutsadura (bai toki itxieta-koak, kalekoa, etxekoa edota lantokikoa e.a) dira (114).

### **2.5 Asmaren Eta Hortzetako Txantxarraren Arisko Erlazioa**

Hortzetako txantxarrarentzako arrisku-faktoretzat jo izan dira asma eta denbora luzez asmaren aukako medikazioa erabiltzea, baina gaur egun arte argitaratutako azterlanek ez dute emaitza erabakigarriek eman (133,134).

Hainbat teoria aurkeztu izan dira asma duten haurren artean txantxarra izateko arriskua zergatik handitzen den azaltzeko: ebidentzia epidemiologikoa, zeinaren bidez asmak txantxar-esperientzia handiagoa edo txikiagoa duen; bakterio kariogenikoentzat hartzigarriak diren karbohidratoak egotea asma duten pazienteek epe luzean inhalatzen duten medikamentuan; aldaketa immunologikoak eta patologikoak asma duten pertsonen listuan; aldaketa fisiologikoak listuaren kantitatean eta osaeran asmaren aukako medikamentuak erabiltzeagatik edo kronikoki ahotik arnasteagatik; edari azukredun gehiago kontsumitzea ahoko lehortasuna arintzeko edo ahoko zapore txarra desagerrazteko; txantxarra izateko arriskua handitzea D bitamina-ren faltagatik; eta hortzetako ehunetan egiturazko asaldura gehiago izatea, hala nola ename-laren hipoplasiaz (7,18,102,135-137) .

Lotura horren oinarri diren mekanismoak ez dira oraindik ondo ulertzen, eta ikertu egin behar dira (18) .Zenbait egilek faktore anitzeko etiologia proposatzen dute (133).

### 2.5.1 Asmaren Aurkako Medikazioa Eta Hortexetako Txantxarra

Kontuan hartu behar da asma duten haurren organismoa ez dagoela gaixotasunaren eraginen mende soilik, hura tratatzeko behar diren medikamentuen mende ere badagoelako(10).

Asma duten paziente askok horrelako medikamentuak inhalatzen dituzte, batzuetan baita egunean lau aldiz ere, eta denbora luzez gainera (9) Biologiaren ikuspegitik, zentzuzkoa da pentsatzea korrelazioa egon daitekeela asmaren aurkako medikamentuen eta ahoko asalduren artean, medikamentu horietako gehienak inhalatu egiten direlako, eta ezin delako saihestu botika horrek ahoko ehunak ukitzea (10)

Inhalatutako terapia erabiltzen da normalean arnasbideak buxatzea dakarten arnas gaixotasunak tratatzeko, hala nola asma eta biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa tratatzeko (BGBK) (7).

Ahozko terapiarekin alderatuta, inhalatutako farmakoen dosi oso txikia behar da gaixotasunaren kontrol optimoa lortzeko, baina farmakoaren proportzio handiagoa geratzen da aho-barrunbean eta orofaringean, eta horrek ahoko ehunen fisiologia arrunta eragotz dezake. Hauts lehorreko inhalagailu (DPI), langarreztzagailu eta neurtutako Dosi inhalagailu konbentzionala (MDI) (espaziatzaileekin) gehienek dosiaren % 10-30 soilik helarazten dute arnasbideetara, eta gainerako farmakoa orofaringean geratzen da (8) .


Gailu espaziatzaileek inhalatutako medikamentuak zuzenean arnasbidera eramatzen laguntzen dute, eta orofaringean geratzen den medikazio kantitatea murrizten, horrek hortexetako txantxarraren arriskua murrizten duelarik. Horregatik, zenbait egilek asma duten haurrak txantxarra izatetik babestuko dituen faktoretzat jotzen dute espaziagailua erabiltzea(138,139).

#### 2.5.1.1 Medikazioan Dauden Karbohidrato Hartzigarriak

Egile batzuek diotenez, medikamentuetan karbohidrato hartzigarriak daudelako dituzte txantxartasa altuagoak asma duten pertsonek (140-143). Gainera, haurrentzako medikamentu batzuei azukrea eransten zaienez, karbohidrato-iturri gehigarri bat dira paziente pediatrikoentzat (144). Gaur egun, konposizio-aren %30-70 azukrea duten medikamentuak agindu behar

## 2. SARRERA

---



**2.7 Irudia.** Inhalatutako farmakoen farmakozinetikaren irudia. Biriketara iristen den farmakoaren zatirik handiena sistemikoki xurgatzen da. Ahoan eta orofaringean geratu den farmakoa irentsi egiten da, eta ondoren hestean xurgatzen da, gero gibelean inaktibatu egiten delarik. Farmako bakoitzean, gibeletik lehen aldiz igarotzean metabolismoak inaktibatzen duen ehuneko jakin bat dago, eta, beraz, aldatu egiten da farmako horien bioerabilgarritasun sistemikoa (moldatuta: (8)).

izaten dituzte medikuek, ez baitute beste aukerarik, eta horrek txantxarra izateko arriskua areagotzen du pazientearengan(142).

Holbrokk et al. egileek, Islandian txantxarrak izandako hazkundearekin kezkatuta, elika-durari buruzko inuesta egin zieten hiriburuko (Reykjavik) 4 urteko 158 haurri, astean zen-bat azukre jaten zuten jakin ahal izateko. Azterlanak agerian utzi zuen azukrearen zati handi bat haurrentzako medikazio gisa hartzen zela, batez ere antibiotikoekin eta asmaren aukako medikamentuekin, horiek asko erabiltzen baitira Islandian. Medikamentu horiek hartu ohi zi-tuzten haurren artean, aldi baterako hortzeriako txantxarraren prebalentzia (caod) handiagoa zen (141) .Kennyk, Somayak eta beste egile batzuek adierazi zuten sortzetiko gaitzak edo gaixotasun kronikoak dituzten haurrek azukre-ekarpen gehigarria jasotzen dutela ahozko medikamentu likidoetatik. Azterlanean ikusi zutenez, azukrea duten ahozko medikamentu likidoak hartzeak txantxar-tasa areagotu dezake epe luzera (142). Reddyk et al. egileek lortutako emaitzak bat datozi Kenny, Somaya et al. egileek lortutakoekin, medikazioa jarabe moduan hartzen zuten haur asmadunen artean txantxarraren prebalentzia handiagoa zela ikusi baitzuten (143) .Maguireren eta beste egile batzuen azterlanak ere berretsi zuen asmaren aukako epe luzerako ahozko medikazio likidoan dagoen azukrearen eta txantxarraren hazkunde na-barmenaren arteko erlazioa. Egileek 94 haur aztertu zituzten, azukrea duen ahozko medikazio likidoz tratatzen diren gaixotasun kronikoak zituztenak, asma besteak beste. Egileek ikusi zu-ten epe luzez ahozko medikamentu likidoak hartzen zituzten haurrek askoz txantxar gehiago zutela aldi baterako hortzerian osasun oneko anaia-arrebek baino (140).

Asmaren aukako ahozko medikazio likidoan dauden karbohidrato hartzigarriez gainera, kontuan hartu behar dugu laktosa monohidratoa ere. Farmakoaren zaporea hobetzeko eta pa-zienteak medikamentua hobeki onartzeko erabiltzen den karbohidrato hartzigarri bat da (145) Farmako mikronizatuen sistema gehienak eszipiente inerte horrekin formulatuta daude, alfa laktosa monohidrato gardenarekin (146) .Laktosa monohidratoa txantxarra eragiteko gaitasun gutxien duen azukreetako bat bada ere, hortzetako txantxarraren arriskua areagotu dezake, eta arrisku hori areagotu egin daiteke azukre hartzigarrien presentzia listu-fluxua muriztearekin konbinatzen bada(147,148) .

Gaur egun, DPIetan gehien erabiltzen den eszipientea da laktosa, dosi bakoitzeko 12,5-25 mg-ko tartean. Beste azukre batzuk ere erabili izan dira, hala nola manitola eta glukosa, laktosaren alternatiba gisa (149,150) eta merkatuan badaude laktosarik gabeko DPIak, adibidez,

## **2. SARRERA**

---

Pulmicort Turbuhaler DPIa (146).

### **2.5.1.2 Medikazioaren pH-A**

#### **Medikazioaren pH-A Erabilitako Gailuaren Arabera**

Laktosa duten hauts lehorreko inhalagailuei dagokienez, enamelaren desmineralizazioa aztertzean kontuan hartu behar da horiek pH-a bi aldiz gehiago murrizten dutela laktosarik gabeko hauts lehorreko inhalagailuek baino (147).

Karova et al. egileek kortikosteroideen eta eragin luzeko sinpatikomimetikoen konbina-zio desberdinak zitzuten hauts lehorreko hiru inhalagailuren eragina aztertu zuten. Gainera, hiru PDI horiek laktosa kopuru desberdina zuten, nahita erabaki baitzen hori, haren eragina aztertu ahal izateko. Hiru taldeak hartzen zuten medikazioaren arabera banatu ziren: Seretide medikamentua (flutikasona propionatoa + Salmeterola eta 12,5 mg laktosa monohidrato), Symbicort medikamentua (Budesonida + Formoterola - 0,730 mg laktosa monohidrato) eta Foster medikamentua (Beklometasona + Formoterola - laktosa monohidratorik gabe). Lakto-sa gehien zuen farmakoarekin (Symbicort) ikusi ziren pH-aren aldaketa handienak. Egileek ondorioztatu zuten laktosak modu nabarmenagoan eta denbora luzeagoz murrizten dituela listuaren pH-a eta plakaren pH-a, eta, beraz, txantxarra izateko arriskua areagotu dezakeela paziente asmadunengan (151).

O ‘Sullivanek asmaren aukako medikazioaren berezko pH-a aztertu zuen, eta ikusi zuen DPIaren pH-a trinkoa zela, eta MDI homologoena baino dezente baxuagoa probatutako inha-lagailu guztieta. Gainera, ikusi zuen hauts lehorreko inhalagailu gehienek 5,5-etik beherako pH-a sorrazten dutela, hidroxiapatita enamela disolbatzeko duten gaitasunaren adierazgarri (152) Emaitza horiek guztiz bat datozen beranduago Tootla et al. egileek egindako azterlanarekin, Erresuma Batuko asmaren aukako inhalagailuen berezko pH-a eta azidotasun baliozta-garia aztertzeko egindakoarekin (147). Tootlak eta gainerako egileek, medikazioaren berezko gaitasun azidogenikoa aztertzeaz gainera, erantzun azidogenikoa aztertu zuten in vivo, listua-ren pH-a eta plakaren pH-a aztertuz. Egileek ikusi zuten laktosa zuten hauts lehorreko inha-lagailuek puntuazio baxuagoak lortu zituztela gainerako medikamentuek baino, eta, horregatik, egileek diote desmineralizazioari buruzko azterlan gehiago egin behar direla asmaren aukako

inhalagailuekin (147). Emaitza horiek bat datozen Lenander-Lumikari et al. egileek lortutakoezin. Hiru DPI kortikosteroideren eragina aztertu zuten listu-fluxu normala zuten 10 heldu osasuntsuren (ez zuten medikamenturik hartzen) plakaren pH-aren gainean. Laktosa zuten hauts lehorreko inhalagailuek plakaren pH-a murritzarazi zuten, baina balio guztiak pH-aren 5,5 balio kritikotik gora gelditu ziren. Turbohaler (laktosa-eramalerik gabe) bat erabiltzeak ez zuen eraginik izan plakaren pH-an (153).

Kargulek eta beste egile batzuek ere egin zuten inhalagailua erabiltzeak ahoko pH-an eragiten dituen aldaketei buruzko *in vivo* azterketa bat. Lenander-Lumikarik ez bezala, Kargulek modu erregularrean MDIak erabiltzeak haur asmadunengan zer eragin duen aztertu zuen, eta inhalagailua erabili eta 30 minutu beranduago plakaren pH-a eta listuaren pH-a nabarmen murrizten zirela ikusi zuen (154).

Tootla et al. egileek beste azterlan bat egin zuen urtebete beranduago, laktosa duten hauts lehorreko inhalagailuek enamel desmineralizatzeko zer gaitasun duten eta ahoan zer erantzun kliniko eragiten duten aztertzeko. Alabaina, ezin izan zuen erantzun azidogeniko edo kriogeniko nabarmenik egiaztatu pH kritikoaren azpitik (155). Aurkikuntza horrek azal deza-ke zergatik lortu zituzten emaitza ez erabakigarriak Godara et al. egileek beren azterlanean, ezin izan baitzuten egiaztatu asma bronkiala zuten pazienteek hauts lehorreko inhalagailuak erabiltzea txantxarra izateko arriskuarekin lotuta zegoenik, gutxienez urtebetez hauts lehorreko inhalagailuekin tratatuak izan ziren haurrengan (156).

Zenbait egilek, Alavaikko et al. egileek esaterako, proposatzen dute medikuek medikamentua hartu ostean ahoa garbitzeko gomendioa egin beharko luketela prebentzio-neurri gisa, farmakoaren partikulak desagerrazteko eta haren pH azidoa arintzeko (18,152,154). Ahoa garbitzeko, likido basikoak edo pH neutroa dutenak erabili beharko lirateke inhalagailuen pH azidoari aurre egiteko, hala nola antiazido likidoak, sodio bikarbonatoa, ura, esnea edo sodio fluoruro neutrozko likidoa (7,157). Medikamentuak hartu ostean ahoa irakutzear, pH azidoak hortexetako ehunetan duen eragin zuzena murrizteaz gainera, ahoko kandidiasia izateko arriskua ere murrizten du (10).

Prebentzio-neurri horren eragingarritasuna egiaztatuta geratu zen Kargul et al. egileek egindako azterlanean. 250 mg flutikasona propinato eta 400 mg salbutamol inhalatu eta 30

## **2. SARRERA**

---

minutura plakaren eta listuaren pH-a murriztu egiten zela ikusi zuten, eta egileek plakaren eta listuaren pH-en balioak hobetzea lortu zuten, medikamentuak hartu ostean ahoa irakuziz eta azukrerik gabeko txikleak erabiliz listu-jariaketa estimulatzeko (154). Azukrerik gabeko txiklea erabiltzeak, inhalatutako medikazioak eragindako plakaren pH-a neutralizatzeaz gainera, listu-jariaketa areagotzen eta xerostomia konpentsatzen du (154).

Inhalagailua erabili eta berehala ez dira hortzak eskuilatu behar, medikazioaren pH azidoaren ondorioz ahulduztako enamela kaltetu daitekeelako (7). Aldiz, fluoruroek txantxarra izateko arriskua nabarmen murrizten dutela egiaztatu da, beraz, produktu fluorurodunak era-biltzeko gomendioa egin behar zaie paziente asmadunei (hortzetako pasta, esate baterako) (18,158,159). Horregatik, haur asmadunek sakonki garbitu behar dituzte hortzak fluorurodun pastaz egunean bi aldiz gutxienez (152). Zenbait egilek diote haur asmadunek % 0,2an klorhexidina duten likido antimikrobianoz irakuzi beharko luketela ahoa txantxarra izateko arriskua murrizteko (7).

### **Asmaren Aurkako Medikazioaren Eragina Plakaren pH-AN Eta Hortzetako Txantxarrarekin Izan Zerikusia**

Stensson et al. egileek asmaren aurkako medikazioak plakaren pH-an duen eragina eta hortzetako txantxarrarekin izan dezakeen zerikusia aztertu zuten 2010ean. Epe luzeko asma zuten nerabeen plakaren pH-a aztertu zuten, eta nerabe osasuntsuen balioekin alderatu zituzten ateratako balioak. Egileek ikusi zuten paziente asmadunek plakaren pH-aren hasierako balio baxuagoak zituztela kontrol-taldeak baino, eta pH-aren beherakada handiagoa ikusten zela ahoa sakarosaz irakuzi ostean. Egileek ondorioztatu zuten asma zutenen taldean txantxarrak ugaritzea listu-tasa murriztearekin, oietako odol-galera areagotzearekin eta plakaren pH-a murriztearekin lotuta zegoela (160). Urtebete beranduago, 2011n, egileek beste azterlan bat egin zuten heldu gazteekin, eta haien plakaren pH-a aztertu zuten. Epe luzeko asma kontrolatua zuten heldu gazteek hasierako txantxar gehiago zituzten, oietako hantura gehiago zuten eta listu-jariaketa estimulatuaren tasa txikiagoa zuten, baina ez zuten desberdintasun estatistiko-rik aurkitu plakaren pH-an (161).

### **Medikazioaren Konposizioak, Dosiak, Maiztasunak, Hura Hartzeko Uneak Eta Esposizio-Denborak Hortzetako Txantxarrean Duten Eragina**

Egile batzuek, ikusita literaturan ez dagoela adostasunik asmak hortzetako txantxarra izateko arriskuan eragiten duen ala ez zehazteko garaian, uste dute paziente asmadunek hartzen duten medikazioak eta haren albo-ondorioek eragindakoa izan daitekeela adostasun falta hori (162,163).

Azterlan gehienek terapia konbinatuaren ( $\beta_2$  agonista adrenergikoak + kortikoideak) eta haur asmadunen ahoko osasunaren arteko elkarreragina aztertu dute. Beste batzuek, berriz,  $\beta_2$  agonisten edo ahoz hartzen diren kortikoideen eragina behatu dute modu bereizian (134).

Heidari et al. egileek medikazio-mota bakoitzak ( $\beta_2$  agonistak / antihistaminkoak / esteroideak eta zenbait konbinazio) aldi baterako zein behin betiko hortzetako txantxarraren indizeetan zer eragin zuen aztertu zuten. Egileek ez zuten loturarak aurkitu hortzetako txantxarraren eta medikazio-moten artean (164).. Khalilzadeh egileak eta beste batzuek, berriz, txantxar-puntuazio altuagoak aurkitu zituzten  $\beta_2$  agonistak soilik kontsumitzen zituzten haurren behin betiko hortzerietan,  $\beta_2$  agonistak eta kortikoide inhalatuak kontsumitzen zituztenekin alderatua (138). Botelho et al. egileek aztertu zuten nola eragiten zuen medikazio-motak ( $\beta_2$  agonista adrenergikoak + kortikoideak batera eta medikazio bakoitza bere aldetik) parametro klinikoetan, hala nola txantxar-esperientzian eta mutans estroptokoko eta lactobacillus bakterioen mailetan. Egileek ez zuten lotura adierazgaririk aurkitu faktore horien eta hortzetako txantxarraren artean (165). Emaitza horiek ez dato bat Alaki et al. egileek lortutakoekin, horiek ikusi baitzuten asmaren aurkako farmakoak kortikosteroideoekin batera hartzen zituzten pazienteek lactobacillus gehiago zituztela beste medikamentu batzuk erabiltzen zituztenek baino (166).

Ersin et al egileek ere aztertu zituzten medikamentu-moten ( $\beta_2$  agonistak,  $\beta_2$  agonistak eta kortikosteroideoak,  $\beta_2$  agonistak + kortikoideak + hantura-kontrako agenteak edo leukotrienoen agonistak) eraginak eta beste zenbait parametro kliniko, hala nola listuaren pH-a, indargetze-gaitasuna edo listu-fluxuaren tasa. Egileek ikusi zuten medikamentu-motak ez zuela eraginik parametro horietan (158).

## **2. SARRERA**

---

Dosiaren eta medikazioaren maiztasunaren eragina ere aztertu izan dituzte literaturan, medikazioak ahoan duen eragina berretsi ahal izateko. Medikazioaren dosiak haur asmadunen hortzetako txantxarrean duen eragina aztertu duten hiru azterlanek korrelazio positiboa aurkitu dute (139,162,167). Literaturan jasotakoaren arabera, hartualdien maiztasunak ere eragin nabarmena du hortzetako txantxarrean (139,163).

Milano et al. egileek aztertu zuten zer eragin duen hartualdi-uneak txantxarrarekiko susceptibilitatean, eta ikusi zuten medikazioa goizean edo arratsaldean hartzen zuten haurrek txantxarrarekiko susceptibilitate txikiagoa zutela medikazioa gauean hartzen zutenek baino (163) .

Medikazioak ahoan eragin ditzakeen asalduren eta hortzetako txantxarraren arteko erlazioa aurkitzen saiatzeaz gainera, medikazioarekiko esposizio-denbora ere aztertu izan da, asmaren aurkako medikazioaren eta hortzetako txantxarraren arteko lotura aurkitu ahal izateko. Botelho et al. egileek nolabaiteko lotura ikusi zuten MS mailen eta tratamenduaren iraupena-ren artean. Gainera, erregresio logistikoak agerian utzi zuen MS maila txantxarraren prebalentzia areagotzeko arrisku-faktore garrantzitsua dela. Egileek ondorioztatu zuten medikazioaren iraupena hortzetako txantxarra izateko arrisku-faktorea dela asma duten haurrentzat (165). Al-diz, Milano et al. egileek asmaren aurkako medikamentuen erabileraaren iraupena haur asmadunen hortzeria mistoan txantxarra izateko probabilitate txikiagoarekin lotu zuten(163) . Beste egile batzuek ere ez dute inolako loturariik aurkitu hortzetako txantxarraren eta medikazioarekiko esposizio-denboraren artean (162,164,168,169).

### **2.5.1.3 Medikazioak Listuan Eragiten Dituen Asaldurak**

Listuak ahoko osasunerako duen garrantzia ezin da gutxietsi. Listua ura da nagusiki, baina osagai ez-organiko eta organiko sorta zabala ere badu, eta horiek mikroorganismoengandik babesten gaituzte, mamurtzeko behar dugun lubrifikazioa ematen digute, eta txantxarretik eta higaduratik babesten dituzte hertz-egiturak. Listuaren edozein asaldura kualitatibok edo kuantitatibok eragin negatiboa izan dezake ahoko osasunean, listuak zeregin garrantzitsua gauzatzen baitu hura zaintzeko lanean (10).

### Listu-Fluxua Murriztea

Egile ugarik ondorioztatu dute asmak, gaixotasunaren beraren edo hura tratatzeko farmakoterapiaren bidez, listu-fluxua murrizten duela eta hortzetako txantxarra izateko arriskua area-gotzen duela (160,161,170,171). Beste egile batzuek, berriz, ez dute erlazio kausalik ikusten, eta asmak listu-fluxua murriztea badakar ere hortzetako txantxarra izateko arriskurik ez daka-rrela diote (166,172). Egile horiek lotura ezarri dute asmaren larritasunaren eta listu-fluxuaren tasa murriztearen artean, baina, txantxarraren prebalentziari dagokionez, ez dute desberdin-tasun estatistikorik aurkitu talde asmadunaren eta kontrol-taldearen artean. Brigit et al. eta Santos et al. egileek, berriz, ez dute listu-fluxuaren murrizketarik aurkitu asma duten hau-rengan kontrol-taldeekin alderatuta, baina bai hortzetako txantxarraren hazkunde nabarmena (173,174).

Haur asmadunen artean listu falta horri aurre egiteko eta hortzetako txantxarra prebenit-zeko, zenbait neurri proposatu izan dira literaturan, hala nola listu-ordezkatzaileak erabiltzea, ur garbia edatea, ahoa fluorurodun likidoz irakuztea eta txiklea erabiltzea (7,136,154). Hu-rrengo pausoa listu-estimula-tzaileak eta listu-ordezkatzaileak erabiltzea da, ahoko osasuna zaintzeko ezinbesteko neurri gisa. Egiaztatuta geratu da zenbait farmako erabiltzeak listua es-timulatzen duela, pilokarpina (15 mg egunean hiru aldiz) eta cevimeline (30 mg egunean hiru aldiz) erabiltzeak adibidez (7).

### Medikazioaren Ondorioz Fluxua Murriztea

Egile batzuek diote  $\beta_2$  agonisten erabilera gortetako txantxarrarekiko suszeptibilitatea handiagotzen duela,  $\beta_2$  agonista adrenergikoen erabilera asaldurak eragiten dituelako listu-jariaketan, eta ez gaixotasunagatik beragatik (175,176). Listua hiru listu-guruin nagusieta-tik (mihioko guruina, guruin azpimaxilarra eta parotida-guruina) jariatzen da, bai eta aho-sabaiko eta ahoko mukosako beste listu-guruin batzuetatik ere (177). Ryberg et al. egileek parotidan eta beste listu-guruin batzuetan  $\beta_2$  agonista errezeptoreak egotearekin lotzen dute listu-otorriaren murrizketa hori (176).

Rybergek ikusi zuen  $\beta_2$  agonistekin medikatutako haur asmadunek listu-jariaketa oro-korra eta parotidakoa % 20 eta % 35 baxuagoa zituztela kontrol-taldeak baino (176). Datu

## **2. SARRERA**

---

horiek lau urte lehenago egindako azterlan baten emaitzak berretsi zituzten. Haren arabera, haur asmadunek listuaren guztizko jariaketa % 26 txikiagoa zuten kontrol-taldeak baino, eta parotidako listu-jariaketa % 36 txikiagoa (175).

Rybergen emaitzak bat datoaz arratoiekin egindako azterketa esperimentalekin:  $\beta$ 2 agonistak hartzeak listu-guruinen hipertrofia eta hiperplasia eragiten zien (178,179).

Ahoa lehortzea ez da  $\beta$ 2 agonistekin soilik lotu. Egile batzuek egiaztago dute batez ere esteroideekin eta noizbehinka  $\beta$ 2 agonistekin tratatutako paziente asmadunen listu-fluxua murriztu egiten dela (180) Dubus et al. egileek egindako azterketan, aztertutako bost haurretik batek egarria izaten zuen maiz kortikosteroideak inhalatu ostean (181).

### **Bakterio Kariogenoen Hazkundea**

Egile batzuek bakterio kariogenikoen (*lactobacillus* eta *mutans* estreptokokoak adibidez) hazkundea sumatu dute haur asmadunen aho-barrunbean, eta uste dute listu-fluxuaren murrizketaren albo-ondorioa dela, eta asaldura hori izan daitekeela haur asmadunen artean txantxartasa handitzea dakarten faktore nagusietako bat (7,176,182). Listu-fluxua murrizteak ere mesedea egiten die bakterioen hazkundeari eta ondorengo kolonizazioari, biologikoki aktiboak diren osagaiak ere murriztu egiten direlako, hala nola amilasa, kaltzio ioiak, Ig A jariatzalea, peroxidasa eta lisozima (7). Beste egile batzuek, berriz, ez dute desberdintasun estatistikorik aurkitu haur asmadunek dituzten bakterio kariogenikoei dagokienez, baina, hala ere, txantxarraren presentzia handiagoa ikusi dute (160,183,184).

### **Asaldurak Listuaren pH-AN Eta Tanpoi-Gaitasuna**

Listu-fluxua murrizteak arriskuan jar dezake listuak aho-barruneko gai hartzigarriak garbitzeko duen gaitasun babeslea, eta listuaren tanpoi-gaitasuna ere murritz dezake (176). Haur asmadunen buffer gaitasunaren murriketa eta bakterio kariogenikoen hazkundea asmaren aurkako medikazioan dauden karbohidrato hartzigarriekin eta azukrearekin lotuta egon daitezke (182).

Aho-barneko batez besteko pH-a 7,4 ingurukoa da (185), eta pixka bat jaisten da lo gau-denean (186,187). Listuaren pH baxua hortza desmineralizatzeko arrisku-faktorea da (188).

Ersin et al. egileek beren azterlanean ondorioztatu zuten asmak, gaixotasun-egoeraren bidez eta haren aurkako tratamendu farmakologikoaren bidez, listuaren fluxua eta pH-a murriztea dakarrela, eta hori txantxarra sortzeko arrisku-faktorea dela (158). Beste egile batzuek, aldiz, ez dute ikusi haur asmadunen pH-an asaldurarak gertatzen denik kontrol-taldeekin alderatuta (171,174,189).

### Asaldurak Konposizioan Eta Inmunitatean

Zenbait egilek diotenari jarraikiz, farmakoterapiak haur asmadunen listuaren konposizioan eta/edo immunitatean eragiten dituen asalduren ondorioz areagotzen da hortzetako txantxarra izateko arriskua(175,190-192) . Listuaren konposizioan eta jariaketan geratzen diren asaldurak listu-guruinen zelulek jasotzen dituzten seinale jakin batzuekin lotuta daude. Seinale horietako batzuk neurologikoak dira eta ur-jariaketari eta elektrolitoei eragiten diete, eta beste batzuek, berriz, biosintesiari (proteina-sintesia) eragiten diote (191,192).

Hegde et al. egileek haur asmadunen listuaren konposizioa aztertu zuten, eta haien anaia-arreba osasuntsuenarekin alderatu zuten, hortzetako txantxarraren egoeraren eta listuko antioxidatzaile-mailaren artean loturarik bat ote zegoen aztertzeko. Egileek antioxidatzaile-maila baxuagoak aurkitu zituzten nabarmen, baina azterketa-taldearen txantxar-esperimentzia kontrol-taldearena baino baxuagoa izan zen, alde handirik ez bazegoen ere (190). Beste egile batzuek, Lenander-Lumikari et al. egileek adibidez, ez zuten taldeen arteko desberdintasunik aurkitu defentsa-faktore ez-immuneetan, mieloperoxidasan izan ezik, hori paziente asmadunen han-tura periodontal handiagoarekin lotu baitzen (153).

Ryberg egileak  $\beta$ 2 agonistekin tratatzen ziren haur asmadunen listuaren konposizioa alderatu zuen adin, sexu eta jatorri sozial bereko haur osasuntsuz osatutako kontrol-taldearen listuarekin. Subjektu asmadunek parotidako guztizko listuan guztirako proteinaren eta amilasaren kontzentrazio nabarmen baxuagoak erakutsi zituzten kontrol-taldekoek baino. Pota-sioaren, listuko peroxidasaren, bakterioak batzeko glikoproteinen eta Ig A jariatzaleen kontzentrazioak ez ziren aldatu. Egileek txantxarraren puntuazio altuagoak aurkitu zituzten asmadunen taldean kontrol-taldean baino, baina ez ziren oso esanguratsuak (175). Beranduago egindako azterlan batean, Ryberg et al. egileek haur asmadunen listua aztertu zuten, eta haur

## **2. SARRERA**

---

osasuntsuz osatutako kontrol-taldeenarekin alderatu. Asmadunen taldeak minutuko guztizko proteina eta amilasa gutxiago ekoizten zuela ikusi zuten, baina, gainera, bigarren azterlan horretan balio baxuagoak aurkitu zituzten estimulatutako parotida-listuko hexosaminan, listuaren peroxidasan, lisoziman, Ig A jariatzilean, bakterioak batzeko glikoproteinetan, potasioan eta kaltzioan. Gainera, bigarren azterlan horren egileek hortzetako txantxarraren hazkunde nabarmena aurkitu zuten asmadunen taldean (176). Beste egile batzuek, del-Río-Navarro et al. egileek adibidez,  $\beta$ 2 agonistek, bakarka edo konbinatuta, listuaren konposizioan eta fluxuan zuten eragina aztertu zuten. Mexikon gauzatutako azterlan horrek agerian utzi zuen salmenterolak, hutsik edo beklometasonarekin konbinatuta, lesioak eragin ditzakeela ahoko mukosan, eta listu-fluxua murritzaraz dezakeela. Alabaina, salmenterolak soilik lortu zuen listuaren guztizko Ig A areagotzea (193).

Alavaikko et al. egileek, beren berrikuspen sistematikoan eta metaanalisiaan, iradoki zuten Ig A-ren asaldurak asmaren eta txantxarraren arteko erlazioarekin lotutako faktore izan zitezkeela, asmaren hanturazko jatorriagatik (18). Tar et al. egileek aztertu zuten zer eragin izan ditzakeen immunoeskasia selektibo batek (A immunoglobulina bereziki) eskasia hori duten haurren ahoko osasunean. Egileek desberdintasun nabarmena aurkitu zuten Ig A-ren eskasia selektiboa duten haurren hortzetako txantxarraren esperientziari zegokionez (194).

Itsu bikoitzeko azterlan kliniko batek aztertu zuen zer eragin zuen hauts lehorreko inhalagailu (DPI) baten bidez hartutako  $\beta$ 2 antagonista baten eta kortikosteroide baten konbinazio-terapiak asma moderatua zuten haurrengan eta nerabeengan. Hilabete batez tratamendua hartu ostean, egileek ez zuten alderik aurkitu Ig A jariatzilearen mailan, ez eta asaldura periodontaletan ere, baina listu-fluxua nabarmen murrizten zela ikusi zuten(195).

### **Hortzen Higadura Eta Txantxarra**

Listu-jariaketa murrizteak eta listuaren konposizioaren aldaketek, txantxarra izateko arriskua areagotzeaz gainera, haur asmadunen hortzak higatzeko arriskua dakarte aldi berean (189,196,197).

Hortzen higadura ehun gogorraren (enamela eta dentina) galera atzeraezina da; azidoek eragiten dute, eta bakterioek ez dute parte hartzen prozesu horretan (198). Gaur egun, onartu-

tako arazoa da, eta ez helduengan soilik, baita haurrengan ere (10). Faktore estrinsekoek eta intrinsekoek eragiten dute higadura (199). Elikagai azidoak eta farmakoak kontsumitzea eta oka egitea dira faktore horietako batzuk (199).

Azido-iturri estrinsekoak dieta azido batekin (freskagarriak, kirolarentzako edariak, zuquak, fruta...) eta medikamentuekin edo osagai dietetikoekin lotuta egon daitezke. Beste alde batetik, azido intrinsekoek ere eragin dezakete higadura; adibidez, errefluxu gastroesofagikoa eta okada kronikoak eragiten dituzten gaixotasunak daudenean (199).

Asmaren aurkako medikazioak ere eragina izan dezake hortzen higaduran, zenbait mekanismoren bidez; zuzenean izan dezake eragina farmakoaren azidotasunagatik (152,154), edo zeharka, inhalatutako medikazioak eragiten duen xerostomiagatik (189).

Aurreko atalean esan dugun eran, zenbait egilek egiaztu dute inhalagailu mota batzuek, hauts lehorreko inhalagailuek (DPI) bereziki, berezko pH-aren balioa enamelaren hidroxiatitaren disoluzioa hasteko pH kritikoa baino baxuagoa dutela, eta horrek haur asmadunen hortzak higatzeko arriskua areagotzen du (147,152). Egile batzuek adierazten dute egunean zenbait aldiz medikamentu horiek erabiltzeak hortzen ehunak desegitea ekar dezakeela (136).

Beste alde batetik, asmaren aurkako medikazioak hortzak higatzeko arriskua ekar diezaioke pazienteari zeharka, listuak ez duelako berdin babestuko azido estrinsekoetatik eta intrinsekoetatik. Xerostomia bronkodilatadoreek eragin dezakete, eta/edo aho bidezko arnasketagatik sor daiteke (7,9,136,161).

Paziente asmadunen hortzen higadura errefluxu gastroesofagikoarekin lotuta ere egon daiteke (200). Milosevic et al. egileek 2008an egindako azterketa sistematikoan, egiaztatuta geratu zen lotura sendoa dagoela errefluxu gastroesofagikoaren eta hortzen higaduraren artean (199). Harding et al. egileek jakinarazi zuten paziente asmadunen % 75ek dituela, gutxi gorabehera, errefluxu gastroesofagikoaren sintomak, kontrol-taldearekin alderatuta (200). Errefluxu gastroesofagikoaren prebalentziaren hazkundea inhalatutako  $\beta$ 2 antagonistekin lotuta egon daiteke (189).  $\beta$ 2 agonistek gihar leunak erlaxaraz ditzakete, hala nola esfinter esofagikoaren muskulua, eta esofagoaren uzkurduraren zabalera murritzarazi. Izan ere, inhalatutako medikazio guztia ez da biriketara iristen, pazienteak zati bat irentsi egiten baitu, eta, horrela,

## **2. SARRERA**

---

medikazioa gune gastroesofagikora heltzen da (189). Beste alde batetik, asmak honako mekanismo hauen bidez ere areagotu dezake per se errefluxu gastroesofagikoa garatzeko arriskua: desregulazio autonomikoa, toraxaren eta abdomenaren arteko presio-gradiente differentziala handitzea, hiato-herniaren prebalentzia handia eta diafragma kruralaren funtziaren asaldu-rak (200).

Literaturan aztertu izan da haur asmadunek zer arrisku duten hortzen higadurarekin lotutako lesioak izateko, eta egile batzuek diote haur asmadunek lesioen prebalentzia handiagoa dutela (189,196,197). Dugmorek 2003an egindako azterlanean, berriz, ez zuten asmaren eta hortzen higaduraren arteko lotura garbirik ikusi (201). Al-Dlaigan et al. egileen azterlanaren xedea izan zen hortzen higaduraren prebalentzia aztertzea Birminghameko Hertz Ospitalera joaten ziren 11 eta 18 urte bitarteko haurrez osatutako hiru taldetan. Honela banatu zituzten haurrek egileek: alde batetik, asma zuten haurrek; beste batetik, hortzen higadura nabarmena zutenak; eta, beste batetik, asma-aurrekariak edo beste arazo mediko batzuk zituztenak. Higadura-maila askoz ere handiagoak zituzten asma zuten haurrek kontrol-taldeetako adin eta sexu bereko haurrek baino. Ezin izan zen desberdintasun hori dieta desberdina izatearekin edo listu-asaldurak (pH-a, Bufferra eta fluxua) izatearekin lotu, baina bai errefluxu gastroesofagikoaren presentziarekin (189). Dugmore et al. egileek ere ez zuten aurkitu listuarekin lotutako faktoreen (kasu horretan, listu-fluxua) asaldurarik, ez eta higadura eragin dezaketen edarien kontsumorik ere, haur asmadunen taldean. Egile hauek ez zuten aurkitu, ezta ere, errefluxu gastroesofagikoaren hazkunderik haur asmadunen artean kontrol-taldearekin alderatuta, Al-Dlaiganek aurkitu bezala. Azterlanak ez zuen loturariak aurkitu asmaren eta hortzen higaduraren artean(201). Errefluxu gastroesofagikoa duten paziente asmadunei espezialistengana jotzea gomendatu beharko zaie, zer egoeratan dauden eta antiazidorik behar duten ala ez aztertzeko (136).

### **2.5.2 Nola Eragiten Dio Asmak Hortzetako Txantxarrari?**

Badago gaixotasun sistemikoen eta ahoko baldintzen arteko loturaren ebidentzia, baina ez dago garbi gaixotasunak zuzenean edo azpiko faktoreen bidez jarduten duen (202). Azterlan ugariak landu dituzte gaixotasun sistemikoen arteko loturak, asmaren eta txantxar-esperimentziaren

## **2.5 Asmaren Eta Hortexetako Txantxarraren Arteko Erlazioa**

---

artekoak besteari bestea (203-206). Bimstein et al. egileek beren azterlanean ondorioztatu zuten gaixotasun sistemikoak dituzten haurrak oro har, eta asma duten pertsonak bereziki, hortexak zaintzeko prebentzio-zerbitzuen xede izan behar direla, hortexetako minaren prebalentzia handiagoa eta plaka, lertzo eta txantxar gehiago dutelako (204). Beste egile batzuek ere, Arnrup et al. eta Anjomshoaa et al. egileek esaterako, ikusi zuten haur asmadunen artean txantxar-prebalentzia handiagoa zela beste gaixotasun kroniko batzuk zituzten beste haur batzuekin alderatuta (203). Lotura estua aurkitu zuten hortexetako txantxarraren eta asma eta epilepsia gaixotasun sistemikoen artean. Beste egile batzuek, berriz, gaixotasun alergikoen (ekzema, rin konjuntibitis alergikoa eta asma) eta hortexetako osasunaren arteko lotura aztertu dute, eta ez dute aurkitu hortexeko txantxarra izateko arriskua handitzen dela adierazten duen datu esanguratsurik (205,206).

Batzuek iradoki dute haur asmadunek txantxar-lesioak garatzeko aukera gehiago dituztela ez farmakoterapiaren eragin fisikoengatik eta fisiologikoengatik soilik, baita haien izaera medikoagatik ere, asmadun izateagatik alegia (164).

### **2.5.2.1 Asmaren Larritasuna Eta Gaixotasunarekiko Esposizio-Denbora**

Dirudienez, haur asmadunek txantxarraren prebalentzia altua dute, eta hori handiagotu egiten da gainera asma bronkialaren larritasunaren arabera (143,166,172).

Paganini et al. egileek, beren datuen erregradio logistikoz egiaztatu zuten asmaren larritasunak 17 bat aldiz handiagotzen zuela listu-fluxu murritzua izateko arriskua (172). Alaiki et al. egileek Paganinik lortutako datuak berretsi zituzten, ikusi baitzuten asma larria zuten pazienteek listu-fluxuaren tasa askoz ere baxuagoa zutela beste paziente asmadun batzuek baino (166). Beste egile batzuek, berriz, ez dute loturarik aurkitu asmaren larritasunaren eta hortexetako txantxarraren edo ahoko beste asaldura batzuen intzidentzia handiagoaren artean (162,168-170,207).

Gaixotasunarekiko esposizio-denboraren eta haur asmadunen txantxarraren hazkundearen arteko lotura ere aztertu dute egile batzuek (170,208,209).

## **2. SARRERA**

---

Mehta et al. egileek ikusi zuten asma moderatua zuten pazienteek prebalentzia nabarmen handiagoa zutela asma larria zutenek baino. Egileak uste du gaixotasuna denbora luzeagoaz eduki izanarekin lotuta egon daitekeela hori (208) . Meldrum et al. egileek, gaixotasunaren iraupenaren eta txantxarraren hazkundearen arteko erlazioa aztertzean, ikusi zuten haur-asma txantxarraren hazkunde handiagoarekin dagoela lotuta (209). Emaitza horiek bat datozen Stensson et al. egileek lortutakoekin, azken horiek ikusi baitzuten epe luzean asma zuten heldu gazteek eta nerabeek txantxarra izateko arrisku handiagoa zutela kontrol-taldeko homologoek baino (160,161). Beste zenbait egilek, aldiz, ez dute inolako loturariik aurkitu gaixotasunaren iraupenaren eta hortzetaiko txantxarraren artean (162,169). Ersin et al. egileek frogatu zuten medikazioaren eta gaixotasunaren iraupenak eragin nabarmena duela asmadunek txantxarra izateko arriskuan, korrelazio negatiboa aurkitu baitzuten medikazioaren iraupenaren eta listuaren pH-aren artean, eta korrelazio positiboa gaixotasunaren iraupenaren eta paziente asmadunek listuan zuten S. Mutans mailaren artean (170)

### **2.5.2.2 Aho Bidezko Arnasketa Eta Txantxarra**

Errinitis alergikoa (AR) sudurreko mukosaren edo sudurreko barrunbea estaltzen duen mukimintzaren hantura alergikoa da. Errinitis alergikoa asmaren komorbilitatea ezaguna da, eta horren eraginez, pazienteak aho bidez arnasteko ohi baino aurrejoera handiagoa du. Zenbait egileren ustez errinitis alergikoaren tratamendua beharrezkoa da sudurreko aire-fluxuaren iragazkotasuna ziurtatzeko, aho bidezko arnasak asmaren morbilitatea handitu eta biriken funtzioa txikitzen baitu(210),. Errinitis alergikoa ez dagoenean, ez dago argi zer mekanismok lotzen dituzten asma eta aho bidezko arnasketa; dena den, faktore hauek eragina dutela ematen du: sudurreko polipoen intzidentzia altua , sudurraren zeregin babesleak desbideratzeko saiakera, eta sartzen den aire-kopurua handitzeko modua (210,211).

Aho bidezko arnasketa, arnastu bitartean airea pasatzeko sudur bidea baino ahoa etengabe erabiltzearen ohitura bezala definitzen da, .Asma duten haurrengan, listu-fluxua txikiagoa da, eta baliteke hori ere aho bidezko arnasketaren ondorio izatea. (212).

## **2.5 Asmaren Eta Hortzetako Txantxarraren Arteko Erlazioa**

---

Aho bidez etengabe hartzen bada arnasa, txantxarrak izateko arriskua handitzen da, aho-barrunbea deshidratatzen delako; horrek, gainera, argitze-tasa eta listuak tanpoi moduan jokatzeko gaitasuna txikitzea dakar (187).

Egile batzuek erlazio kausala aurkitu dute aho bidezko arnasketaren presentzia altua eta asma duten haurren txantxar-intzidentzia handitzearen artean (161,183,184,213) Beste egile batzuek, aldiz, ez dute erlazio hori aurkitu (214) .

Aho bidezko arnasketa asma duten haurren hortzoietako asaldurekin ere lotu da. Dirudienez, ahoko mukosa lehortzen da, eta beraz, gingibitisa gehiagotan gertatzen da (bereziki, masailezurreko goialdean, surrealdeko albeolo-mukosan), aho bidez arnasteagatik eta erantzun immunea asaldatzeagatik

(161,192,196).

### **2.5.2.3 Bizimodu Murriztailea Eta Produktu Kariogenoen Kontsumoa**

Sarritan, asma duten haurrek bizimodu murriztailea dute, haietako asko ez baitira kiroletan aritzeko edo haurren artean ohikoak diren beste jarduera batzuk egiteko gai (136,196).

Medikamentuak edo aho bidezko arnasketak eragiten duen deshidratazioa konpentsatze-ko, asma duten haurrek azukrea eta pH txikia dituzten edariak hartzeko joera dute (161,189). Edari hauek maiz hartuz gero, asmadun haurren hortzetako higadura handitu daiteke eta txantxar gehiago sor daitezke, azukreen eta ph baxuaren ondorioz. (189) Edari kariogenikoen kontsumo handia ,medikamentuak edo aho bidezko arnasketak ahoan eragindako lehortasuna txikitze-ko saiakera bat izan daiteke, eta horrez gain, beste egile batzuek inhalatzen diren medikamentuen zaporea kentze-ko saiakera ere badela uste dute (145). Beste egile batzuek asma duten haurren dieta aztertu dute hortzetako txantxarrarekin eta higadurarekin izan dezakeen erlazioa argitzeko, baina ez da alderik antzeman asmadun haurren eta kontrol-taldearen ohitura dietetikoen artean (169,182,196).

### **2.5.2.4 Asma Eta D Bitaminaren Eskasia**

Azken urteotan, asma duten pazienteek gainerako herritarrek baino D bitaminaren maila txikiagoak dituztela egiaztatu da, eta maila hori asmaren larritasunarekin erlazionatu da (215)

## **2. SARRERA**

---

.Maila txiki horiek umetoki barruan badaude jada, eta eragin mistoa dute, gainera: batetik,: hortzaren eraketari eragiten diote,eraketan eta bestetik, biriken garapenari (215-217). Azken aldiko zenbait azterlanen arabera, faktore genetiko bat ere ba omen dago asma duten pazienteen D bitaminaren eskasiaren erantzun moduan (218). Gaur egun, bi berrikuspen sistematiko eta metanalisisan D bitaminaren gehigarriak hartza gomendatzen da, hala txantxarrak nola asma prebenitzeko (219,220).

### **2.5.2.5 Alterazioak Esmaltearen Garapenean, Asma Duten Pazienteen Arteen**

Ebakortzen eta hagini hipomineralizazioa (EHH) enamelaren garapenaren akatsen azpikategoria bat da, arreta lehen hagin iraunkorretan ikusten diren akatsetan ipintzen duena. Zehazkiago, EHH jatorri sistemikoko akats kualitatibo bat da, lehen hagin iraunkorretatik bati edo lauri artean eragiten diena, ebakortz iraunkorrei eragin edo ez (221). Esmaltearen hipoplasia akats kuantitatibo bat da, eta hipomineralizazioa, ordea, akats kualitatiboa da. Akatsa identifikatzeko, anormaltasunen bat ikusten da enamelaren zeharrargitasunean; esmaltearen opakutasun ere esaten zaio (222) Esmaltearen hipokalzifikazioa hortzetan gehien ikusten den garapenaren nahasmendua da. Horrelako hipomineralizazioen prebalentzia % 10 eta % 19 artekoa da, gutxi gorabehera (223).

Hagin horiei gazta-hagin ere esaten zaie, lesio horiek, klinikoki, antza baitute gaztaren kolorearekin eta trinkotasunarekin. Histologiaren harira, zenbait mailatako porositate-eremuak daude (223). Esmalte hipomineralizatuak ertz zehatz-zehatzak izan ditzake akatsa duen esmaltearen eta esmalte arruntaren artean. Orobak, opakutasun lauso eta zurien modura ere ikus daitezke, esmaltearen gainazalean zehar hedatzen direnak, ertz zehatzik gabe (222) . Hipomineralizazioak opakutasun txikiak, zuriak edo horiak izan daitezke; hortzen egiturari larriki eragitea ere gerta daiteke, eta horrek esmaltea bizkor desegitea dakar, erupzioaren ostean (222).

Akatsak zenbait faktore etiologikok eragin ditzakete. Hortzetaiko ehun gogorrak kimografo modukoak dira, eta horrek hortz garapenean gertatzen dena zehaztasun handi samarrrez datatzeko aukera ematen du (224) .Ameloblastoak oso sentikorrak dira oxigenoaren aurrean jaiotzean oxigeno eskasia dakartzaten konplikazioak edo arnas gaixotasunak beste fak-

## **2.5 Asmaren Eta Hortzetako Txantxarraren Arteko Erlazioa**

---

tore etiologiko batzuk dira, adibidez, asma, bronkitisa edo pneumonia. Horra hor akats horiek eragin ditzaketen beste arrazoi batzuk: giltzurrun-gutxiegitasuna, hipoparatiroidismoa, beherakoa, malabsortzioa, malnutrizioa eta sukar altuko gaixotasunak. Medikamentuekiko esposizioa ere faktore etiologiko posible gisa proposatu da, besteak beste, asma tratatzeko medikamentuekikoa(137,225-227) .

Duela gutxi eginiko berrikuspen sistematiko eta metanalisi batean, forma aztertu zen EHHren etiologian, eta medikamentuak hartzearekin lotu da. Azterlan horietan, farmako hauek erabili ziren: kimioterapikoak, antibiotikoak, asmarako medikamentuak, antiepileptikoak, antibiralak, antifungikoak eta antiparasitarioak. Ondorioa izan zen ongi diseinatutako azterlan gehiago egin behar direla EHHren eta medikazioaren arteko erlazioa argitzeko(225) .Loli et al. egileek terapia inhalatua lehen haurtzaroan erabiltzearen eta ebakortzen eta hagini hipo mineralizazioaren (EHH) arteko korrelazioa aztertu zuten. Egileek ikusi zuten aerosolak lehen haurtzaroan maiz erabiltzea arrisku-faktore bat dela EHH garatzeko, bereziki mutilen artean (227).

Azterlan gutxitan ikertu da nolako erlazioa dagoen asmaren, asmaren aurka erabiltzen diren medikamentuen eta esmalteko alterazioen garapenaren artean, faktore etiologiko gisa (226-229) hala ere, emaitzak kontraesankorrak dira. Zenbait egilek lesio gehiago aurkitu dituzte asma duten haurren artean (226-228); beste batzuek, aldiz, ez dute alderik topatu asma zuten haurren taldearen eta kontrol-taldearen artean (229)

Asma duten pazienteek eremu hipomineralizatuak badituzte, prebentzio-tratamendua behar dute, baita fluorrezko berniza, pitzadura-zigilatzaileak, eta zaharberritze-lanak beirazko ionomeroa, konpositeak, altzairu herdoilgaitzezko koroak edo inplanteak erabiliz (223).



KAPITULUA

# 3

## HIPOTESIA ETA HELBURUAK

### 3.1 Hipotesia

**G**AIAREN egungo egoera aztertuta eta balioespen kritikoa eginda, honako lan-hipotesi hau sortzen da:

«*Modu jarraituan tratatutako haur-asma moderatua/larria izatea hortzetako txantxarra sortzeko arriskua areagotzen duen faktorea da, Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) 6 eta 14 urte bitarteko haurren artean»*

### **3. HIPOTESIA ETA HELBURUAK**

---

## **3.2 Helburuak**

### **3.2.1 Helburu nagusia**

Ikertzea ea asma patologiak eta haren aurkako medikazioak txantxar-arriskua areagotzen duten asma moderatua/larria duten eta Bilbo-Basurtu Erakunde Sanitario Integratuan (ESI) tratamendu jarraitua jasotzen duten 6 eta 14 urte bitarteko haurren artean.

### **3.2.2 Bigarren Mailako Helburuak**

- Azterketa-taldearen txantxar-indizeak (CAOD/caod) kontrol-talde batekin alderatzea, bai eta EAEko aho-hortzetako osasunaren hirugarren azterketa epidemiologikoko populazioarekin ere.
- Txantxarraren eta asmaren larritasunaren zein medikazioarekin erlazionatutako faktoreen (esaterako, inhalazio sistema, medikazio mota, esposizio denbora, uneko dosia eta dosia hartzeko unea) arteko erlazioa ikertzea asma duten haurren taldean.
- Haur asmatikoen listu-asaldurak aztertzea asmaren larritasunaren arabera eta medikazioarekin lotutako parametroen arabera (inhalazio-sis-tema, medikazio mota, esposizio-denbora, uneko dosia eta hartualdi-unea), eta kontrol-taldearekiko desberdintasunak kuantifikatzea.
- Faktore nahasgarri posibleak zehaztea, hala nola medikazioa hartu ostean ahoa irakurtea, aho bidezko arnasketa, dieta-ohiturak, aho-hor-tzetako higienea eta odontologoaren enganako bisitak, gurasoen ahoko osasuna, amagandiko edoskitze luzea, fluoruroekiko esposizioa, enamel-aasalduren presentzia eta maila sozioekonomikoa.

# MATERIALA ETA METODOA

## 4.1 Azterlanaren Diseinua

Azterlan hau deskriptiboa eta zeharkakoa da, eta herritar arrunten artean, asma duten 45 haurrek eta asma ez duten 45 haurrek hartu dute parte, 6 eta 14 urte bitartekoek. Azterlanean, azterketa klinikoak eta elkarritzeta egituratuak egin dira, azterlanaren xede diren herritarrren ahoko osasuna eta horren faktore erabakigarriak aztertzeko. Datuak 2015eko martxotik 2016ko ekainera bitartean bildu ziren.

## 4.2 Agintariek Onartzea (Etika-Batzordea)

Lan honetako azterketa-protokoloek ikertzeko arau etikoei jarraitzen diete, Helsinkiko adierazpenean (230) jasotako printzipio etiko orokorrak aintzat hartuta (pertsonak errespetatzea, justizia eta onura). Basurtuko Unibertsitateko Ospitaleko (Euskal Autonomia Erkidegoa, Espainia) Etika Batzordeak 2014ko urriaren 15ean onartu zuen azterlan osoa.

## **4. MATERIALA ETA METODOA**

---

Baimen informatuan, azterlanaren helburua azaldu zen eta datuak biltzeko zer prozedura ez-erasokor erabiliko ziren deskribatu zen. Isilpekoa eta anonimoa izan da une oro. Azterketan ikusitako arrisku-faktore guztien berri eman zitzaien guraso guztiei, eta neurri prebentiboak ere adierazi zitzazkien. Procedura berbera gauzatu zen azterlaneko parte-hartzaile guztiekin, asma zutenen taldekoak izan edo kontrol-taldekoak izan.

### **4.3 Egileak Eta Antolakuntza**

Parte-hartzaileen miaketa eta elkarrizketa guztiak pertsona berak egin zituen. Zehazki, Ainhara Abaitua Beica odontologoak eta registroko administrazio-lagunzaile eta Odontologiako bosgarren mailako ikasle zen Irune Aberasturik egin zituzten. Asma zuten haurren kasuan, Elorz doktoreak bildu zituen datu medikoak, eta kontrol-taldeko haurren kasuan, azterzaile nagusiak, A. Abaituak.

### **4.4 Azterketaren Metodologia**

Azterketak 2015eko martxoaren 4tik 2016ko ekainaren 22ra bitarteko asteazken guztietan egin ziren Basurtuko Unibertsitate Ospitalean, haurren pneumologiako konsultaren ondoko gelan, ahalik eta eraginkortasun eta erraztasun handienez jokatzeko.

Azterketa bakoitzak 30-35 minuto inguru iraun zuen. Inkestaren egunkaria ere egin zen; hartan, artatutako haur-kopurua eta beste edozein gertakari jasotzen ziren. Azterketa-inprimakiak egunean bertan berrikusten ziren, errorestroak osorik zeuden ala ez jakiteko.

Esplorazioa egin bitartean, haurra bizkarralde handiko aulki batean esertzen zen, eta azterzailea zutik egoten zen aulkiaren parean, argi artifizialaren pean, espektro zuri-urdineko argipean hain zuzen ere. Argiztapen konstantea mantendu zen egun osoan, argi artifizialari eta alboko leihoko batetik sartzen zen argi naturalari esker. Hartara, argi naturalak ez zion pazienteari zuzenean eragiten, hartara argiztapena ez zen aldatu azterketa egiten zen bitartean. Salbuespenetan soilik erabili behar izan da argiztapen artifiziala argi zuriarekin (100 watt). Gela horretan, mahai bat zegoen esplorazio-eremutik gertu; hortaz, han ipini ziren hortzetaarako tresnak, palankanak glutaraldehidoarekin eta behar zen materiala. Bi aulki ere kokatu

ziren; horietako bat, haurrarekin zihoa senidearentzat, eta bestea, erregistroko administrazio-laguntzailearen-tzat. Kontrol-taldearen kasuan, gorago aipatu diren OMEren gidalerro berak erabili ziren datuak biltzeko.

## **4.5 Tresnak Eta Hornidurak**

Haur bakotza esploratzeko, tresna hauek erabili ziren: 5 zenbakiko isphilu lau bat, txantxar-esploragailu bat eta muturrean esfera bat duen OME modeloko zunda periodontal bat, OME-ren irizpideei jarraituz; hau da, 0,5 mm-ko punta esferikoa, 3,5 eta 5,5 mm artean kokatutako lerro beltza eta punta esferikotik 8,5 mm-ra eta 11,5 mm-ra kokatutako eraztunak dituen zunda(31) .

Azterlanari ekin aurretik, behar ziren baliabideen zerrenda egin zen eta gastuak zenbatetsi ziren plangintza ekonomikoa egiteko, OMEk xedatzen duen moduan (31). Azterlan honetarako egin behar ziren gastu guztien zenbatespena ?? jaso da.

## **4.6 Laginketa-Metodoa**

### **4.6.1 Lagina Hautatzeko Sistematika (Azterlanean Parte Hartzeko Eta Baztertzeko Irizpideak)**

Elorz doktoreak asma larri edo moderatu iraunkorra diagnostikatu zien trata-mendu-taldeko (AT) haur guztiei, asma kudeatzeko Espainiako gidalerroei jarraituz (107).

Taldea homogeneoagoa izan zedin, azterlanean parte hartzeko irizpide gisa finkatu zen asma zuten haurrek (AT) egunero hartu behar zituztela asmaren aurkako medikamentuak , modu jarraituan eta urtebetez, gutxienez; hartara, kontrolpean ez zeuden asma zuten haurrak baztertu ziren, eta asmaren aurkako medikamentuak aho-barrunbearekin kontaktuan zeudela ziurtatu zen. Gainera, medikamentuekiko atxikidura txarra zuten pazienteak baztertu ziren; alderdi hori farmazian emandako ontzi-kopuruaren bitartez kontrolatu zen.

Halaber, azterlanetik baztertu ziren honako hauek zituzten haurrak: beste gaixotasun sistemiko batzuk, bihotzko gaixotasunak, errefluxu gastroesofagikoa, anomalia kromosomikoak, gaixotasun infekziosoak, elikadura-nahasmendua eta gorakoa. Laginetan alterazioak gerta ez

## 4. MATERIALA ETA METODOA

---

**4.1 Taula.** Azterlan honetarako egin behar ziren gastu guztien zenbatespena.

MATERIALA	KOPURUA	PREZIOA
Glutaraldehidoa (% 2)	1	14,33 €
Ontzia desinfektatzeko likidorako	1	1,00 €
Gainazalen desinfektatzailea	1	10,95 €
Esploraziorako ispilu lauak	15	120,00 €
Esploraziorako IPC zundak	15	300,00 €
Pintzak	15	101,25 €
Kotoia	KAIXA 1	5,50 €
Paperezko ahozapiak	3 PAKETE	3,00 €
Ahozapiak eramatekoak	1	1,00 €
Gainazalak estaltzeko oihalak	100	11,00 €
Edalontziak	100	8,75 €
Eskularruak	3 KAXA	21,69 €
Maskarak	3 KAXA	23,85 €
Gazak	100 GAZAKO 2 PAKETE	4,00 €
Boligrafoa, arkatza eta borragoma	1 UNITATE	3,50 €
TEST IN VITRO GC SALIVA CHECK KIT	5 UNITATE	404,10 €
pH zinta errektiboak, parafinazko piezak		
Pipetak, listu-fluxua biltzeko hodiak	5X20=100 U	
Tanpoi gaitasuna duten zintak		
Argazki-kamera + ispiluak	1 UNITATE	0,00 €
Inprimakiak eta baimenak	150 KOPIA	45,50 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.079,42 €</b>

**4.2 Taula.** Haurren astmaren larritasunaren sailkapena. FEV1: arnasa botatzeko bolumen behartua lehen segundoan; PEF: arnasa botatzeko fluxu gorena. SABA: agonista 1. ekintzaldi luzeko adrenergikoa (iturria: asma kudeatzeko Espainiako gida, 2016, 56. or., egokitua).

	Aldian beldungoak	Gertuketai sarratik	Iraunkor moderatua	Iraunkor larria
Gertuketakidak Krisi arteko sintomak Sibilantziak Gaueko sintomak Aritzindeko medikazioa (SABA)	Ordu edo egun gutxiago 10-12. astean behin Geltienez, 4,5 krisi/furi/Bat haino gutxiago 5-6 astean behin Geltienez, 6-8 krisi/furi Asintomatikoa, ondo toleratzen du arketak Ahalgina handikin Astean 2. gau edo gutxiago Astean 2. gau edo gutxiago	Asintomatikoa Ahalgina handikin Astean 2. gau edo gutxiago Astean 2. gau edo gutxiago	Bat haino gehiago 4-5 astean behin: Atnak Ahalgina moderatua Astean 2. gau edo gutxiago Astean 2. gau edo gutxiago	Sarrak Sarrak Ahalgina xubiekin Astean 2. gau behin gehiago Astean 2. gau behin % 70tik gorako eta % 20tik gorako eta % 30tik behira % 70tik behira % 30tik gorako eta % 80tik gorako eta % 20tik behira
Brirketa funtzioa FEV1 PEFen aldaera		% 80tik gorako eta % 20tik behira	% 70tik gorako eta % 20tik behira % 20tik gorako eta % 30tik behira % 70tik behira % 30tik gorako eta % 80tik gorako eta % 20tik behira % 20tik gorako eta % 30tik behira % 70tik behira % 30tik gorako eta % 80tik gorako eta % 20tik behira	

## **4. MATERIALA ETA METODOA**

---

zitezen, beste medikamenturen batekin iraganean edo gaur egun kontaktuan dauden haurrak baztertu ziren.

Irizpide horiek guztiak betetzen zituzten haurren gurasoei azterlanean parte hartu nahi al zuten edo ez galdeitu zitzaien. Gurasoen edo tutoreen baimena ezinbestekoa izan zen, eta beraz, prestatutako lagina komenientziakoa izan da.

### **4.6.2 Laginaren Tamaina**

Laginaren tamaina kalkulatzeko, McDerra et al. (1998) egileen lana hartu zen kontuan; harten, kortikoide inhalatuekiko esposizioa duten haurrek txantxarrak izateko arriskuaren koefizientea 2,78 zela finkatu zen, horrelako esposizioa ez duten haurren aldean. Horrelako alde bat antzemateko, alfa errorea % 5 eta beta errorea % 20koa izanik, taldeko 39 pertsona behar zirela jo zuten. Azterlana asma zuten 45 haurrekinz (AT) eta asma ez zuten 45 haur osasuntsuekin (AGT) egin zen.(196) .

### **4.6.3 Laginaren Deskribapena**

Azterlana Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko pediatria zerbitzuko haurren pneumologiako kontsultan egin zen, Bilbo hiriko izen bereko auzoan.

Azterlan honetan, asma duten 45 haurrek hartu dute parte, 6 eta 14 urte bitartekoek; de-nak joaten dira Basurtuko Ospitaleko pediatria zerbitzuko haurren pneumologiako kontsulta-ra. Kontrol-taldeko lagina 45 haur osasuntsuk osatzen dute, adina, sexua eta jaioterria aintzat hartuta parekatu direnek. Lagin hori osatzeko, Bilbo Basurtu Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) zenbait zentrotako osasun-kontrolak baliatu ziren; asma duten haurrak ere toki berekoak dira. Hala, asma duten haurren azterketetako gidalerro berak erabili ziren. Laginaren tamaina 90 haurrek osatzen dute. Hasiera batean, 100 pazientez osatutako lagina lortu zen, baina 7 azterketa kontrol-taldetik baztertu ziren, aldian behin asma-gertakariren bat edo errinitis alergikoa izan zutelako, eta beraz, medikamentua hartu zutelako edo noizean behin hartzen zutelako. Asma zuten haurren taldean, 3 azterketa baztertu ziren, gibel esofago-errefluxu arazoak direla eta.

Aukeratu den adin-tartea 6 urtetik 14 urterra artekoa da, gure emaitzak EAEko hirugarren azterlan epidemiologikoarekin alderatzeko. Halaber, OMEk gomendatzen du bosgarren eta seigarren urtebetetzeen artean dauden haurrak hartza erreferentziatzat behin-behineko hortzetako txantxar-maila aztertzeko. Adin hori interesgarria da behin-behineko hortzeten denbora-tarte laburragoetan gerta daitezkeelako aldaketak, beste adin adierazle batzuetan baino. Nazioarteko alderaketetan, OMEk 12 urteko adina hautatu du txantxarrak zaintzeko adin global gisa, gaixotasunaren joerak ere zaintzeko. Izan ere, adin horretan hortz iraunkor guztiak atera dira, hirugarren haginak izan ezik. Hala ere, OMEren arabera, haurrek 15 urte dituztenetako, behin betiko piezek 3 eta 9 urte bitarteko aho-ingurunearekiko esposizioa dute jada, eta txantxarren prebalentziaren ebaluazioa adierazgarriagoa izan ohi da 12 urteko adinean baino(31).

## **4.7 Izaera Eta Datu-Bilketa**

Azterlanean, inuesta estandarizatua eta azterketa klinikoa bildu dira. EAEko hiru azterlan epidemiologikoetan bezala (1998,1998 eta 2008), Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) gomendioei jarraitu zaie une oro, eta metodologia erabat errespetatu da (31).

Isuririk ez sortzeko, inkestatailearen eskuliburu prestatu zen, eta hartan, irizpide diagnostiko guztiak, azterlaneko atal guztiak betetzeko gidalerroak, kodeak eta azalpenak jaso ziren. Eskuliburu hori, datu-bilketa eta ondorengo azterketa errazteaz gain, azterlan berriak egiteko tresna garrantzitsua izan daiteke.

## **4.8 Irispide Diagnostikoak**

Azterlanean, azterketa kliniko bat egin da, eta hartan, subjektu bakoitzaren ahoko esplorazioaren datuak eta informazio orokorra bildu ziren, ahoko osasunari buruzko OMEren ebaluazio-inprimakiaren bitarbez. Atal klinikoa osatzeko, listua aztertu zen eta aho bidezko arnasketaren diagnostiko klinikoa egin zen.

Datu klinikoez gain, historia medikoa eta inuesta estandarizatua ere prestatu ziren, CAO-D/caod indizeen aldaketa faktore posibileak aztertzeko datuak modu simplean biltze alde-

## **4. MATERIALA ETA METODOA**

---

ra.Inkesta egiteko, haurren eta nerabeen ahoko osasunari buruzko OMEren WHO 2013 galdetegi egituratua erabili zen (33), baita gure azterlaneko aldagai espezifikoak ere.

OMEk nabarmenzeko du galdetegiak jarduera independente baten moduan egin daitzkeela (1. urratsa), edo ahoko osasunaren azterlan kliniko batekin konbinatuta (2. urratza). Halaber, OMEren arabera, inkesta konbinatuak eginez gero —azterlan honetan bezala—, datuek aukera eman dezakete arrisku-faktoreen ahoko osasuneko inpaktua aztertzeko; edonola ere, horrela joka daiteke baldin eta identifikazio-kode berdin-berdinak erabiltzen badira bi inkestetan, eta galdeategia informazio klinikoa bildu aurretik banatzen bada (33). Hori dela eta, arrisku-faktoreen inpaktua ebaluatu ahal izateko, hasiera batean ahoko osasunari buruzko galdeategia bete zen datu medikoekin eta informazio orokorrarekin batera, eta amaieran, azterketa klinikoak egin ziren hortzen osasuna ebaluatzen.

### **Ahoko Osasunari Buruzko Elkarrizketa/Galdetegi Estandarizatua**

Datuen bilketa sinplifikatua egiteko, haurren eta nerabeen ahoko osasunari buruzko OMEren galdetegi egituratua hartu zen kontuan (33) .Galdetegi hori 4. eranskinean jaso da. Galdera hauek atera ziren inkesta horretatik: 3. galdera, hortzen eta oien egoeraren autoebaluazioari buruz; 4. galdera, minari eta ondoezari buruz, hortzen harira; 5. eta 6. galderak, dentistaren-ganako bisita-kopuruari eta bisitaren arrazoiari buruz; 13. galdera, ohitura dietetikoei buruz (elikagai eta edari azukredunen kontsumoa); 7. galdera, hertz-garbiketaren maiztasunari buruz; 9. galdera, fluoruroa duen hortzetalako pastaren erabilerari buruz; eta 11. eta 12. galderak, gurasoen maila sozioekonomikoari buruz. Atal hori osatze aldera, gure azterlaneko lau galdeera espezifiko gehitu ziren: fluoruroarekiko ingurumen-esposizioa, amagandiko edoskitzea eta iraupena, senideen aurrekariak ahoko osasunaren harira, eta ahoa urez garbitzea medikamentua hartu ondoren. Galdetegiaren helburua datu-bilketa gidatzea zen, eta horrez gain, arreta ipini nahi izan zen, gizarte- eta ingurumen-faktoreetan eta alda daitezkeen ahoko osasunerako arrisku-faktoreetan.

OMEren arabera, inkestari erantzuten dieten pertsonen aurrekariak kontuan hartuz, ger- ta daiteke elkarrizketagileak galdetegiak bete ahal izatea edo modu autonomoan betetzea. OMEren iritziz, 12 urteko haurrak eta nerabeak gai dira inkesta modu autonomoan egiteko;

### 4.3 Taula. Azterlanean erabilitako prozedura analitikoen ikuspegi orokorra jaso da.

ALDAGAIAK	METODO DIAGNOSTIKOA	NORK ERREGISTRATUA ETA BALIOZKOTUA
<b>1. ELKARRIZKETA / AHOKO OSASUNARI BURUZKO GALDETEGI ESTANDARIZATUA</b>		
Faktore sozioekonomikoak, lanbidea eta hezkuntza-maila	Ahoko osasunari buruzko inkesta haurrentzat eta nerabeentzat, OME, 2013	A. Abaitua
Immigrazio-aurrekariak	Inkesta estandarizatua	A. Abaitua
Elikagai eta edari azukredunen kontsumoa	Ahoko osasunari buruzko inkesta haurrentzat eta nerabeentzat, OME, 2013	A. Abaitua
Hortz-garbiketaren maiztasuna	Ahoko osasunari buruzko inkesta haurrentzat eta nerabeentzat, OME, 2013	A. Abaitua
Fluoruroa duen hortzetaarako pastaren erabilera	Ahoko osasunari buruzko inkesta haurrentzat eta nerabeentzat, OME, 2013	A. Abaitua
Hornidura publikoko uraren kontsumoa	Inkesta estandarizatua	A. Abaitua
Hortzen eta oien egoeraren autoebaluazioa	Inkesta estandarizatua	A. Abaitua
Mina eta ondoezta	Inkesta estandarizatua	A. Abaitua
Dentistarenganako bisita-kopurua urtean, eta arrazoia	Inkesta estandarizatua	A. Abaitua
Senideen aurrekariak ahoko osasuna dela eta	Inkesta estandarizatua	A. Abaitua
Amagandiko edoskitzea	Inkesta estandarizatua	A. Abaitua
<b>2. HISTORIA MEDIKOA</b>		
Medikamentua hartu ondoren, ahoa urez garbitzea	Inkesta estandarizatua	A. Abaitua
Aurrekari medikoak	Inkesta estandarizatua	Elorz dk. eta A. Abaitua
Inhalatzeko sistema	Inkesta estandarizatua	Elorz dk.
Esposizio-aldia	Inkesta estandarizatua	Elorz dk.
Unean uneko dosia	Inkesta estandarizatua	Elorz dk.
Medikamentua hartzeko unea	Inkesta estandarizatua	Elorz dk.
Molekula-mota	Inkesta estandarizatua	Elorz dk.
<b>ASMAREN LARRITASUNA</b>		
<b>3. AZTERKETA KLINIKOA</b>		
<b>3.1 Ahoko eta hortzetako osasuna ebaluatzeko OMERen imprimakia</b>		
Informazio orokorra	OME 1997 irizpidea	A. Abaitua
Alterazioak edo opakutasuna esmaltean	EEAEko 3. azterlan epidemiologikoa	A. Abaitua
Hortzen egoera	OME 1997 irizpidea	A. Abaitua
<b>3.2. Aho bidezko arnasketa</b>		
<b>3.3. Listuaren aterketa</b>		
Estimulatu gabeko listua	test in vitro GC Saliva Check Kit	A. Abaitua
Estimulatutako listu kantitatea	test in vitro GC Saliva Check Kit	A. Abaitua
Estimulatu gabeko listuaren pH-a	test in vitro GC Saliva Check Kit	A. Abaitua
Tanpoi gaitasuna	test in vitro GC Saliva Check Kit	A. Abaitua

## **4. MATERIALA ETA METODOA**

---

haur txikienden datuak biltzeko, ordea, gurasoek ere parte hartu behar dute. Ahoko osasunari buruzko galdeketa galdera estandarizatuz osatuta dagoenez, elkarriketagileak ez du zertain odontologiaren arloan jardun. Gure kasuan, galdera estandarizatuak haurrak aurrean egonda egin ziren, eta gurasoen laguntzaz. Datuak azterzaile nagusiak bildu zituen, A. Abaituak.

Gurasoen maila sozioekonomikoa aztertzeko, ahoko osasunari buruzko OMEren galdelegiko 12. galdera erabili zen. Galdera horretan, gurasoek zehaztu behar zuten zer hezkuntzamailatara arte eginak zitzuten ikasketa akademikoak. Hortzen eta oien egoeraren autoevaluazioa egiteko, OMEren galdetegiko 3. galdera erabili zen. Honela ebaluatu zen horien egoera: bikaina, oso ona, ona, erdi-mailakoa, eskasa eta oso eskasa. Hortzetako mina eta ondoeza aztertzeko, OMEren galdetegiko 4. galdera erabili zen. Azken hamabi hilabeteetan hortzetako mina izan duten maiztasuna jaso zen, eskala hau erabiliz: maiz, aldian behin, aldi bakanetan eta inoiz ez.

OMEren 5. eta 6. galderen bidez, dentistareenganako bisita-kopurua urtean eta bisita egiteko arrazoia jaso ziren. Urtean eginiko bisita-kopurua kode hauei jarraituz aztertu zen: behin, bitan, hirutan, lautan, lautan baino gehiagotan, dentistareanganako bisitarik ez azken hamabi hilabeteotan, ez dut inoiz jaso hortzeturako arretatik / ez naiz inoiz dentista batengana joan, eta ez dakit / ez naiz gogoratzen. Hortzen arloko arreta jaso zutenei galdu zitzaien zergatik joan ziren dentistarengana. Gurasoek aukera hauetako bat aukeratu behar zuten: mina edo hortzetako, oietako edo ahoko arazoak, jarraipen-tratamendua, hortzak aztertzeko ohitura eta ez dakit / ez naiz gogoratzen.

Asma zuten pazienteen ohitura dietetikoak aztertu eta paziente osasuntsuenekin alderatzeko, OMEren galdetegiko 13. galdera erabili zen. Edari eta elikagai azukredunen kontsumoa aztertzeko parte hartu zuten haurren artean, produktu-zerrenda bat eman eta bertako produktuak zer maiztasunarekin (kantitate txikiak izanik ere) hartzen zitzuten galdu zitzaien (gurasoak aurrean egonda). Kontsumoa OMEk emandako eskala erabiliz kuantifikatu zen: egunean zenbait aldiz, astean zenbait aldiz, hilean behin eta inoiz ez. Honako elikagai hauek jaso ziren zerrendan: fruta freskoa, gaietak, pastelak, krema, tarta gozoak, opilak...; edari kariogenikoak: limonada, Coca Cola, freskagarriak; zukuak (naturala eta brikekoa); esne kondentsatua,

eztia; txikle azukredunak; gozokiak, karameluak, litxarreriak; esnea azukrearekin edo kakaoarekin eta tea azukrearekin.

Aztertzen ari garen biztanleriak hortzak zenbateko maiztasunaz garbitzen dituen jakiteko, OMERen 7. galdera erabili zen. Paziente bakoitzak eskala honen bidez ebaluatu zuen bere hortzetako higienea: inoiz ez, hilean zenbait aldiz (2-3 aldiz), astean behin, astean zenbait aldiz (2-6 aldiz), egunean behin, eta egunean bitan edo gehiagotan.

Asma zuten taldeko haurren eta kontrol-taldekoen fluoruroekiko esposizioa alderatzeko, bi galdera gehitu ziren galdetegian. Lehenik, pazienteei galdu zitzaien ea erabiltzen zuten pastak fluorra zuen ala ez, fluorurokin harremana ba ote zuten jakiteko. Bigarrenik, fluorurrekiko ingurumen-esposizioa azterzeko, gurasoei galdu zitzaien ea haurrek hornidura publikoko ura hartzen zuten ala ez.

Inkesta egin zitzaien haurren ahoko osasunaren aurrekariak ezagutzeko, gurasoei edo tutoreei beren ahoko aurrekariei buruz galdu zitzaien. Ahoko osasuna ontzat, txartzat edo oso txartzat jo zuten. Aitaren, amaren edo legezko tutoreen ahoko osasunaren egoera idatziz jaso zen.

Orobat, haurrek amagandiko edoskitzea hartu zuten ala ez idatziz jaso zen; hartu zutenen artean, iraupena ere jaso zen, urtetan adierazita. Biberoiak gaez hartu zitzuten ala ez ere erregistratu zen.

Galdetegiko azken galdera asma zuten haurrei bakarrik egin zitzaien; horren helburua zen asmarako medikamentua hartu ondoren ahoa urez garbitzen edo eskuilatzen ote zuten ala ez jakitea.

### **Historia Medikoa**

Asma zuten haurren kasuan, Elorz doktoreak bete zuen historia medikoa (2. eranskina), eta paziente osasuntsuen kasuan, inkestatzaile nagusiak, Ainhara Abaituak. Historia medikoa jaso ahal izateko, ezinbestekoa izan zen gurasoak edo tutoreak bertan egotea. Batez ere asma ez zuten pazienteen kasuan, halakoetan ezin baitzen haien historial medikoa eskuratu, asma zuten pazienteen kasuan ez bezala.

## **4. MATERIALA ETA METODOA**

---

Hona hemen bi taldeetan bildutako datuak: gaixotasun orokorrak, ebakuntza kirurgikoak, zer medikamentu hartu zituzten iraganean eta zein hartzen ari ziren une horretan.

Gaixotasun orokoren harira, subjektuak gaixotasun sistemikorik zuen ala ez jaso zen idatziz (asma zuten haurren kasuan, beste gaixotasunen bat, asmaz gain). Gaixotasuna zehaztu zen, azterketa egiteko kontraindikaziorik ba ote zegoen aztertze aldera.

Amari/aitari galdetu ostean, historial medikoan egiaztatu zen ea pazienteari ebakuntza kirurgikorik egin zitzaison edo ez. Prozedura kirurgikoa ere idatziz jaso zen.

Une horretako edo iraganeko medikamentuaren presentzia aztertzeko, historial medikoa begiratu zen eta gurasoek edo tutoreek adierazi zuten ea haurrek medikamenturen bat hartzen ari ziren. Asma zuten haurren kasuan, asma ez zen beste gaixotasunetarako eman ez zen medikamentua soilik jaso zen. Medikamentu hori azterlanetik baztertzeko faktore bat ote zen egiaztatu zen.

Asma zuten pazienteen kasuan, beste galdera batzuk egin ziren asmaren larritasunari buruz, baita medikamentuekin lotutako galderak ere.

Elorz doktoreak asmaren larritasuna zehaztu zuen; horretarako, eta GEMA 2015 irizpideei jarraituz, asma larria eta asma moderatua kategoriak erabili zituen (107) .

Tratamendu jarraitua hasi zenetik aurrera, medikamentuekiko esposizioak zenbat iraun duen erregistratu zen, urtetan adierazita (azterlaneko partaide guztiak medikazio jarraitua hartzen zuten, kontrakoa azterlanetik baztertzeko irizpide bat zen eta).Medikazioa hartzen zuten momentua ere batu zen (goizez,goiz eta gauez, eta gauez bakarrik)

Paciente bakoitzaren medikazioa egiaztatzean, molekula-mota erregistratu zen (fluticasona, beclometasona, budesonida, salmeterol + fluticasona, formoterol + budesonida, vilanterol + fluticasona, tiotropio bromuroa), eta une horretan hartzen ari zen dosi OSOA idatziz jaso zen, mcg-tan adierazita baita inhalazio sistema ere (DPI/MPI)

### Ahoko Osasuna Ebaluatzeako Inprimakia

- **Informazio Orokorra**

Ahoko eta hortzetako osasuna ebaluatzeako OMeren inprimakiak (1. eranskina) inuesta egiten zaien pertsonen ahoko osasunaren egoera ezagutzeko behar den informazio guztia biltzea du helburu. Hona hemen inprimakiko atalak: inuesta identifikatzeko informazioa, data, laginketa-puntu, inuesta egin zaion pertsonari buruzko informazio orokorra (adina, sexua, izen-abizenak), eta gurasoei edo tutoreei buruzko informazioa.

Informazio orokorreko atalaz gain, borondatezko baimen bat ere txertatu zen; harten, gurasoek onartzen zuten Osakidetzako familia-historian jasota dauden datu pertsonalak erabiltzea, informazio-fluxua zuzenagoa izan zedin. Hartara, daturen bat faltaz gero edo inkongruentziarik edo akatsik egonez gero, erraz konpon liteke. Halaber, aditzera eman zitzaien azterlana amaitutakoan haietkin harremanetan jarriko ginela, gurasoei eta haurrei emaitzak azaltzeko hitzaldi batera gonbidatzeko eta behar diren neurri prebentibo guztien berri emateko.

- **Hortzeriaren Egoera**

Aho-hortzetako osasuna ebaluatzeako OMeren inprimaki normalizatuan hortzeriaren egoerari buruzko datu klinikoak biltzeko beste atal bat dago (1. eranskina). Datu klinikoak biltzeko, OMeren gidalerroak erabili ziren une oro, EAEko hiru azterketa epidemiologikoetan bezala (31). Datuak biltzeko, EAEko hirugarren azterketa epidemiologikoko ebaluazio-inprimaki bera erabili zen(36). OMeko azterzaileek darabilten inkestatzalearen eskuliburuan kontsulta egin zen, fitxa klinikoa betetzean akats metodologikorik ez egiteko. Hortzeriaren egoerari buruzko datuak odontograma baten moduan bete ziren. Behin-behineko hortzak eta hortz iraunkorrik bereizteko, behin-behineko hortzeriarekin kode alfabetikoak erabili ziren, eta hortzeria iraunkorrarekin, ordea, zenbakizko kodeak.

Hortzeriaren egoera eta esmaltearen alterazioak ebaluatzeko, prozedura sistematiko bat erabili zen. Azterketa modu ordenatuan egin zen, kasuan kasu zeuden pieza guzti-

## **4. MATERIALA ETA METODOA**

---

guztien egoera idatziz jasotzeko. Hertz jakin bat bazegoela jo zen haren edozein zati ahoan ikusten bazen (1. e-ranskina).

HORTZETAKO TXANTXARRAK OMeren irizpideei jarraituz diagnostikatu ziren, hala behin betiko hortzerian nola hortzeria iraunkorrean. Hortzetako txantxarrak diagnostikatzeko, ispilu lau bat eta OMeren esplorazio-zunda erabili ziren. Hertz jakin bat osasuntsutzat jo zen txantxar-zantzurik ez bazuen eta obturatuta ez bazegoen. Txantxar-lesio hasiberriak ez ziren txantxartzat jo, ezin izan baitziren modu fidagarrian diagnostikatu. Txantxarra bazegoela erregistratu zen hobia, fisura edo horma lau batean hondo zuria edo barrunbe nahasezina edo esmalte zulatua baldin bazegoen. Hortzetan behin-behineko obturazioak baldin bazeuden (zementu edo antzekoren bat), txantxarra zegoe-la jo zen. Zentzuzko zalantza sortuz gero, hortza osasuntsutzat jo zen. IPC zunda erabili zen gainazal oklusalean, ahoan eta mihan ikusitako txantxar-zantuak berresteko.

Irizpide positiborik egon ezean, koroak osasuntsutzat jo ziren nahiz eta zantu hauek izan: orban zuriak edo igeltsu-itxurakoak, zimurdurak edo kolorazio-orbanak, zunda metalikoarekin ukitzean bigunak ez zirenak; hobia edo fisura koloredunak, non OMeren zunda katigatzen baita, baina begiz esploratzean esmaltean alteraziorik ez dutenak, eta OMeren zundarekin antzeman daitekeen lurzoru edo horma bigunik; orban ilunak, dirdaitsuak, puntu-formakoak, eta erretzearen ondoriozko lesiorik. Hertz osasuntsuak historia klinikoan adierazteko, O kodea erabili zen hortzeria iraunkorrerako, eta (A) kodea behin-behineko hortzeriarako.

Hertz jakin bat txantxardun hertz obturatutzat jo zen baldin eta obturazio bat edo gehiago edota txantxarrak jotako eremu bat edo gehiago bazuen. Ez ziren txantxar primarioak (loturarik ez obturazioarekin) eta sekundarioak (lotura obturazioarekin) bereizi.

Txantxarrik gabeko hertz obturatutzat jo ziren obturazio bat edo gehiago zituzten eta txantxar primariorik edo sekundariorik ez zuten hertzak.

Txantxarrerako tratamendua dela-eta koroa zuten hertzak kategoria horretan sartu ziren. EAEko hiru azterlan epidemiologikoan bezala , 7 urteko haurren artean, behin-behineko

letaginen eta haginen falta soilik zenbatu zen, eta 12 nahiz 14 urtekoen artean, ez zen aintzat hartu behin-behineko hortzak ez egotea.

### **Aho Bidezko Arnasketa**

Hortzen egoerari buruzko datuez gain, aho bidezko arnasketaren diagnostikoa egiteko atala ere prestatu zen, jakiteko ea asma zuten pazienteek asmarik gabekoek baino hein handiagoan hartzen zuten arnasa aho bidez, eta hori hortzeten txantxarrak sortzeko arrisku-faktorea ote den egiazatzeko.

Aho bidezko arnasketaren diagnostiko klinikoa honako alderdi hauen konbinazio gisa definitu zen: zurrunga, ahoa irekita dagoela lo egitea, burkoan lerdea jariatzea, sudurra maiz eta aldizka buxatzea, eta diagnostiko nahasia aho bidezko BSE (belarria, sudurra eta eztarria) arnasketaren nagusitasunari buruz (231).

### **Alterazioak Edo Opakutasunak Esmaltean**

Esmaltean alterazioak edo opakutasunak ba ote zeuden aztertzeko, EAEko 2008ko hirugarren azterketako sistematika bera erabili zen.

Esmaltekо alterazioak begi bidez aztertu ziren, eta plaka-hondar guztiak gaza bat erabiliz kendu ziren, hortza heze egonda. Hortzetako koroa osoa aztertu behar izan zen, ebakortzen ebakitze aldeetatik edo haginen gailurretik hortzoien mugaino. Zulo hipoplasikoak zeudela berresteko, OMEren zunda periodontikoa erabili zen(36).

Esmaltekо anomaliak bost motatan sailkatu ziren, itxura eta kolorea oinarri hartuta: puntu zuriak, orban zuriak, orban koloredunak, lerro zuriak, eta anomaliarik ez. Zabalera, hortzetako gainazaleko kokapena eta hortzetako arkuan duten banaketa alda daitezke. Hori dela eta, aho-barrunbeko banaketa aintzat hartu zen (simetrikoa edo asimetrikoa)..

OMEk esmaltearen hipoplasiak aztertzeko deskribatu dituen irizpideak eta gakoak erabili ziren. Hipoplasiatzat jo ziren esmaltearen gainazalari eragiten dioten akatsak, gainazalaren lodiera txikiagoarekin lotuta daudenak. Zulo moduan ere ager daitezke: bakar bat edo gehiago,

## **4. MATERIALA ETA METODOA**

---

lauak edo sakonak, sakabanatuta edo lerro horizontaletan kokatuta hortzetako gainazalean zehar(31).

### **Listuaren Azterketa**

Listua aztertzeko, 3. eranskinoko inprimakia erabili zen. Halaber, listua GC Saliva Check Kit in vitro testaren bidez aztertu zen (GC Corp., Belgika), listuaren parametro klinikoei erreparatzeko; besteak beste, hauei: hidratazio-maila, estimulatu gabeko listuaren biskositatea, pH-a atsedenaldian, estimulatutako listuaren bolumena, eta moteltzeko gaitasuna. Test soil horri esker, aldagai horiek neurtu eta listuaren alterazioak ikertu ziren bi taldetan, kabinetean bertan (232).

Fabrikatzailaren argibideei une oro jarraitu zitzaien. Listuaren laginak 11:00etatik 13:30era bitartean hartu ziren erritmo zirkadianoek eragindako aldaketak murrizteko; estimulatutako listuan parafina erabili zen (172).

- **Estimulatu gabeko listua**

Estimulatu GABEKO listuaren fluxua begi bidez neurtu zen, listu-tanta batek eratzeko zenbat denbora behar duen ikusita, beheko ezpainekeko listu-guruin txikietan. Horretarako, ezpainearen barrualdea arretaz lehortu zen kotoi-zati batekin, eta argi egokia era-biliz, listua ezpainekeko mukosako listu-guruinen zuloetan nola eratzen den aztertu zen. Listuaren eraketa ikusgaiak zenbat iraun zuen aztertu eta kodetu zen fabrikatzailearen argibideei jarraituz. Listuaren trinkotasuna ere begi bidez aztertu zen aho-barrunbea, fabrikatzailearen argibideei jarraituz.

Estimulatu gabeko listuaren pH-a neurtzeko, listua ahoaren lurzoruan pilatzeko eskatu zitzaien subjektuei, eta gero, biltzeko ontzian botatzeko eskatu zitzaien, 30 segundoz. pH zerrenda bat listuan murgildu zen 10 segundoz, eta amaieran zuen kolorea pH-aren balioa jotszeko erabili zen. Zerrendaren kolorea GC Saliva Check Kit (GC Corp., Belgika) testeko pH taulan jasotakoarekin alderatu zen.

- **Estimulatutako listua**

Subjektuen listuaren jariakortasuna estimulatzeko, parafina eman zitzaien, murtxika ze-zaten. Parafina 30 segundoz murtxikatu ondoren, pazienteei eskatu zitzaien sortutako listua tarte erregularretan bota zezatela neurtzeko ontzian, 5 minutuan zehar. Sortutako listu bolumena kalkulatzeko, ontziaren alde bateko mL markari erreparatu zitzaison.

- **Tanpoi gaitasuna**

Estimulatutako listuaren bolumena neurtzeko ontzian, han bildutako listuaren hiru tanta hartu ziren pipetaz, eta horietako bakoitza testaren kuxin batean ipini zen. Berehala, 90° biratu zen, soberakinak paper xurgatzairearekin kentzeko. Izan ere, fabrikatzaileak hori gomendatzen du, soberakina testaren kuxinean ez pilatzeko eta ondorioari ez eragiteko. Hartara, bi minutu igarotakoan, kolore-alda-keta aztertu eta tanpoi gaitasunaren puntu-kopurua bilatu zen kiteko bihurketa-taulan.

## **4. MATERIALA ETA METODOA**

---

### **CAOD/caod Indizea**

Behin betiko hortzeriaren eta behin-behineko hortzeriaren txantxar-indizea OMEren gida-llerrei jarraituz kalkulatu zen. Behin betiko hortzeriaren (CAOD) txantxar-indizea kalkulatzeko, batuketa egin zen txantxarra zuten hertz-kopu-ruaren (c), txantxarra dela-eta falta diren hertz-kopuruaren (a) eta hertz obturatu kopuruaren (o) artean, eta lortutako zenbaki hori, aztertutako norbanako-kopuruarekin zatitu zen, ikertu beharreko aldagaiaren arabera. Behin-behineko hortzeriaren kasuan (caod), batuketa egin zen txantxarra zuten behin-behineko hertz-kopuruaren (c) eta hertz obturatu kopuruaren (o) artean; hortzen falta ez zen aintzat hartu, hertzak erauzi izanaren edo esfoliazio fisiologikoaren ondorio izan zitekeelako (33).

Hala behin betiko hortzeriarako nola behin-behineko hortzeriarako, caod eta CAOD indizeak erabili ziren haurren asma moderatua eta larria, modu jarraituan tratatzen dena, hortzeta-ko txantxarrak sortzeko aurrez bultzatzen duen faktore bat ote den jakiteko. CAOD indizearen bidez, asma zuten haurren ahoko osasuna eta haur osasuntsuena (kontrol-taldea) alderatu zen, baita EAEko hirugarren azterketa epidemiologikoarekin eta ahoko osasunari buruzko Espainiako estatuko azken azterketarekin. EAEko hirugarren azterketa epidemiologikoan, ahoko osasunari buruzko Espainiako estatuko 2015eko azterketan eta gure azterketan, OMEren iriz-pideei jarraitu zaie une oro, eta beraz, datuak CAOD indizea erabiliz alderatu ahal izan dira.

CAO indizea hertz-unitatearekin (CAOD) edo hertzaren gainazal-unitatea-rekin (CAOS) erabil daiteke. Guk CAOD eta caod indizea erabili dugu (OMEk hori aukeratzen bait du landa-azterketetarako), ez baita hortzen gainazala aintzat hartu ikerketa honetan. CAO 0/cao 0 indizea ere erabili da, txantxarrik gabeko pertsona-kopurua adierazteko

### **4.9 Datuak Bat Etortzea Eta Erreproduzigarraitasuna**

Parte-hartzaleen miaketa eta elkarrizketa guztiak pertsona berak egin zituen, akats metodologikorik ez gertatzeko.

### 4.9.1 Analisi Estatistikoa

#### 4.9.1.1 Informazioa prozesatzea

Datuak biltzeko fitxak prozesatzeko, zenbati kontrol automatizatu erabili ziren, bateraezinak diren kode jakin batzuk sartzea eragozten zutenak. Neurri horiez gain, informatizatutako fitxen % 100 zuzenean kontrolatu da, tabulazio-akats posibleak antzemateko.

#### 4.9.1.2 Analisi estatistikoak

Analisi estatistikoan, honako metodo hauek erabili dira:

- Estatistika deskribatzailea: aldagai jarraituak deskribatzeko, batezbesteko aritmetikoak eta desbideratze estandarrak erabili ziren; aldagai kategorikoak deskribatzeko, aldiz, maiztasun absolutuak eta ehunekoak erabili ziren kategoria bakoitzean.
- Estatistika inferentziala: aldagai kategorikoetarako, khi-karratu proba erabili zen taldeen arteko aldeak aztertzeko (233), zenbait kategoriatan, ordea, kasu-kopurua bostetik beherakoa zela egiaztatu zen, eta halakoetan Fisherren test zehatza erabili zen (234). Aldagai jarraituak arruntak zirela egiaztatzeko, Andersonen eta Darlingen testa erabili zen (235); arruntak ziren aldagai jarraiturekin, Studenten t testa erabili zen (236) taldeak alderatzeko. Aldagai jarraitua arrunta ez zen kasuetan, taldeen arteko aldeak Kruskal-Wallisen testaren bidez aztertu ziren (237). Aldagai jarraituen arteko erlazioa aztertzeko, Pearsonen korrelazio-koefizientea erabili zen (238).
- Grafikoak: lan honetan, hala box plot grafikoak (239) nola dispersio-diagramak erabilten dira (240).



KAPITULUA

# 5

## EMAITZAK

SAIL honetan ikerketa lanean lortutako emaitzak adierazten dira. Emaitza hauen bitartez, aurretiaz planteaturiko ikerketaren hipotesiari zein helburu orokor eta espezifikoek erantzuna ematen zaie.

### 5.1 Informazio basala

5.1 taulan, asmadunen ezaugarri basalak kontrol taldekoekin alderatu ziren, eta lortutako emaitzen arabera ez zen ezberdintasun estatistiko adierazgaririk aurkitu.

## 5. EMAITZAK

---

**5.1 Taula.** Ikerketako pazienteen informazio basala

Aldagaia	Kontrolak (n=45)	Asmadunak(n=45)	Estatistika	P balioa
<b>Adina</b>	9,42 (2,35)	9,84 (2,51)	T=-0,82	0.413
<b>Sexua</b>			$X^2 = 2,182$	0.1396
Emakumezkoa	25 (55,56 %)	18 (40 %)		
Gizonezkoa	20 (44,44 %)	27 (60 %)		
<b>Kokalekuoa</b>			$X^2=3,103$	0.0781
Landa-eremua	0 (0 %)	3 (6,67 %)		
Hiri-eremua	45 (100 %)	42 93,33 %)		

## 5.2 Aho-osasunari buruzko elkarrizketa-galdetegi estandarizatua

Aho-osasunari buruzko elkarrizketa-galdetegiak ez zuen ezberdintasun estatistiko adierazgarririk aurkitu talde bien artean gurasoen ikasketa mailari dagokionez (5.2)

**5.2 Taula.** Pazientearen gurasoen ikasketa maila.

Aldagaia	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)	Estatistika	P balioa
<b>Aita</b>			$X^2=0,423$	0.5156
Unibertsitate-ikasketarik ez	19 (42,22 %)	23 (51,11 %)		
Unibertsitate-ikasketak	24 (53,34 %)	22 (48,89 %)		
EE	2 (4,44 %)	0 (0 %)		
<b>Ama</b>			$X^2=0,403$	0.5254
Unibertsitate-ikasketarik ez	23 (51,11 %)	26 (57,78 %)		
Unibertsitate-ikasketak	22 (48,89 %)	19 (42,22 %)		

Azukredun elikagaien kontsumoari dagokionez, talde bien artean ez zen ezberdintasun estatistiko nabarmenik aurkitu frutaren kontsumoa; baina bai opilen kontsumoaren kasuan, non asmadunek egunean zehar kontrol taldekoek baino gehiagotan kontsumitzen zituzten.

Bi aldagai hauen emaitzak 5.3 taulan adierazten dira. Txantxarra sortzeko gaitasuna daukaten edari eta zukuen kasuan (5.4 taula) adierazgarritasun estatistiko bakarra edarien kontsumoarena da, non inoiz kontsumitzen ez dituzten umeen proportzioa bikoitzak den asmadun taldean (%44,44) kontrol taldearekin alderatuz.

## 5.2 Aho-osasunari buruzko elkarrizketa-galdetegi estandarizatua

---

**5.3 Taula.** Fruta eta opilen kontsumoa (Fisher-en test zehatza fruta kontsumoa aldagaiari dago-kionez eta opilen aldagaiari dagokionez).

Kontsumo maitzasuna	Fruta		Opilak	
	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)
Inoiz	0 (0 %)	2 (4,44 %)	0 (0 %)	6 (13,33 %)
Hilean behin	0 (0 %)	0 (0 %)	0 (0 %)	0 (0 %)
Hilero sarritan	0 (0 %)	0 (0 %)	6 (13,33 %)	3 (6,67 %)
Astero maiz	9 (20 %)	7 (15,56 %)	14 (31,11 %)	4 (8,88 %)
Egunero	15 (33,33 %)	17 (37,78 %)	21 (46,67 %)	30 (66,67 %)
Egunero maiz	21 (46,67 %)	19 (42,22 %)	4 (8,88 %)	2 (4,45 %)
EE	0 (0 %)	0 (0 %)	0 (0 %)	0 (0 %)

**5.4 Taula.** Azukredun edarien eta zukuen kontsumoa (Fisher-en test zehatza azukredun edariak aldagaiari dagokionez eta zukuen kontsumoari dagokionez).

Kontsumo maitzasuna	Azukredun edariak		Zukuak	
	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)
Inoiz	10 (22,22 %)	20 (44,44 %)	10 (22,22 %)	11 (24,44 %)
Hilean behin	11 (24,44 %)	0 (0 %)	3 (6,67 %)	4 (8,89 %)
Hilero sarritan	13 (28,9 %)	12 (26,67 %)	9 (20 %)	4 (8,89 %)
Astero maiz	9 (20 %)	7 (15,56 %)	3 (6,67 %)	6 (13,34 %)
Egunero	2 (4,44 %)	5 (11,11 %)	20 (44,44 %)	20 (44,44 %)
Egunero maiz	0 (0 %)	0 (0 %)	0 (0 %)	0 (0 %)
EE	0 (0 %)	1 (2,22 %)	0 (0 %)	0 (0 %)

Esne kondentsatua hartzen duten ume kopurua txikia da talde bietan, eta ez dago desberdintasun esanguratsurik talde bien artean (5.5).

## 5. EMAITZAK

---

**5.5 Taula.** Esne kondentsatuaren kontsumoa (Fisher-en test zehatza).

Kontsumo maiztasuna	Esne kondentsatua	
	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)
Inoiz	34 (75,56 %)	39 (86,68 %)
Hilean behin	3 (6,67 %)	4 (8,88 %)
Hilero sarritan	5 (11,11 %)	0 (0 %)
Astero maiz	1 (2,22 %)	0 (0 %)
Egunero	2 (4,44 %)	2 (4,44 %)
Egunero maiz	0 (0 %)	0 (0 %)
EE	0 (0 %)	0 (0 %)

Goxokien eta azukredun kakaoaren kontsumoari begira (5.6 taula) ez dago estatistikoki desberdintasun esanguratsurik talde bien artean, ezta azukredun tea edo kafearen kasuan (5.7 taula). Ikusi daitekeenez soilik 4 haurrek hartzen zuten tea, hauetako bik soilik noizean behin, eta beste biek egunero.

**5.6 Taula.** Azukredun kakaoaren kontsumoa (Fisher-en test zehatza).

Kontsumo maiztasuna	Goxokiak		Azukredun kakaoa	
	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)
Inoiz	2 (4,44 %)	2 (4,44 %)	2 (4,44 %)	2 (4,44 %)
Hilean behin	4 (8,89 %)	2 (4,44 %)	4 (8,89 %)	2 (4,44 %)
Hilero sarritan	24 (53,34 %)	34 (75,56 %)	24 (53,34 %)	34 (75,56 %)
Astero maiz	14 (31,11 %)	7 (15,56 %)	14 (31,11 %)	7 (15,56 %)
Egunero	1 (2,22 %)	0 (0 %)	1 (2,22 %)	0 (0 %)
Egunero maiz	0 (0 %)	0 (0 %)	0 (0 %)	0 (0 %)
EE	0 (0 %)	0 (0 %)	0 (0 %)	0 (0 %)

## 5.2 Aho-osasunari buruzko elkarrizketa-galdetegi estandarizatua

---

**5.7 Taula.** Azukredun kafearen eta tearen kontsumoa (Fisher-en test zehatza azukredun tea alda-gaiari dagokionez eta azukredun kafeari dagokionez)

Kontsumo maiztasuna	Azukredun tea		Azukredun kafea	
	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)
Inoiz	45 (100 %)	41 (91,12 %)	43 (95,56 %)	43 (95,56 %)
Hilean behin	0 (0 %)	0 (0 %)	0 (0 %)	0 (0 %)
Hilero sarritan	0 (0 %)	2 (4,44 %)	1 (2,22 %)	0 (0 %)
Astero maiz	0 (0 %)	0 (0 %)	0 (0 %)	0 (0 %)
Egunero	0 (0 %)	2 (4,44 %)	1 (2,22 %)	2 (4,44 %)
Egunero maiz	0 (0 %)	0 (0 %)	0 (0 %)	0 (0 %)
EE	0 (0 %)	0 (0 %)	0 (0 %)	0 (0 %)

Talde bien artean ez zen desberdintasun esanguratsurik aurkitu fluoraren esposizioari ezta fluordun uraren kontsumoari dagokionez (5.8 taula), ez eta fluordun hortzoreari (5.9 taula) eta eskulatzeko maiztasunari dagokionez ere (5.10 taula).

**5.8 Taula.** Fluordun uraren kontsumoa (Fisher-en test zehatza)

Fluordun ura	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)
Ez	2 (4,44 %)	1 (2,22 %)
Bai	43 (95,56 %)	44 (97,78 %)

**5.9 Taula.** Fluordun hortzorearen erabilera (Fisher-en test zehatza).

Fluordun hortzorea	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)
Ez	2 (4,44 %)	4 (8,89 %)
Bai	43 (95,56 %)	41 (91,11 %)

## 5. EMAITZAK

---

**5.10 Taula.** Eskuilatze maiztasuna (Fisher-en test zehatzza ).

Eskuilatze maiztasuna	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)
Astean behin	1 (2,22 %)	0 (0 %)
Astean sarritan	2 (4,44 %)	1 (2,22 %)
Egunean behin	12 (26,67 %)	13 (28,89 %)
Egunean bi aldiz edo +	30 (66,67 %)	31 (68,89 %)

Asmadunek zein kontrol taldeko haur gehienak ikerketaren aurreko azken hamabi hilabeteetan gutxienez behin joan ziren haginlariarengana (5.11 taula). Asmadunen kasuan, gehien-goa behin baino ez zen joan, eta kontrol taldearen gehiengoa ostera bi aldiz. Azken urtean lau baino ikustaldi gehiago egin zituzten umeak bost aldiz joan zirela suposatuz, kontrol taldean 2,58eko batezbestekoa lortuko genuke eta asmadunen taldean 1,53koa. Aldagai hau estatistikoki adierazgarria izan zen; hau da, haur asmadunen eta asma gabekoen haginlariarengana joandako maiztasuna desberdina dela baieztatu dezakegu. Beste aldagaien dagokienez (ikus-taldien zergatia, minaren frekuentzia, eta gurasoek zeukaten haurren hortz eta hortzoien buruzko pertzepzioa) ez zen desberdintasun estatistikoki esanguratsurik aurkitu.

Asmaren edoskitzeari dagokionez ezberdintasun estatistikoki esanguratsurik aurkitu ez zen arren (5.12. taula), asmadunen taldean inoiz jaso ez zuten haurren proportzioa handiagoa dela ikusi dezakegu (%26,67- %11,11). Kontrol taldeko edoskitze denboraren batezbestekoa altuagoa da asmadunena baino, era esanguratsuan.

Gurasoek beraien aho osasunari buruz zeukaten pertzepzioan ezberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu ziren (5.13 taula). Haur asmadunen amen aho osasunarekiko pertzepzioa negatiboagoa izan zen.

## 5.2 Aho-osasunari buruzko elkarrizketa-galdetegi estandarizatua

---

**5.11 Taula.** Haginlariarenan azken 12 hilabeteetako ikustaldi kopurua, haginetako mina eta hortz eta hortzoien osasunaren pertzepzioa.

Aldagaia	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)	Estatistika	P balioa
<b>Haginlariarenan azken 12 hilabeteetako ikustaldi kopurua</b>				0.0000113
Behin ere ez	1 (2,22 %)	1 (2,22 %)		
Behin	8 (17,18 %)	25 (55,56 %)		
Birritan	21 (46,67 %)	4 (8,89 %)		
Hiru aldiz	4 (8,89 %)	4 (8,89 %)		
Lau aldiz	1 (2,22 %)	1 (2,22 %)		
Lau aldiz baino gehiagotan	10 (22,22 %)	5 (11,11 %)		
Inoiz ez da haginlariarengana joan	0 (0 %)	5 (11,11 %)		
<b>Ikustaldiaren zergatia</b>				0.16839
Hortzetako arazoak edo mina	9 (20 %)	5 (11,11 %)		
Ohiko osasun azterketa	28 (62,22 %)	25 (55,56 %)		
Tratamendua edo jarraipena	7 (15,56 %)	9 (20 %)		
Ez zen haginlariarengana joan	1 (2,22 %)	6 (13,33 %)		
<b>Haginetako minaren frekuentzia</b>				0.104961
Maiz	2 (4,44 %)	1 (2,22 %)		
Noizean behin	2 (4,44 %)	7 (15,56 %)		
Ia inoiz	13 (28,89 %)	6 (13,33 %)		
Inoiz	28 (62,23 %)	31 (68,89 %)		
<b>Hortzen osasunaren pertzepzioa</b>				0.5986
Bikaina	14 (37,78 %)	13 (28,89 %)		
Oso ona	12 (26,67 %)	16 (35,56 %)		
Ona	11 (24,44 %)	12 (26,67 %)		
Erdi mailakoa	6 (6,67 %)	2 (4,44 %)		
Eskasa	2 (4,44 %)	1 (2,22 %)		
Oso eskasa	0 (0 %)	1 (2,22 %)		
<b>Hortzoien osasunaren pertzepzioa</b>				0.9504
Bikaina	14 (37,78 %)	13 (28,89 %)		
Oso ona	17 (37,78 %)	17 (37,78 %)		
Ona	13 (28,89 %)	11 (24,44 %)		
Erdi mailakoa	1 (2,22 %)	2 (4,44 %)		
Eskasa	0 (0 %)	1 (2,22 %)		
Oso eskasa	0 (0 %)	1 (2,22 %)		

## 5. EMAITZAK

---

**5.12 Taula.** Edoskitzea

Aldagaia	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)	Estatistika	P balioa
<b>Edoskitzea</b>			$X^2=3,554$	0.0594
Ez	5 (11,11 %)	12 (26,67 %)		
Bai	40 (88,89 %)	33 (73,33 %)		
<b>Edoskitze denbora</b>				0.0004697
0-1 urte	33 (73,33 %)	29 (64,44 %)		
0-2 urte	5 (11,11 %)	4 (8,89 %)		
0-3 urte	2 (4,45 %)	0 (0 %)		
Edoskitzerik ez	0 (0 %)	12 (26,67 %)		
EE	5 (11,11 %)	0 (0 %)		
<b>Gaueko biberoia</b>			$X^2=1,460$	0.2269
Ez	31 (68,89 %)	36 (80 %)		
Bai	14 (31,11 %)	9 (20 %)		

**5.13 Taula.** Gurasoen aho-osasuna.

Aldagaia	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)	Estatistika	P balioa
<b>Amaren aho osasuna</b>				0.03797
Ona	31 (68,89 %)	28 (62,22 %)		
Eskasa	12 (26,67 %)	6 (13,33 %)		
Oso eskasa	1 (2,22 %)	7 (15,56 %)		
EE	1 (2,22 %)	4 (8,89 %)		
<b>Aitaren aho osasuna</b>				0.45999
Ona	27 (60 %)	27 (60 %)		
Eskasa	10 (22,22 %)	10 (22,22 %)		
Oso eskasa	6 (13,34 %)	2 (4,44 %)		
EE	2 (4,44 %)	6 (13,34 %)		

## 5.3 Mediku Historia

Kontrol taldea asma taldearengandik bereizten ziren aldagai nagusienetako bat errinitis alergikoa izan zen. Haur asmadunen artean %88,89ak pairatzen zuen patologia hau, eta kontrol taldean bakar batek ere ez (5.14 taula).

**5.14 Taula.** Medikazio gehigarriaren erabilera iraganean eta errinitis alergikoaren presentzia.

Aldagaia	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)	Estatistika	P balioa
<b>Errinitis alergikoa</b>				0.0001
Ez	45 (100 %)	5 (11,11 %)		
Bai	0 (0 %)	40 (88,89 %)		

Azkenik mediku historiaren atalarekin bukatzeko asmadunen berezko aldagaiak aztertzen dira, 5.15 taulan bilduta agertzen direnak. Aldagai hauen analistik ondorioztatu dezakegu haurren gehiengoak (%73,33ak) ahoa urarekin garbitzen zuela farmakoak erabili ondoren, %65ak gutxi gora behera, asma larria pairatzen zuen eta hortaz MDI ganberen erabilpena tratamendu nagusia izan zen (kasuen %60).

Pazienteenganako esposizio denboraren batezbestekoa 6,40 urtekoa izan zen eta gehiengoak jasotako dosia 500 mikrogramotakoa, goizean eta gauean hartuta, salmeterola eta flutikasona konbinatuz.

## 5.4 Aho-osasunaren ebaluazioa. Aldagai klinikoak

Talde bien aho-osasunaren azterketek erakusten dutenez, ez dago desberdintasun estatistikoki esanguratsurik aho-arnasketaren (5.16 taula) eta CAOD (behin-betiko hortzeriaren kasuan) eta caod (behin-behineko hortzeriaren kasuan) indizeen artean (5.17 taula). CAO 0 (5.18 taula) eta cao 0 (5.19 taula) indizeen kasuan ere berdina gertatzen zen.

## 5. EMAITZAK

---

### 5.16 Taula. Aho-arnasketa

Aldagaia	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)	Estatistika	P balioa
<b>Aho-arnasketa</b>			X2=0,476	0.4902
Bai	33 (73,33 %)	30 (66,67 %)		
Ez	12 (26,67 %)	15 (33,33 %)		

### 5.17 Taula. CAOD indizea behin-betiko hortzerian eta caod indizea behin-behineko hortzerian

	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)	Estatistika	P balioa
CAOD	0,22 (0,53)	0,53 (1,16)	T=-1,64	0.106
caod	0,42 (0,72)	0,40 (1,14)	T=0,11	0.912

### 5.18 Taula. Behin-betiko hortzeriaren CAO 0 indizea (Khi-karratu testa).

CAO 0	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)
Txantxarrekin	8 (17,78 %)	13 (28,89 %)
Txantxar gabe	37 (82,22 %)	32 (71,11 %)

### 5.19 Taula. Behin-behineko hortzeriaren cao 0 indizea (Khi-karratu testa)

cao 0	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)
Txantxarrekin	14 (31,11 %)	10 (22,22 %)
Txantxar gabe	31 (68,89 %)	35 (77,78 %)

## **5.4 Aho-osasunaren ebaluazioa. Aldagai klinikoak**

---

Talde bietako listu testetan desberdintasun estatistikoki esanguratsuak aurkitu ziren, listuaren biskositatean zein pH mailan (5.20 taula). Asmadunen listuak, kasuen %20ak apardun burbuilak zeuzkan, kontrol taldekoenak ostera ez. pH aren kasuan, haur asmadunen pH-a azidoagoa zen kontrol taldekoena baino. Hidratazioaren frogan aldiz ez zen desberdintasun estatistikoki adierazgaririk aurkitu.

**5.20 Taula.** Estimulatu gabeko listua

Aldagaia	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)	P balioa
<b>Hidratazioa</b>			0.3529
60 segundotik gora	4 (8,89 %)	8 (17,78 %)	
60 segundotik behera	41 (91,11 %)	37 (82,22 %)	
<b>Biskositatea</b>			0.00182
Apardun burbuilak	0 (0 %)	9 (20 %)	
Apardun hondar itsaskorrapak	1 (2,22 %)	0 (0 %)	
Listu urtsu argia	44 (97,78 %)	36 (80 %)	
<b>pH-a</b>			0.0148
5,8 edo baxuagoa	0 (0 %)	1 (2,22 %)	
6 eta 6,8 bitartekoak	5 (11,11 %)	14 (31,11 %)	
6,8 eta 7,8 bitartekoak	40 (88,89 %)	30 (66,67 %)	

Estimulatutako listuaren entseguan (5.21 taula) ez zen desberdintasun estatistikoki esanguratsurik aurkitu talde bien artean kantitateari eta indargetze-ahalmenari dagokionez.

## 5. EMAITZAK

---

**5.21 Taula.** Estimulatutako listua

Aldagaia	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)	P balioa
<b>Kantitatea</b>			0.13614
3,5 behera	5 (11,11 %)	9 (20 %)	
3,5 eta 5 mL artean	38 (84,45 %)	30 (66,67 %)	
5mL tik gora	2 (4,44 %)	6 (13,33 %)	
<b>Indargetze-ahalmena</b>			
Oso baxua	1 (2,22 %)	0 (0 %)	0.06821
baxua	5 (11,11 %)	1 (2,22 %)	
Normala edo altua	39 (86,67 %)	44 (97,78 %)	

Azkenik, esmaltearen opakotasunen analisian (5.22 taula) estatistikoki desberdintasun esanguratsuak aurkitu ziren talde bien artean, batik bat hipoplasien presentziari lotuta. Haur asmadunen taldean orban zurien proportzioa handiagoa izan zen. Halere, talde bien arteko banaketan ez zen desberdintasunik aurkitu.

**5.22 Taula.** Esmaltearen opakotasunak

Aldagaia	Kontrolak (n=45)	Asmadunak (n=45)	Estatistika	P balioa
<b>Esmaltearen opakotasunak</b>				0.01554
Gabezia	28 (62,22 %)	29 (64,44 %)		
Hipoplastiak	0 (0 %)	3 (6,67 %)		
Lerro zuriak	4 (8,89 %)	5 (11,11 %)		
Orban zuriak	4 (8,89 %)	7 (15,56 %)		
Koloredun orbanak	8 (17,78 %)	0 (0 %)		
Puntu zuriak	1 (2,22 %)	1 (2,22 %)		
<b>Distribuzioa</b>				0.373464
Asimetrikoa	11 (24,44 %)	14 (31,11 %)		
Simetrikoa	6 (13,33 %)	2 (4,44 %)		
Gabezia	28 (62,33 %)	29 (64,45 %)		

## 5.5 Asmak Txantxarrarengan Daukan Eragina

### 5.5.1 Asmaren larritasunaren eta txantxarraren arteko erlazioa

Asmaren larritasunak (moderatua vs. larria) ere, ez zuen desberdintasun estatistikoki esanguratsurik erakutsi CAOD ( $H = 0,19; p = 0,661$ ) eta caod ( $H = 0,58; p = 0,448$ ) indizeei lotuta, azpitalde bietako mediana ia hutsekoa izanda (5.23 taula). Hau laginaren tamaina txikiaren ondoriozkoa da, zeinean asma larridun taldea nabarmentzen den.

**5.23 Taula.** Asmaren larritasunaren eta CAO 0 eta cao 0 indizeen arteko erlazioa

Aldagaiak		Asma		P balioa
		Moderatua	Larria	
CAO 0	0	4 (25 %)	9 (31,04 %)	0,7432
	1	12 (75 %)	20 (68,96 %)	
cao 0	0	2 (12,50 %)	8 (27,59 %)	0,2924
	1	14 (87,50 %)	21 (72,41 %)	

### 5.5.2 Asmaren eta esmaltearen opakotasunaren arteko erlazioa

Asma larriagoa zeukaten haurrek opakotasunak pairatzeko arrisku handiagoa zeukaten ala ez aztertu genuen. 5.24 taulan opakotasunak sailkatzen dira asmaren larritasunaren arabera. Opakotasunen gabezia oso antzekoa da talde bietan. Horrela, ez dago ezberdintasun estatistikoki adierazgaririk talde bien artean opakotasunaren presentziari edo gabetasunari dagokionez, ezta hauen banaketaren simetriari dagokionez ere.

## 5. EMAITZAK

**5.24 Taula.** Asmaren eta esmaltearen opakotasunen arteko erlazioa

Aldagaia	Moderatua (n=16)	Larria (n=29)	Estatistika	P balioa
<b>Opakotasun mota</b>				
